

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux eta actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language



EUSKERA



2018
63,1
1-144
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Telefona: 94415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s' échange avec d' autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege gordailua: BL-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Maketazioa: Euskaltzaindiko Argitalpen zerbitzua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik aurrera argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

Euskera agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2019): C maila

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de Redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography

Indicadores de calidad:

CIRC (2019): Categoría C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie le la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d' Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography

Indicateurs de qualité :

CIRC (2019): Catégorie C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of Euskaltzaindia and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases :

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database

Quality indicators :

CIRC (2019): Group C

MIAR (2018): 8.0 (ICDS)

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindia. Bilbo
Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO, Euskaltzaindia. Bilbo
Teknikaria: JON ARTZA, Euskaltzaindia. Bilbo

Kideak

ADOLFO AREJITA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	ANDONI SAGARNA <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona</i>	PATXI SALABERRI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea</i>
JOSEBA ANDONI LAKARRA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	MIKEL ZALBIDE <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea Tolosa, Okzitania	XABIER ITZAINA CNRS, Centre Emile Durkheim Sciences por Bordeaux. Bordele
MIREN AZKARATE Euskaltzaindia. Donostia	JOSEBA INTXAUSTI Euskaltzaindia. Donostia
JOXE AZURMENDI Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia	IÑAKI IRAZABALBEITIA Elhuyar Fundazioa. Usurbil
MARTINE BERTHELOT Perpignango Unibertsitatea. Perpignan	JACINTO ITURBE Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa
CHARLES BIDEGAIN Paueko eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona	JABIER KALTZAKORTA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
JOSU K. BIJUESCA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo	JON LANDABURU CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa
GIDOR BILBAO Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	ALBERTO LOIZATE Basurtoko Ospitalea. Bilbo
IÑAKI CAMINO Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	JUAN MADARIAGA Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea
ANA ETXAIDE Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea	JOAN MARTI Institut d'Estudis Catalans. Secció Filològica. Bartzelona
JOSE RAMON ETXEBARRIA Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo	ENEKO OREGI Eusko Jaurlaritz. IZOko burua. Gasteiz
MAITE ETXENIKE Universitat de València. Valentzia	JON ORTIZ DE URBINA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
PATXI GOENAGA Euskaltzaindia. Gasteiz	ROSA MIREN PAGOLA Deustuko Unibertsitatea. Bilbo
RICARDO GÓMEZ Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	JOSE ANTONIO PASCUAL Real Academia Española. Madril
MANUEL GONZALEZ Real Academia Galega. Coruña	TXOMIN PEILLEN Euskaltzaindia. Baiona
MARTIN HAASE Bambergo Unibertsitatea. Bamberg	IBON SARASOLA Euskaltzaindia. Donostia
JOSE IGNAZIO HUALDE Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois	JOAN MARI TORREALDAI Euskaltzaindia. Donostia
ITZIAR IDIAZABAL Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz	MIRIAM URKIA Euskaltzaindia. Donostia
	JUAN JOSE ZUBIRI Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

E U S K E R A

AURKIBIDEA

JARDUNALDIAK:

- Gabriel Aresti eta bere garaia. Euskara biziberritzearen bidegileak

[9-11] *Kronika*

AGIRIAK:

- Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

[14-19] *Osoko bilkura*

Donostian, 2018ko urtarilaren 26an

[20-23] *Ageriko bilkura*

Donostian, 2018ko urtarilaren 26an

[24-31] *Osoko bilkura*

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

[32-37] *Osoko bilkura*

Gasteizen, 2018ko martxoaren 22an

[38-43] *Osoko bilkura*

Bilbon, 2018ko apirilaren 27an

[44-49] *Osoko bilkura*
Baionan, 2018ko maiatzaren 25ean

[50-55] *Osoko bilkura*
Donostian, 2018ko ekainaren 29an

[56-62] *Osoko bilkura*
Iruñean, 2018ko uztailaren 20an

[63-68] *Osoko bilkura*
Gasteizen, 2018ko irailaren 28an

[69-73] *Osoko bilkura*
Bilbon, 2018ko urriaren 26an

[74-78] *Osoko bilkura*
Donostian 2018ko azaroaren 23an

[79-81] *Ageriko bilkura*
Donostian 2018ko azaroaren 23an

- **Euskaltzaindiaren Arauak**

[82-86] *2018an argitaratutako arauak*

IRIZPENAK ETA TXOSTENAK:

- **Onomastika**

[88-93] *Aretxabaletako Arkaraso eta Isurieta toponimoen forma arautuez*
ZALDUA, Luis Mari

ADIERAZPENAK ETA HITZARMENAK:

[94-100] *Euskaltzaindiak 2018an zehar hainbat adierazpen instituzional egin ditu*

[101-112] *Euskaltzaindiak 2018an zehar hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ditu*

BERRIAK:

[114-120] *2018ko albisteen kronika*

OMENALDIAK:

[122-127] *2018an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak*

HILBERRI TXOSTENAK:

[129-132] *Junes Casenave-Harigileren hilberri txostena (1924-2018)*

DAVANT, Jean-Louis

[133-140] *Xalbador Garmendiaren hilberri txostena (1932-2018)*

OTAEGI, Lourdes

[141-143] *Manex Pagolaren hilberri txostena (1941-2018)*

ALFARO, Gexan

Jardunaldiak

Aresti eta bere garaia. Euskara biziberritzearen bidegileak

Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2018ko urriaren 18an

Bilboko Udalak, Gabriel Aresti Kultura Elkartek eta Euskaltzaindiak Gabriel Aresti idazle eta euskaltzain bilbotarraren izena eta izana gogoratu dute. Bide batez, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal kulturegintzak eta euskalgintzak bizi izan zuen aurrerakada errepasatu da. Euskaltzaindiaren egoitzan bildu dira, besteak beste, Xabier Kintana, Maite Idirin, Jokin Apalategi, Arantza Garmendia, Kepa Martinez Lagos, Iñaki Zarraoa, Jose Ramon Etxebarria eta Iñaki Aldekoa. Gainera, *Mailu biluzia* antzezlan laburra estreinatu zuten Oier Guillánek eta Iñaki Ziarrustak.

Orduko hartan, gazte belaunaldi batek hartu zien lekukoa garai bateko idazle eta kulturegileei; inguruabar horretan sortu ziren, besteak beste, gau-eskolak, ikastolen mugimendua, *Anaitasuna* aldizkaria, Lur argitaletxea, Ez Dok Amairu, Gaur, Emen, Orain eta Danok taldeak... Sasoi horretan antolatu zen, baita, Euskaltzaindiaren 1968ko Arantzazuko biltzarra, 1964an Baionan egin zenaren segida historikoa.

Gabriel Arestik berta-bertatik bizi izan zituen gertakari horiek, eta giro berriaz blaitu zen; blaitu bakarrik ez, bera izan baitzen suspertze prozesu horren eragileetako bat. Arestiren orduko ahaleginak azpimarratu eta euskal kultura suspertu zutenen lana gogoratu da jardunaldi honetan.

Lehenbizi etorritakoak agurtu, eta jardunaldia aurkeztu dute Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak, eta Xabier Monasterio Gabriel Aresti Kultura Elkarteko ordezkariak. Arestiren figura goraiatu beharraz hitz egin dute hirurek.

Jarraian, Oier Guillan eta Iñaki Ziarrustak *Mailu biluzia* antzerki-lana antzeztu dute.

Xabier Kintanak, Arestiren adiskide min eta garaiko lekukoak, azaldu du Gabrielelek euskara batuaren hastapenetan eta sorreran zer paper bete zuen. Garai-ko giro orokorra azaltzeko Maite Idirin eta Jokin Apalategi ekintzaileek 60ko eta 70eko Euskal Herriko kaleetan zer giro bizi zen kontatu dute. Solasaldian beraien semea den Ur Apalategik lagundu die eta sasoi hartako kontakizuna umearen begiradatik ezagutzeko parada eman du.

Iñaki Zarraoak eta Arantza Garmendiak, garai hartan ikastoletan garatzen ziren metodologia, pedagogia, ikasmaterialak eta abar azaldu dituzte. Jakina, testuinguru soziopolitikoa zein zen ulertu behar da irakaskuntzan egin zen lana baloratzeko.

Jose Ramon Etxebarria irakasle, euskaltzain eta idazleak hamarkada haietan euskarazko prentsa zertan zen esan digu. Aldizkari gisa *Anaitasuna* zen oihartzun handiena zeukana, eta *Jakin* aldizkaria eduki sakonagoak eta jasoagoak euskaraz argitaratzen hasi zen. Literatura zertan zen, oster, Iñaki Aldekoa EHUko irakasle eta editoreak azaldu du. Horrekin batera, argudiatu du borroka antifrankistan erabat murgilduak zeuden garai hartako euskaltzaleak pluraltasun handikoak zirela, eta, beraz, ez dela harritzekoa garai hartan agertzen hastea gaur arte iraun duten desberdintasunak.

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko bilkura

Donostian, 2018ko urtarrilaren 26an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide; Mikel.

Mujika, Alfontso, Urkia Miriam eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Jose Irazu “B. Atxaga”, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdai eta Xarles Videgain.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari

(iritsi bitartean); Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarrileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Aztergaiei ekin aurretik, E. Osa idazkariordeak gogorarazi du 2017. urtean hildako euskaltzain emeritu, ohorezko eta urgazleak omentzeko, Ageriko bilkura eginen dela 12:00etan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tronua aretoan. Horrela, Osoko bilkura 11:45 direnean amaitzea komeni dela aditzera eman du.

1. Osoko bilkurako (2017-12-22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetuta, euskaltzainek oharrik ez dute egin. Ondorioz, 2017ko abenduaren 22ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. Ameriketako buruzagien izenak. Aurkezpena

Gaia jorratzeko A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretora sartu eta Exonomastika batzordeak paraturiko Ameriketako buruzagi historikoen izenen araugaia aurkeztu du. A. Mujikak adierazi du Aro Modernoaz geroztik pertsonen jatorrizko izenak, oro har, ez direla aldatzen hizkuntza batetik bestera, baina Ameriketako kolonizazioaren garaian badirela zenbait buruzagi-izen aztertu behar direnak.

Alde batetik, Ipar Amerikako indiar tribuen buruzagien izenak daude; askotan izen arruntez osatuta daudenez, transkribatu beharrean jatorrizko hizkuntzatik ingelesera itzultzen ziren. Eta izen itzuli horiek beste hizkuntzetara ere itzuli ziren gero. Kasu horietan, euskarara ere itzultzea proposatzen du batzordeak, eta buruzagi-izenen sail labur bat proposatu du arautzeko. Halakoak dira *Zaldi Eroa* edo *Euria Aurpegian* gisakoak.

Beste aldetik, Hego Amerikako inken buruzagien izen batzuk ere arauan sartzea proposatzen du batzordeak, erakusteko izen horiek, oro har, ez direla euskal grafiaz ematekoak, haien grafiak gaztelaniazko grafiarekin zabaldu baitira gainerako hizkuntza nagusietara. Halakoak dira *Huascar*, *Huayna Capac* eta abar. Kasu horietan, kitxuazko izena ere ematea proposatzen da.

Aurkezpenaren ondoren, Andoni Sagarnak, lehenik, eta Mikel Zalbidek, gero, adierazi dute era horretako izenak mugagabeen ematea izan dela tradizio nagusia orain arte. X. Kintana batzordeburuak adierazi du batzordeak ohar hori aztertu, proposaturiko izenak gainbegiratu eta duen iritzia hurrengo Osoko bilkurara ekarriko duela.

Horrela, aurkeztutakoari oharrak egiteko epea ireki da. Epe hori otsailaren 19an amai dadin erabaki dute euskaltzainek.

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (II). Aurkezpena

Gaiari buruzko azalpenak emateko, M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* lantaldeko burua eta “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen idazkaria batzar-aretora sartu da. A. Sagarna batzorde ahaldunduen buruak eta M. Urkiak adierazi dute abenduko bileran aurkeztutako aztergaiari,

hau da, batzordekideek egindako oharra eta egitasmoko kideek bere horretan onartutakoak biltzen zituen aztergaiari, euskaltzainek ez diotela oharrik egin. Beraz, bere horretan onartu da sail hori.

Ondoren, batzordekideek egindako oharrei egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen zerrenda berria aurkeztu dute. Lehenengo orrialdetik hirugarrenera egon diren hitzak aurkeztu ahal izan dira soil-soilik. Euskaltzainak bat etorri dira egin diren proposamenekin. Nolanahi ere, otsailaren 19ra arteko epea zabaldu da, nahi duenak oharra egiteko aukera izan dezan.

Bestalde, abenduko bileran aurkeztu zen “Ezkontza-ereduen aldaketak eraginik sortu diren egoera berriak” sailean *guraso* hitza falta zela azaldu dute Euskaltzaindiaren Hiztegiko ordezkariak, sexu bereko gurasoak ez baitziren kontuan hartzen. Bertsio zaharrean “**guraso 1** iz. pl. Aita-amak, aita eta ama. // **2** iz. Aita edo ama, eta, bereziki, aita.” zegoen lekuan, orain “**guraso 1** iz. pl. Aita-amak, aita eta ama, aita, ama. // **2** iz. Aita edo ama.” uztea proposatu da, eta ontzat eman dute euskaltzainek. Hala jasoko du, beraz, Hiztegiaren bertsio eguneratuak.

4. Esku artekoak

4.1. Patxi Uribarren (2017-10-31) eta Joan Mari Torrealdai (2017-11-24) euskaltzainak emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsarteak betetzeko hautagaiak.

P. Uribarren euskaltzain emeritu izaerara igarotzearen ondorioz hutsarteak betetzeko, bi hautagai aurkeztu dira. Batetik, M. Azkarate, J. Lakarra eta M. L. Oñederra euskaltzain osoek Karmele Jaio Eiguren euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Bestetik, P. Uribarren, P. Salaberri, A. Arejita eta M. Zalbide euskaltzain osoek Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzain urgazlea aurkeztu dute.

Bi hautagaien aurkezpen laburra egin da:

- Karmele Jaio Eiguren (Gasteiz, 1970), kazetari, idazle eta euskaltzain urgazlea (2015) da. Kazetaritzaren arloan, hainbat komunikabidetan egin du lan eta zenbait komunikazio bulegotako buru izan da. Egun, Emakundeko komunikazio arduraduna da. Literaturaren arloan, 2004an argitaratu zuen lehen liburua, *Hamabost zauri* (Elkar) ipuin bilduma, eta ordutik beste bi ipuin liburu *-Zu bezain ahul* (Elkar, 2007) eta *Ez naiz ni* (Elkar, 2012)-, bi nobela *-Amaren eskuak* (Elkar, 2006) eta *Musika airean* (Elkar, 2009)-, eta poesia li-

buru bat *-Orain hilak ditugu* (Elkar, 2015)- argitaratu ditu. Hainbat sari jaso ditu eta bere lanak zinerako eta antzerkirako moldatuak izan dira.

- Roberto Gonzalez de Viñaspre (Bilbo, 1961). Bilbotarra jaiotzez, Araban -Trebiñun- bizi izan da gaztetatik. Euskal Filologian lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, eta Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa da, Hizkuntza Normalizazioaren alorrean. Euskaltzain urgazle izendatua 2015ean, eta Euskaltzaindiaren Arabako ordezkari eta Onomastika batzordearen buruorde 2017ko ekainaz geroztik. Arabako toponimia historikoa da gehien landu duen ikerketa esparrua, eta arreta bereziarekin aztertu du Trebiñukoa.

J. M. Torrealдай euskaltzain emeritu igarotzearen ondorioz hutsartea betetzeko, hautagai bakarra aurkeztu da. J. M. Torrealдай, A. Sagarna, S. Aleman eta X. Kintana euskaltzain osoek Miriam Urkia euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Hautagaiaren aurkezpen laburra egin da:

- M. Urkia (Donostia, 1965): Euskal Filologiako doktorea (EHU, 1997). Aurretik Euskal Filologian lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea, 1988). Lexikografia, corpusgintza, morfologia konputazionala eta hizkuntza-teknologiak dira bere lan-esparruak. UZEIko langilea 1983tik, Lexikografia saileko zuzendaria da 1992tik eta, teknologiei lotutako lan lexikografikoekin batera, bereziki Euskaltzaindiari lotutako lanetan dihardu. *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* lantaldeko burua da eta “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduaren idazkaria. Euskaltzain urgazlea da 2003tik eta Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria 2017tik. Euskararen Aholku Batzordeko kide ere bada 2007tik.

Hutsarteak hornitzeko proposamenak aurkeztu ondoren, aukeraketa otsailaren 23ko Osoko bilkuran eginen dela iragarri da, Arautegiaren 35. xedapenaren eta Barne-erregelen 64., 65. eta 68. xedapenen arabera.

4.2. Euskaltzaindiaren Literatura arloa. Literatura Ikerketa batzordea desagertu eta gero, Euskaltzaindiak Literatura Ikerketaren arloan bi egitasmo izango dituela iragarri du A. Urrutia euskaltzainburuak. Batetik, “Euskal Literaturaren Antologia” egitasmoa -orain arte, lehen liburukia argitaratuta dago (*Erdi Arotik Errenazimentura*, 2015)-. Ondorioz, bigarren liburukia paratuko da, *Errenazimentutik Ilustrazio*

ziora, hain zuzen ere. Bigarren liburuki hau 2019. urtean bukatzea eta argitaratzea begiz jo da.

Egitasmo honen koordinatzailea Karlos Otegi izango da. Kideak, berriz, Gorka Aulestia, Sebastian Gartzia, Jon Kortazar, Patri Urkizu eta Xabier Altzibar. Isabel Etxebarriak eta Bakartxo Urruzolak aholkulari jardungo dute.

“Izkributan” izenburua izango du eremu honetan aurrerantzean egongo den beste egitasmoak. Egitasmo honetan begiz jo denaren arabera, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren urtemuga baliatuz, 2019. urtean, literatura-sorkuntzaz, eleaniztasunaz eta literatura-artxiboez egun bat eta erdiko jardunaldia antolatuko da eta edukiak argitaratuko. Lehen eguna ekitaldi artistiko batekin bukatuko da.

Egitasmo honen koordinatzailea Aurelia Arkotxa euskaltzain osoa izango da: kideak, berriz, Maria Jose Olaziregi eta Lourdes Otaegi euskaltzain urgazleak.

Egitasmo bi hauek jasoko dira Euskaltzaindiaren Organigraman, bai eta webgunean ere, datozen egunetan.

4.3. Onomastika batzordean aldaketak gertatu dira. Patxi Salaberri euskaltzain osoak Onomastika batzordearen ardura, ECO eta Gasteizko Toponimia egitasmoen zuzendaritzak utzi nahi dituela adierazi du. Horiek horrela, Roberto Gonzalez de Viñaspre Onomastika batzordearen buruordea batzordeburu izateko erabakia hartu zuen Zuzendaritzak 2018ko urtarrilaren 11n eginiko bilkuran. Era berean, hemendik aurrera, R. Gonzalez de Viñasprek ECO eta Gasteizko Toponimia egitasmoen ardurak ere hartuko ditu.

Osoko bilkurak Zuzendaritzak harturiko erabakiak berretsi ditu.

Bestalde, Isabelle Duguinek Onomastika batzordeko kide izateari utzi dio, berak hala eskatuta, aurrerantzean beste zeregin batzuetan arituko delako Euskaltzaindiaren barruan.

Aldaketa hauek jasoko dira Euskaltzaindiaren Organigraman, bai eta webgunean ere, datozen egunetan.

4.4. Espainiako Rafael Catalá Polo Justizia ministroari bidalitako gutunaren berri. A. Urrutiak aditzera eman duenez, Euskaltzaindiak Espainiako Gobernuako Justizia ministroari kezka agertu dio, zenbait kasutan zaila delako Erregistro Zibilaren idazpenetan pertsonen euskal izendegia erabiltzea. Eta hori gertatzen da euskaraz pertsona izen guztiei ezin zaielako genero maskulinoa edo femeninoa atxiki, era eskusiboan. Era berean, eremu honetan lankidetzaren eskaintza ere eskaintzen zaio Espainiako Justizia ministroari.

4.5. Frantziako Tourra, Europako Errugbi Challenge-a eta Champions txapelketetako finalak, Espainiako Vuelta, MTV Europe Music Awards ekitaldiak direla eta, gutunak. Euskarari presentzia egokia emateko gutxienez gainerako hizkuntzen parekoa eskaria egin zaie ekitaldi horren atzealdean dauden antolatzaileei eta sustatzaileei, tartean herri-erakundeei. Ekimena Sustapen batzordearen proposamenez bideratu da.

4.6. Bilkurak. Otsailaren 23an egingo da Euskaltzaindiaren Osoko bilkura Iruñean, Iruñeko Udaletxean, 10:00etatik aurrera.

5. Azken ordukoak

P. Zabaleta euskaltzain osoak proposatu du Euskaltzaindiak ekimenen bat abian jartzea azter dezan, lanpostu publikoak hornitzeko egiten diren askotariko deialdietan euskarari parte hartze handiagoa egin dakion.

Eta beste aztergaiarik ez dela, 12:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Ageriko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Tronu Aretoan,
2018ko urtarrilaren 26an.

Batzar-agiria.

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil ziren Piarres Xarriton Zabalazarai euskaltzain emerituaren, Marie Jeanne Minaberry Etxart ohorezko euskaltzainaren, Hiazinto Fernandorena Setien eta Luis Mari Mujika Urdangarin euskaltzain urgazleen hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Xipri Arbelbide, Luis Baraiazarra, Antonio Campos, Maite Idirin eta Juan Manuel Ruiz.

Euskaltzain urgazleak: Joxe Austin Arrieta, Miriam Urkia eta Patri Urkizu.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna.

Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Maixa Goikoetxea.

Gaur omenduriko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Ekitaldia Joxan Goikoetxea eta Josune Marin musikarien pieza batekin hasi da. Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ditu. Gauzak horrela, gogora ekarri du ohikoa dela Euskaltzaindiak, urteko lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren, aurreko urtean hil diren euskaltzainak gogora ekartzeko ekitaldia egitea. Halaber, azpimarratu du joandako euskaltzainek, bakoitzak bere eremuan, une zailetan, baliabide eta aukera urriagoak zeudenean, euskararen eta euskal kulturaren alde egin zuten ekarpena.

Ondoren, Hiazinto Fernandorena Setien (Urnieta, 1939ko ekainaren 29a - Lazkao, 2017ko urtarrilaren 6a) euskaltzain urgazlearen hilberri txostenak irakurtzeko, hitza eman die Patxi Zabaleta euskaltzain osoari eta Joseba Iñaki Etxezarreta Arizmendi Ikastolako zuzendariari. Bi-biek Hiazinto Fernandorena euskal irakasle, itzultzaile eta Ikastolen bultzatzaile izanikoaren sotsaia egin dute. Azaldu dutenez, H. Fernandorena urte askoz izan zen apaiz Lazkaon; Lazkaoko eta Zumaiako ikastolen, Euskal Udalekuen eta -Elbira Zipitriaren bidetik- Andereño Eskolaren sortzailea izan zen; Hernaniko Udaleko itzultzaile eta euskara arduraduna ere izan zen.

Gogorarazi dutenez, sasoi batean, ikastoletan baliatzeko material falta zegoenez gero, Hiazintok eta haren inguruan lan egin zutenek ikastoletarako materialak sortu eta irakasleak ere trebatu zituzten. Horrela, euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko lan nekaezinagatik, Euskaltzaindiak, 1967ko abuztuan, euskaltzain urgazle izendatu zuen. Duela bi urte omenaldia egin zioten Andoainen, Martin Ugalde parkean, eta *Jaxinto, ikastolen lemazain* liburuan aletu zituzten bere ekimen eta gogoak.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak Marie Jeanne Minaberry, “Andereño”, “Atalki” ezizenez ere ezaguna (Banka, Nafarroa Beherea, 1926ko irailaren 7a - 2017ko otsailaren 23a) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko hitza eman dio Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainari. Azken honek ohorezko euskaltzainaren bizitza aletu du. Batxilergoko titulua eskuratzeko saiakerak egin ondoren, irakaskuntzan zein Bankako Herriko Etxean idazkari lanetan ibili zen, baita aldizkari batzuetan kolaboratzaile ere. Irratigintzan ere aitzindaria izan zen (besteak beste, *Gure Irratian* eta *Lapurdi Irratian*) eta kolaborazio horien bitartez bere sorkuntza propioak argitaratzen hasi zen.

Azpimarratu duen bezala, idazle ibilbidea hainbat aldizkaritako kolaborazioen bidez hasi zuen poemak eta ipuinak plazaratzen 1960. urtean, *Gure Herrian* kaleratu zituen bi poema: *Amaño kantua* eta *Esku miresgarria*. Handik urtebetera, *Mari-gorri*

lana argitaratu zuen; 1963an, berriz, *Itchulingo anderea* ipuin liburua plazaratu zuen Baionan eta 1965ean *Xoria kantari* poesia liburua. Bi lan horiek Euskal Haur eta Gazte Literaturaren mugarritzat har daitezke, hau da, Euskal Haur Literaturaren abiapuntutzat. Harrezkero, argitara emaniko poemak, ipuinak eta abar ugariak izan dira. Bestalde, Manuel Michelena eta Piarres Lafitteren laguntzaz, bi hiztegi argitaratu zituen (*Grammaire basque pour tous* eta *Dictionnaire basque pour tous*). Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1964ko urriaren 30ean, eta ohorezko 1998ko apirilaren 24an. Euskal Idazleen Elkarteko ohorezko kidea izan zen. Sarako Idazleen Biltzarraren 34. edizioan, Marie Jeanne Minaberry, Piarres Xarriton eta Hasier Etxeberria omendu zituzten.

Hilberri txostenekin segituz, Piarres Xarriton (Hazparne, 1921eko urriaren 19a - Baiona, 2017ko martxoaren 17a) euskaltzain emerituaren hilberri txostena irakurtzeko hitza hartu du Jean-Louis Davant euskaltzain emerituak. P. Xarriton euskal idazle eta politikaria izan zen, aditua izan zen euskal literaturan, teologian eta filosofian. 21 urterekin irakasle hasi zen Biarritzen, eta urtebete geroago Hazparnen. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Erromara joan zen Teologia ikas-tera eta ondoren, 1947an, apaiztu zen.

1960ko hamarkadan, Hazparneko eskolaren ardura haren esku utzi zuten, Langintza Eskola plantan ezartzeko. Horretan ari zela ezagutu zituen Txillardegi eta Kristiane Etxaluz, besteak beste. 1970eko hamarkadaren erdialdean, apaizgoa utzi eta ezkondu egin zen. Udako Euskal Unibertsitatearen sortzaileetarikoa izan zen. 1980ko hamarkadan amaitu zuen Euskal Ikasketetan abiatua zuen doktoretza, Hazparneko auzapez eta kontseilari orokor izan zen Piarres Broussaini buruzko tesia aurkezturik. Jean Haritxelar izan zuen tesi-zuzendari. Lan garrantzitsua egin zuen Jean Etxepare Bidegorriren (1984-1988) eta Piarres Lartabalen (1991) idazlanak hainbat liburukitan bildu eta argitaratuz. Eusko Alkartasunaren sortzaileetarikoa bat ere izan zen, bai eta EAko Ipar Euskal Herriko burua hainbat urtez. 1993tik 1995era bitartean, Baionako Herriko Etxeko zinegotzia izan zen. Euskaltzaindiak 1950ean euskaltzain urgazle izendatu zuen, eta 1985ean, oso. 1996. urtean, euskaltzain emerituaren izaera eskuratu zuen.

Hilberri txostenekin amaitzeko, Luis Mari Mujika (Lizartza, 1939ko urriaren 10a, Donostia, 2017ko apirilaren 3a) euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurtzeko hitza Paulo Iztuetak hartu du. Azaldu duenez, L. M. Mujika ibilbide luzeko eta emari handiko sortzailea izan zen. Filologia ikasketak egin zituen, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Eskolan aritu zen irakasle, baina, nagusi-

ki, literaturan, toponimian, euskalgintzan eta hiztegegintzan eginiko lan nekaezinagatik izan da ezagun.

1963an argitaratu zuen bere lehen literatur lana. Poesia landu zuen hasieran, nagusiki, eta horren lekuko dira, besteak beste, *Bide giroak* (Sendoa, 1963), *Urdin eta burni* (Auñamendi, 1965) eta *Hitzak ebakitzean* (Kriseilu, 1975) liburuak. Bere garaikideek landutako bidearen kontra, neurtitzetan aritu zen bere ibilbidearen zatirik handienera. Eleberriak, kronikak eta saiakera lanak ere eman zituen argitarara. 1990eko hamarkadan hartu zuen *Egan* aldizkariaren zuzendaritza, eta literatura ikerketan egindako lanen zerrenda ere luzea da. Nabarmentzekoak dira, esaterako, euskal lirika tradizionalari eskainitakoa, Lizardiren poesiari buruz idatzitakoa, bai eta Txomin Agirrerren nobelagintzari eskainitakoa ere. Hemezortzi liburu kaleratu zituen Gipuzkoako toponimiari buruz eta Arabako toponimia ere sakonki ikertu zuen. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1965. urtean.

Joxan Goikoetxea eta Josune Marin musikarien pieza batekin ekitaldiari amaiera eman aurretik, hitza hartu du Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak. Mendizabal andreak joandako euskaltzain guztiak gogoan hartu ditu, bai eta azpimarratu ere haien engaiamendua eta eginiko ekarpena euskara eta euskal kultura indarberritzearen alde. Era berean, joandakoen hitzek eta ekintzek gure artean bizirik segitzen dutela azpimarratu du.

A. Urrutia euskaltzainburuak ekitaldiaren hasieran esanikoak gogora ekarritik, bese-
telako gairik ez dagoela, Ageriko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam,
Osa, Erramun eta
Usarralde, Ibon,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri, Pello Salaburu eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko otsailaren 23an, osatiralean, egin da Iruñean, udaletxean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkozen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Aztergaiei ekin aurretik, E. Osa idazkariordeak 11:00etan bilkura eten eta Iruñeko Udalak euskaltzainei harrera egingo diela aditzera eman du. Ondoren, Osoko bilkurak segida izanen du.

1. Osoko bilkurako (2018-01-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetuta, euskaltzainek oharrik ez dute egin. Ondorioz, 2018ko urtarrilaren 26ko Osoko bilkuraren bilera-agiria onartu da.

Urtarrileko Osoko bilkuraren harira, M. L. Oñederrak hitza hartu du, gaixorik zegoela adierazi eta ahala eman ez izanagatik barkamena eskatu du.

2. Patxi Uribarren euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea: hautagaiak bozkatzea

Aztergaiari ekin aurretik, Arautegiak eta Barne-erregelek diotena aditzera eman da. Horrela, euskaltzain oso izendatua izateko, hautagaiak bozen nagusitasuna erdietsi behar du (Arautegiaren 35. artikulua). Osoko bilkuran zuzenean eta ordezkatuta dauden euskaltzain oso eta emerituak 25 direla kontuan izanik, euskaltzain oso izendatzeko hautagaiak 13 boto eskuratu beharko ditu, lehen bozketan (Barne-erregelen 65. artikulua).

Ondoren, hutsartea betetzeko, Donostian, 2018ko urtarrilaren 26an eginiko Osoko bilkuran, bi hautagai aurkeztu zirela gogorarazi da. Alde batetik, M. Azkarate, J. Lakarra eta M. L. Oñederra euskaltzain osoek Kar mele Jaio Eiguren euskaltzain urgazlea aurkeztu zuten. Beste aldetik, P. Uribarren, P. Salaberri, A. Arejita eta M. Zalbide euskaltzain osoek Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzain urgazlea aurkeztu zuten.

Hautagaiak gogorarazi ondoren, bozketa egin da. Jasotako botoak 25 izan dira eta emaitzak hauexek: Kar mele Jaio Eiguren ek 6 boto, eta Roberto Gonzalez de Viñasprek 18 boto eta boto zuri bat. Ondorioz, Roberto Gonzalez de Viñaspre izendatu da euskaltzain oso, lehen bozketan.

Osoko bilkurak Kar mele Jaio Eigureni eskerrak eman dizkio hautagai izatea onartzeagatik.

3. Joan Mari Torrealдай euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsarteа: hautagaia bozkatzеа

Hutsarteа betetzeko, 2018ko urtarrilaren 26an eginiko Osoko bilkuran hautagai bakarra aurkeztu zuten J. M. Torrealдай, A. Sagarna, S. Aleman eta X. Kintana euskaltzain osoek, Miriam Urkia euskaltzain urgazlea, hain zuzen.

Hautagaia gogorarazi ondoren, bozketa egin da. Jasotako botoak 25 izan dira eta emaitza hauxe: Miriam Urkiak 23 boto eta boto zuri bi. Ondorioz, lehen bozketan, Miriam Urkia izendatu da euskaltzain oso.

4. Exonomastika. Ameriketako buruzagien izenak. Aurkezpena

Gaia jorratzeko A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretorara sartu da. Aditzera eman du, urtarrileko Osoko bilkuran adierazitako iritzien ondoren, batzordeak gaia berraztertu eta proposatu duela izengoitiak emateko irizpidea finkatzеа. Honela:

- (a) <Benetako ponte-izena + izengoitia> egiturako antroponimoetan, izengoitia mugatuan ematea. Hala erabaki du Osoko bilkurak antroponimiako arauetan. Adibidez: Alexandro Handia, Fernando Katolikoa, Erik Aizkora Odoldua, Karlos Burusoila, Pepin Laburra, Henrike Txori-ehiztaria eta abar.
- (b) Pertsonaren (persona erreala zein fikziozkoa izan) benetako izena hitz arruntez osatutako sintagma bat denean, izen berezitzat jotzea eta, printzipioz, artikulurik gabe ematea; hau da, ponte-izenak (*Alaitz*, *Ander*, *Lierni*, *Iñaki*...) deklinatzen diren bezala. Adibidez: *Txano Gorritxo*, *Edurnezuri*, *Bizarzuri*, *Galtzagorri* (arautu gabe daude, baina hori da ohiko erabilera).

Irizpidearen bigarren puntuaren arabera birmoldatu du batzordeak Ameriketako buruzagien izenen proposamena. Bestalde, Osoko bilkurak erabakitzeko beste puntu bat plazaratu du: *Bisonte Eseri* / *Zexen Eseri* gaia. Etimologia kontuan harturik, *bisonte* ematea hobetsi zuen hasieran batzordeak (*Thátŋaŋka* hitzak, lakota hizkuntzan, *bisonte* esan nahi du, eta ez *zexen*), baina datuek erakusten dute hala entziklopedietan (Elhuyar, Lur, Harluxet, Wikipedia) nola *Berrian* (Alberto Barandiaran, Gari Udabe, Victor Alexandre, Fredi Paia, Arantxa Iraola, Urtzi Urrutikoetxea) eta literaturan (Harkaitz Cano, *Twist*; Eduardo Galeano [Xabier Alegriak itzulia] *Ispiluak*) *zexen* erabili dela. Erdaretan, katalanez (*Bou Assegut*), alemanez

(*Sitzender Bulle*), italieraz (*Toro Seduto*), portugesez (*Touro Sentado*), gaztelaniaz (*Toro Sentado*) eta frantsesez (*Taureau Assis*) ere zezen erabiltzen da, ingelesezkoari jarraituta (*Sitting Bull*).

Datu horiek ikusita, azken erabakia —hau da, *Bisonte Eseri* ala *Zezen Eseri* euskaratzea— Osoko bilkuraren esku utzi du batzordeak.

Azalpenean aurkeztutakoari oharrak egiteko epea ireki da. Epe hori martxoaren 19an amai dadin erabaki dute euskaltzainek.

5. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren oharrak (II. 1-3 orrialdeak). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

Gaiari buruzko azalpenak emateko, M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* lantaldeko burua eta “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren idazkaria batzar-aretora sartu da. Euskaltzainek txalo artean hartu dute M. Urkia euskaltzain oso izendatu berria.

A. Urrutiak urtarrilaren 26an eginiko Osoko bilkurak oharrak egiteko otsailaren 19ra arte irekitako aldian oharrak iritsi den galdetu du. E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, ez da bakarrik ere jaso. Euskaltzainburuak oharrak egin nahi den galdetu du, baina egin ez denez gero, batzorde ahaldundua 2018ko urtarrilaren 26ko bilkuran eginiko proposamenak onartu dira.

6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren oharrak (II. 4-7 orrialdeak). Aurkezpena

A. Sagarna batzorde ahaldunduko buruak eta M. Urkia batzorde horretako idazkariak urtarrileko bileran euskaltzainek eskatutako *Elizako aita* formaren proposamena aurkeztu dute bileran: “**Elizako aita** *Ipar*. Elizako gurasoa. Nahi zuen zuzenbidea Bibliaren eta Elizako aiten iturrietara itzularazi, lotura eginez zuzenbidearen eta teologiaren artean.”, eta *Elizako gurason* “Ik. Elizako aita” lotura gehitu da.

Aurrekoaren ondoren, Iruñeko Udalak euskaltzainei eginen dien ekitaldira hurreratzeko, bilkura eten egin da. Harreraren ondoren, 12:00etan Osoko bilkurari berrekin zaio.

Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzain oso izendatu berria batzar aretora sartu da eta abegikortasunez hartu dute Osoko bilkuran dauden euskaltzainek.

A. Sagarnak eta M. Urkiak hiztegia sarean eguneratzean izan den arazo baten berri eman dute. Izan ere, batzorde ahaldunduak oraindik aztertu gabea zuen *garapen iraunkor* / *garapen jasangarri* auzia eta, etiketak jartzean izandako hutsegite baten ondorioz, *garapen* sarreran “garapen jasangarria” adibide proposatua sareratu da, orain arte forma arautua “garapen iraunkorra” bazen ere. Arazoaren berri batzorde ahaldunduari eman zitzaion berehala eta kideek onartua aurkeztu da Osoko bilkuran. Osoko bilkuran, ordea, ez da bere horretan onartu eta batzordeak berraztertu dezan eskatu da, lehendik arautua dagoen forma ere mantentzea komeni dela argudiatuz. Ondorioz, gaia martxoko Osoko bilkurarako laga da.

Ondoren, “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduaren oharrak (II. 4-7 orrialdeak)” zerrenda berria aurkeztu da.

Aurkeztutakoari oharrak egiteko epea ireki da. Epe hori martxoaren 19an amaitu dadin erabaki dute euskaltzainek.

7. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduaren oharrak (III). Aurkezpena

“Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduaren oharrak (III)” zerrenda berria aurkeztu da. Aurkeztutakoari oharrak egiteko martxoaren 19a arteko aldia ireki da.

8. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Egitarauaren nondik norakoa aurkeztu

Gaiari buruzko azalpenak emateko, Ibon Usarralde egitasmoen bateratzailea batzar-aretoara sartu da. I. Usarralde eta E. Osak aurkeztu dute gaia.

Gogorarazi da 2016ko barne jardunaldietan aurkeztutako txostena (oinarrizko abiaburuak jasotzen dituen). Txosten hori ardatz hartuta, prestatu du Mendeurrenerako egitaraua berariaz izendaturiko Mendeurreneko batzorde suntsikorrak.

Mendeurrena 2018ko udazkenean hasiko da eta 2019ko udazkenean amaituko. Mendeurrenak ekitaldi instituzionalak, jardunaldi akademikoak, berariazko argitalpenak, ekitaldi artistiko-kulturalak zein bestelako jarduerak hartuko ditu. Mendeurrenarekin lotura duten ekintzak Euskal Herri osoan egiten dira.

Behin betiko egitaraua ixteko dago, besteak beste, batzordeetatik, lantaldeetatik, egitasmotatik eta zerbitzuetatik ekarpenak egiteko aukera oraindik badagoelako, eta, jardunaldiren baten kasuan, tokia eta data alda litezkeelako. Ondorioz, aurreratu ahala honen berri emanen zaie euskaltzainei.

9. Esku artekoak

9.1. Rosa Ramos Alfaro euskaltzain urgazlea Sustapen batzordeko aholkulari. Sustapen batzordeak Rosa Ramos Alfaro euskaltzain urgazlea Sustapen batzordeko aholkulari izatea proposatu du. Eskaera horri kasu eginez, Zuzendaritzak batzordeko aholkulari izendatu zuen 2018ko urtarrilaren 11n eginiko bilkuran.

Osoko bilkurak izendapena berretsi du.

9.2. Euskaltzaindiaren ordezkaria Euskararen Nafar Kontseiluan. Nafarroako Gobernuak eginiko eskabideari erantzunez, Zuzendaritzak, 2018ko otsailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Sagrario Aleman diruzaina Euskararen Nafar Kontseiluko kide izatea eta, berak ezin duenean, haren ordezkoa, Andres Iñigo izatea, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariarekin hitz egin ondoren.

A. Iñigo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak Euskararen Nafar Kontseiluren osaera arautzen duen Dekretuan egon diren aldaketen berri eman du.

Osoko bilkurak izendapenak berrestea erabaki du.

9.3. Espainiako epaileen aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi izanaren hamabosgarren urteurrena dela eta, Zuzendaritzaren adierazpenaren berri. A. Urrutia euskaltzainburuak Zuzendaritzak 2018ko otsailaren 21eko bilkuran eginiko adierazpena irakurri du: “Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak gaur (2018-02-21) egin duen bileran, *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera zela eta, duela hamabost urte Euskaltzaindiak emandako adierazpena gogoratu du. Hartara, berresten du bere engaiamendua, orduan bezala, euskara eta euskal kultura herri honen ondareak direla eta langintza horretan euskarazko komunikabideek duten zeregina, eta berriro deitoratzen ditu bai *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera hura eta baita ere, horren ondorioz, komunikabide horren arduradunek, besteak beste Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoak, pairatu behar izan dituzten ondorio latzak”.

9.4. Frantziako Tourraren erantzuna; Bilboko Udalaren erantzuna. Euskaltzaindiak igorriko gutunei erantzunez, Frantziako Tourraren zuzendariak eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak gutun banarekin erantzun dute. Lehenbizi-koak aditzera ematen duenez, euskarak presentzia izanen du Tourrean, Ipar Euskal Herrian izanen duen etapan (hasieran eta helmugan jardungo duten aurkezleek euskaraz ere jardungo dute, ohar eta bestelakoetan euskararen presentzia ziurtatuko da). Bestalde, Bilboko alkateak engaiamendua hartu du euskarak toki duin eta aproposa izan dezan errugbiko txapelketan eta Euskaltzaindiarekin lankidetzan jarduteko borondatea agertu du.

9.5. Ohorezko euskaltzainak izendatzeaz. A. Urrutiak aditzera eman duenez, Zuzendaritzak ohorezko euskaltzainak izendatzeko prozesua abian jarri nahiko luke. Hartara, azpimarratu du Zuzendaritzak izendapenak ahalik eta adostasun handienarekin egiteko borondatea duela. Ondorioz, deialdia egin aurretik, euskaltzainek, martxoaren 19ra bitartean, 5-10 izen proposa ditzaten eskatu du. Ondoren, zerrenda hori aztertu eta zerrenda adosteko ahaleginak egingen ditu Zuzendaritzak.

Aurrekoak ez du baztertzeko euskaltzainek bestelako proposamenak egiteko aukera. Horrela, Arautegiaren 39. artikulua dioena gogorarazi du: «Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamena behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok eginga, eta Batzarrean onartzea». Edozein gisaz, zerrenda adostu bat Osoko bilkurara eramatea komenigarria izan daitekeela aipatu du.

9.6. Hurrengo Osoko bilkura. Hurrengo Osoko bilkura Gasteizen, martxoaren 23an egitea erabaki zen Osoko bilkuran, joan den udazkenean. Aurreikuspena Gasteizko udaletxean egitea da. Nolanahi ere, Udalaren osoko bilkura ere egun horretarako dago iragarria, urte honen hasieran finkatu duen egutegiaren arabera. E. Osak galdetu du ea Euskaltzaindiaren Osoko bilkura martxoaren 22an, ostegunean, egin daitekeen. Hala egingez gero, Osoko bilkura Gasteizko udaletxean egin daiteke, bai eta *Toponimia de Vitoria / Gasteizko Toponimia VI* liburuaren aurkezpena ere.

Iritzi-trukearen ondoren, euskaltzainek erabaki dute martxoko Osoko bilkura 22an, ostegunean, Gasteizko udaletxean egitea.

10. Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Gasteizen, 2018ko martxoaren 22an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jean-Baptiste “Battittu” Coyosek ahala Xarles

Videgaini; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Bilkurari hasiera eman aurretik, A. Urrutia euskaltzainburuak, Barne-erregelaketako 64.6 artikulua dioena betez, aurreko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatutako R. González de Viñasprei eta M. Urkiari X. Kintana idazkariak gutun bana igorri diela aditzera eman du. Euskaltzain oso izendatu berriek erantzun dute esanez izendapena onartzen dutela, bai eta Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituztela.

Argibide horiek eman ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, martxoko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Aztergaiei ekin aurretik, E. Osa idazkariordeak aditzera eman du 11:00etan bilkura etengo dela eta

Gasteizko Udalarekin 2018ko hitzarmena izenpetu eta *Toponimia de Vitoria VI / Gasteizko Toponimia VI. Arratzua II* argitalpena aurkeztuko dela. Ondoren, Osoko bilkurak segida izanen du.

1. Osoko bilkurako (2018-02-23) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak oharren bat egin nahi den gal-detuta, 4. orrialdean, 12:00etan Osoko bilkurari jarraipena eman zaiola dioen paragrafoaren ondoren, pasarte bat gehitu da: “Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso izendatu berria batzar aretora sartu da eta abegikortasunez hartu dute Osoko bilkuran dauden euskaltzainek”.

Horrela, bestelako oharrik egin ez denez gero, 2018ko otsailaren 23ko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: *Ameriketako buruzagien izenak*. Autozuzenketa. Jasotako ohar- rak aztertu eta erabakiak hartu

Gaia jorratzeko A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretora sartu da. Gogorarazi duenez, otsailaren 23ko Osoko bilkuran, autozuzenketa bat aurkeztu zuen Exonomastika batzordeak, eta martxoaren 19ra arteko epea ezarri zen oharrek egiteko. Ez da oharrik iritsi autozuzenketari dagokionez.

Horrenbestez, Exonomastika batzordeak aurkeztutako autozuzenketa (aurreko Osoko bileraren agirian jaso) onartu da, bai eta haren arabera moldatutako izen-zerrenda ere. Araugaia erabat onartzeko, ordea, *Sitting Bull* buruzagiaren izena euskaraz nola arautu erabakitzea falta da. Bi aukera egon dira: *Bisonte Eseri* ala *Zezen Eseri*.

Horren harira, P. Zabaleta euskaltzainak azpimarratu du nazioarteko irudia bilakatu den izenaz ari garela eta beraz nazioarteko ohituretan bidea egin duena hobetsi behar dela, hots, *Zezen Eseri*. Are gehiago kontuan izanda, bisonte mota bat baino gehiago badela (amerikarra, europarra eta abar...).

Ez da bestelako oharrik egin. Ondorioz, datuak ikusita, ontzat hartu da P. Zabaletaren oharra, eta *Zezen Eseri* forma hobestea erabaki da. Beraz, araua argitaratzen denean, *Zezen Eseri* jasoko da.

3. Exonomastika: *Munduko herriak eta etniak* araugaia aurkeztu.

A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak aurkeztu du araugaia. Azaldu du, munduko pertsona-izenak lantzean, maiz egin dutela topo herri-izenekin, dinastia-izenekin eta gizataldeen izenekin, eta horregatik landu dituztela, berez onomastikaren arloko izenak ez badira ere.

2015ean Antzinateko herrien izenak landu ziren, eta 174. arauan argitaratu ziren. Oraingoan, gaur egungo (edo oso aspaldi ez dela desagertutako) herri eta etnien izenak aztertu dira, mundu osokoak.

Kontinenteka landu dira, eta, grafia-proposamenak egin baino lehen, irizpide orokorrak landu ditu batzordeak. Kontuan hartu da, horretarako, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n jada agertzen diren izenak (*azteka*, *aḫpatxe*, *maia*...), haietan ikusten baita zein den grafia egokitzeko irizpidea, bai eta hizkuntza-izenak ere (*berberera*, *igboera*, *zuluera*...), haietatik eratortzen baitira herri-izen asko. Bestetik, kontuan hartu da zenbait leku-izenetan herri-izena dela osagaia (*Jakutia*, *Balutxistan*... > *jakutak*, *balutxak*). Halaber, aztertu da nola jokutzen duten inguruko hizkuntzek eta nola jokatu duten euskarazko entziklopediek eta euskarazko komunikabideek zenbait herri-izenen grafia egokitzeko edo ez egokitzeko.

Irizpideak azaldu ondoren, Afrikako, Asiako, Ameriketako eta Ozeaniako herri-izen adierazgarrienen zerrendak prestatu dira. Kasu guztietarako proposamena landu du batzordeak, eta kasu batean Osoko bilkurari eskatzen dio aukerak murriztea, lau grafia baitaude aukeran eta ez bailitzateke komeniko hainbeste aldaera izatea: *tatariar*, *tartariar*, *tatar*, *tartaro*.

Azalpenean aurkeztutakoari oharrak egiteko epea ireki da. Epe hori apirilaren 20an amai dadin erabaki dute euskaltzainek.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (II. 47 orrialdeak). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia euskaltzain oso eta batzorde ahaldunduko idazkariak ohar bat jaso dela aditzera eman du, *ahala* sarrerari egindakoa. Aldaketa-proposamena prestatu dute egitasmoko kideek, arazoa Iparraldean aditzoina eta Hegoaldean era burutua erabiltzen dela argudiatuz, eta bi adierei “(Aditzoinaren edo era burutuaren eskui-nean)” jarritz. Iritzi-trukea egon da. Ondorioz, eskatu da egitasmoko kideek gaia

berriro aztertzeo eta apirileko bilerarako proposamen berria egiteko.

Gainerako ohar guztiak ontzat eman dira, beraz, II. atala erabakita geratu da.

**5. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharra (III). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.**

P. Zabaletak eginiko ohar bakarra iritsi da, *idor* sarrerari lotua, *txuko* eta *txukatu* formak behar direla zioena. Baina *xuko* eta *xukatu* dagoeneko jasoak ditu *Euskaltzain-
diaren Hiztegiak*. Beraz, oharra erretiratu du ohargileak.

Beste oharrik jaso ez denez gero, ontzat eman da III. atala.

Aztergai honetakoa ez bazen ere, otsaileko Osoko bilkuran *garapen iraunkor* / *jasangarri* auziaren berri eman zuten A. Sagarnak eta M. Urkiak, hiztegia sarean eguneratzean izan zen hutsegite baten ondorioz biak jaso zirela-eta. Orduan aurkeztutako proposamena ez zen onartu eta berraztertzeo eskatu zitzaizen proposa-
men-egileei. Hala egin dute eta, adierak eta definizioak berrituz, *garapen iraunkor* eta *garapen jasangarri*, biak jasotzea proposatu eta onartu da, maila berean, forma biak kontzeptu bera adierazteko erabiltzen baitira corpusetan. Honela geratu da: “Hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe, uneko belaunaldien beharrak asetzen dituen garapen ekonomiko eta soziala”. Eta haue-
kin batera berriro dira *jasangarri*, *jasangarritasun*, *jasangaitz*, *iraunkor*, *iraunkortasun* eta *iraungaitz* sarrerak ere, guztietan hasieran proposatua zegoen “Lurraren oreka ekologikoa...”ren lekuan “Oreka ekologikoa...” utziz. Ontzat eman da proposamena.

**6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharra (IV). Aurkeztu.**

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia batzorde ahaldunduko idazkariak, ohar-
gileen zerrendak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen
dituena.

Azalpenean aurkeztutakoari oharra egiteko epea ireki da. Epe hori apirilaren
20an amai dadin erabaki dute euskaltzainek.

7. Esku artekoak

7.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena, jasotako ekarpenak eta berriak. E. Osa idazkariordeak aurreko Osoko bilkuratik hona jasotako oharrak laburbildu ditu. Alde batetik, Ahoskera batzordeak Gasteizen jardunaldi akademiko bat egiteko proposamena egin du. Jardunaldi hau Gasteizko Artiumen egingo da, 2019ko otsailean. Beste aldetik, Gramatika batzordea prest dago, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, beste jardunaldi akademiko bat antolatzeko. Jardunaldi hau 2019ko uztaillean egingo da. Ondorioz, bere sasoian aurkeztutako Mendeurreneko jardunaldi akademikoen zerrendari bi horiek gehitu zaizkio.

Horrela, Mendeurrenaren batzorde suntsikorrak behin betiko egitaraua onartu du joan den astean, ostegunean, eginiko bilkuran. Era berean, batzorde horrek proposaturik, Zuzendaritzak aditzera eman du logoa eta leloak onartu dituela. Amaitzeko, martxoaren 23an, Bilbon, Mendeurrenaren aurkezpen orokorra egingo dela adierazi da.

7.2. Arabako Foru Aldundiak Arabako domina emango die Euskaltzaindieri eta Eusko Ikaskuntzari. Ramiro González Vicente Arabako diputatu nagusiak Akademiara jakinarazpena bidali du Foru Gobernuak otsailaren 13an hartutako erabakia jakinaraziz. Domina jasotzeko ekitaldia apirilaren 28an egingo da Gasteizen eta ekitaldi honetara hurreratzeko gonbita igorriko zaie euskaltzainei.

7.3. Ohorezko euskaltzainak. A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, proposamenak egiteko irekitako aldian, A. Toledo, P. Uribarren, M. Urkia, X. Videgain, M. Azkarate, M. L. Oñederra, A. Sagarna, A. Urrutia eta A. Arejita euskaltzainek eginiko proposamenak jaso dira. Zuzendaritza saiatuko da proposamenak aztertu eta hurrengo Osoko bilkuran zerrenda bat aurkezten.

Zerrenda osatzeko orduan zenbait irizpide aipatu ditu: adina, sexua, lurraldetasuna, eginiko ekarpenak eta abar.

7.4. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria. Zuzendaritzak, martxoaren 8an eginiko bilkuran, A. Sagarna euskaltzain osoa aurkeztea erabaki du.

7.5. Euskadi Literatura Sariak, itzulpena. Zuzendaritzak, martxoaren 8an eginiko bilkuran, sari hori ematen duen epaimahaian Euskaltzaindiaren ordezkari Gotzon Lobera Revilla izan dadin erabaki du.

Osoko bilkurak izendapena berretsi du.

7.6. Euskaltzaindiak eta Nafarroako Parlamentuak hitzarmen berria izenpetu dute martxoaren 14an. Hitzarmena hiru urtetarako berritu da. Edukiei dagokiez, hiru zeregin jaso dira. Alde batetik, Antzinako testu juridikoen erakusketa. Beste aldetik, hiztegi juridiko lexikografikoa ontzea. Eta, azkenik, Mendeurreneko ekitaldietan parte hartzea. Egitasmoak, besteak beste, euskal lurraldeetako gainerrako ganbera legegileekin batera garatuko dira.

7.7. Nafarroako Kultura Kontseiluak, joan den astean eginiko bilkuran, Sagarrio Aleman euskaltzain osoa proposatu du Vianako Printzea Saria jasotzeko. A. Urrutiak proposamenaren berri eman du.

Osoko bilkurak erabaki du S. Alemanen proposamenaren aldeko iritzia Nafarroako Gobernuari igortzea.

7.8. Liburu banaketa. *Toponimia de Vitoria VI / Gasteizko Toponimia VI* argitalpena banatu da.

7.9. Hurrengo bilkurak. Ondoko hauek gogorarazi dira:

Apirilaren 18an, 17:30ean, Baionan, Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko urteko bilkura egingo da.

Apirilaren 27an, Bilbon, egoitzan, Osoko bilkura egingo da.

Apirilaren 28an, Gasteizen, Arabako domina jasotzeko ekitaldia egingo da, Arabako Foru Aldundian.

8. Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Osoko bilkura

Bilbon, 2018ko apirilaren 27an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani (iritsi bitartean); Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren

Azkarateri (iritsi bitartean); Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (iritsi bitartean); Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Xarles Videgainek ahala Aurelia Arkotxari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko apirilaren 27an, ostiralean, egin da Bilbon, egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririko en zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, apirileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Aztergaiei ekin aurretik, E. Osa idazkariordeak aditzera eman du 11:00etan bilkura etengo dela eta, Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, EiTBren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzat hitzarmena izenpetuko dela. Ondoren, Osoko bilkurak segida izanen du.

Argibide horiek eman ondoren, Osoko bilkurak aztergaiak jorratzeari ekin dio.

1. Osoko bilkurako (2018-03-22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak oharren bat egin nahi den galdetuta, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko martxoaren hogeita biko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: *Munduko herriak eta etniak*. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

Aurreko Osoko bilkurak irekiriko aldian ez da inolako oharrik jaso. Edozein gisaz, E. Osa idazkariordeak gogorarazi du, irizpideak azaldu ondoren, kasu guztietarako proposamena landu zuela batzordeak, eta kasu batean aukerak murriztea eskatu ziola Osoko bilkurari, kontuan izanik lau grafia daudela aukeran eta ez litzatekeela komeniko hainbeste aldaera (*tatariar, tartariar, tartar, tartaro*) izatea.

Osoko bilkurak aukeran emanikoen artean azterketa egitea eta proposamen bakarra egitea eskatu dio Exonomastika batzordeari. Ondorioz, gai hau hurrengoan erabakitzeko laga da.

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (II. 4-7 orrialdeak). Ahala hitzari buruzko proposamen berria aurkeztu

M. Urkia batzorde ahaldunduko idazkariak adierazi du **ahala** hitzari buruzko ohar berri bat bidali duela P. Zabaletak. Martxoko bileran eztabaidatutakoaren bidetik, batzorde ahaldunduak proposamen berria ekarri du, lehenengo adierari “Batez ere Heg. (Batez ere era burutuaren eskuinean)” ezarriz, eta bigarrenari “(Batez ere aditzoinaren eskuinean)” jarritz. Azken honi dagokionez, eskuinean beharrean ondoren jartzeko proposatu da Osoko bilkuran.

Zuzenketa horiek egin ondoren, proposamena onartu da.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (IV). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Aurreko bileran aurkeztu zen forma onartuen zerrendari inork ez dio oharrik egin. Beraz, behin betiko zerrenda aurkeztu da bileran.

M. Azkaratek *azpiidatzi* formari egindako oharra eta M. L. Oñederrak igorritako ohar berria direla eta, biek ala biek *azpiidatzi* ez, *azpidatzi* behar zuela proposatzen zuten. Datuak aztertu dituzte egitasmoko kideek eta erabilera erabat *azpidatziren* aldekoa dela ikusi dute, baina lehendik arautuak ditu Euskaltzaindiak *azpiindize* eta *antiinperialista*. Ondorioz, sistematikotasunari eusteko proposatu zen -ii-rekin idaztea.

Bileran eztabaidatu ondoren, kontu honek azterketa sakonagoa beharko lukeela ikusi bada ere, oraingoz *azpidatzi* -i- bakarrarekin jasotzea (eta bi sarreteran ematea) onartu da.

5. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharra (V). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak, ohargile bakarrak egindako hiru ohar eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Oharrak egiteko epea zabaldu da, maiatzaren 18ra arte.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. 186. arauak jasotako lexiko arrunteko hainbat hitz berri

Euskaltzaindiak argitara eman berri duen 186. arauak lexiko arruntari dagozkion hainbat forma onartu ditu, eta batzorde ahaldunduko idazkariak azaldu du horietako batzuk ez daudela *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, ez dela batzordeen arteko koordinaziorik izan. Osoko bilkurari baimena eskatu dio lantaldeak horiek aztertzeke, eta, hala badagokio, hurrengo bilera batera horiek sartzeko proposamen landua ekartzeko. Ontzat eman da proposamena.

7. Ohorezko euskaltzainak izendatzeko proposamena aurkeztu eta erabaki

A. Urrutia euskaltzainburuak gogorarazi duenez, zerrenda osatu ahal izateko, Zuzendaritzak, lehenik, Osoko bilkuran, euskaltzain osoei eskatu zien beren proposamenak aurkezteko eta Zuzendaritzari helarazteko. Aurreko Osoko bilkuraren agirian jaso zenez, euskaltzain oso batzuek hala egin zuten. Zuzendaritzak eginiko proposamenak aztertu ditu, jarraiko irizpideak erabiliz: urgazle ez direnak (nolabaiteko aitormena jaso ahal izateko) eta adinean aurreratutakoak izatea; lurralde ba-

tekoak baino gehiagokoak; generoa eta salbuespen izan daitezkeenak. Aldi berean, Zuzendaritzak oraingoan aukeratu ez direnen izenak gerorako utzi ditu, zabaldu gabe, behinola horietako batzuk urgazle izendatu daitezkeelako (adinean gazteagoak direlako) edota, Mendeurrenaren ostean, ohorezko euskaltzain izendapenak jaso ditzaketelako. Horrela, jasotako proposamenetatik zerrenda osatu, adostu eta, Euskaltzaindiaren Arautegiaren 39. artikulua dioena betez, aurkeztu du Zuzendaritzak:

1	ADURIZ ZABALA	Jose Antonio	GIPUZKOA
2	ANDRINUA LARIZ	Martzel	BIZKAIA
3	ARTEAGA ANSA	Txaro	GIPUZKOA
4	AZURMENDI AIERBE	Maria Jose	GIPUZKOA
5	AZURZA ARISTEGIETA	Miren Jone	GIPUZKOA
6	DUHAU	Henri	IPAR EUSKAL HERRIA
7	GASTESI ZUBELDIA	Izaskun	NAFARROA
8	MUNIATEGI ELORZA	Abel	BIZKAIA
9	PAGOLA	Manex	IPAR EUSKAL HERRIA
10	REMENTERIA IBARLUZEA	Jose Maria	BIZKAIA
11	SALABERRI URZELAI	Sabin	ARABA
12	SOLABARRIETA ETXABURU	Txomin	BIZKAIA
13	URKIZA TXAKARTEGI	Julen	BIZKAIA
14	URRETABIZKAIA BEJARANO	Arantxa	GIPUZKOA
15	ZABALA BENGOTXEA	Pello	GIPUZKOA
16	ZAMORA	Austin	IPAR EUSKAL HERRIA

Zerrenda aurkeztu ondoren, bere osotasunean onar dadin proposatu du A. Urrutia euskaltzainburuak. Halaxe egitea erabaki da Osoko bilkuran. Ondorioz, Zuzendaritzak aurkezturiko hautagaiak ohorezko euskaltzain izendatu dira. Izendapenen berri aurrerago emanen du Euskaltzaindiak.

M. L. Oñederrak galdetu du zerrenda oso-osorik eskura daitekeen. Erantzun zaio Zuzendaritzak, lehen esan denez, aurkeztu duen proposamenean ez duela inor baztertu eta irizpideekin ondoen ezkontzen direnen izenak jaso dituela beste barik, gerorako utziz urgazle izendapenak jaso ditzaketen izenak –adinean gazteagoak direlako– edo, Mendeurrenaren ostean, ohorezko euskaltzain izendapenak jaso ditzaketenak.

8. Esku artekoak

8.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, EiTBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Gaur izenpetu den hitzarmenak jasotzen dituen eremuak lau dira:

Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, aurreikusitako jardueren sustapena eta publizitatea egitea.

Mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak egingo dituen ekitaldi instituzional, jardunaldi akademiko, ekintza artistiko-kultural eta bestelakoen jarraipena egitea EiTBren komunikabideetan.

Euskaltzaindiaren Mendeurrenari buruzko dokumental luzea eta laburra egitea.

Mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak ekoitzi nahi duen telebista programa atalduna egitea.

8.2. Aingeru Epaltza euskaltzain urgazleak Sustapen batzordea uzteko eskaria eta Rosa Ramos euskaltzain urgazlea batzordekide izendatzeko proposamena. A. Epaltzak idatzi bat igorri du esanez zailtasunak dituela Sustapen batzordeko bilkuretarako joateko eta denbora luzean ez duela joaterik izan. Horrela, batzordea uzteko, beste bati tokia uzteko eta beste batzorderen edo egitasmoren batean (beste, literaturaren arlokoan) kolaboratzeko prestasuna agertu du.

A. Epaltzaren idazkia jaso ondoren, Sustapen batzordeak apirilaren 20an eginko bilkuran, Zuzendaritzari proposatu zion batzordean R. Ramos euskaltzain urgazlea, orain arte batzordeko aholkulari izan dena, batzordekide izatea. Hartara, Zuzendaritzak bi erabaki hartu ditu: batetik, A. Epaltzaren erabakia aintzat hartzea, eta, bestetik, R. Ramos Sustapen batzordekide izendatzea.

Osoko bilkurak Zuzendaritzaren erabakiak berretsi ditu.

8.3. Bizkaiko eta Gipuzkoako euskaltzain urgazleak izendatzeko prozesua abian jartzea. A. Urrutiak aditzera eman duenez, Zuzendaritzak maiatzeko Osoko bilkuran deialdia egitea aurreikusi du. Nolanahi ere, aldez aurretik, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskaltzain osoei bost laguneko zerrenda osatzeko eta Zuzendaritzari igortzeko eskatu die Zuzendaritzak, ondoren zerrenda bateratua osatzen joateko, ahal den neurrian.

Proposamen idatziak maiatzaren 18a bitartean egin daitezen erabaki da.

8.4. Liburu banaketa. Segidan datozen liburuak banatu dira:

- Jean-Baptiste "Battittu" Coyosek prestatutako *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa* (Jagon, 17). Sarako azokan aurkeztua eta Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzari esker argitaratua.
- Dorota Krajewska, Eneko Zuluaga, Ekaitz Santazilia, Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria eta Urtzi Reguerok paraturiko Estebe Materraren *Do(c)trina Chistiana* (1617 & 1623). (Euskararen Lekukoak bilduma, 28). Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzari esker argitaratua.
- Egoitz Urrutikoetxearen *La politique linguistique de la Révolution Française en la langue basque* (Iker bilduma, 34). Euskaltzaindiaren, Paue eta Aturri aldeko Unibertsitatearen eta Elkar argitaletxearen arteko lankidetzari esker argitaratua.

8.5. Hurrengo bilkurak. Ondoko hauek aditzera eman dira:

Maiatzaren 25ean, ostiralean, Baionan, Osoko bilkura. Xehetasunak aurrerago emango dira.

Ekainaren 1ean, "Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak" jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldia Euskaltzaindiaren eta Ezkerraberri Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da. S. Aleman Sustapen batzordearen buruak behin-behineko egitaraua aurkeztu eta banatu du.

9. Azken ordukoak:

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergaririk ez dela, 12:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Baionan, 2018ko maiatzaren 25ean.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
González de Viñaspre, Roberto,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Andres Iñigok ahala Patxi Zabaletari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko maiatzaren 25ean, ostiralean, egin da Baionan, Herriko Etxean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2018-04-27) bileragiria onartzea, hala erabakiko balitz

Bi ohar jaso dira. Alde batetik, M. Urkiak aditzera eman duenez, bilkurara hurreratutakoan artean X. Videgainen izena ageri da; ahala eman zuen, baina bilkuran ez zen izan. Bestalde “M. L. Oñederrak galdetu du ohorezko euskaltzain izateko izenak nork proposatu dituen, bai eta zerrenda oso-osorik eskura daitekeen ere” pasarte honenga-

tik ordezkatzeari proposatu du: “M. L. Oñederrak galdetu du zerrenda oso-osorik eskura daitekeen”. Eginiko bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz beste oharren bat egin nahi den galdetuta, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko apirilaren 27ko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: *Munduko herriak eta etniak* proposamen berria aurkeztu

X. Kintana Exonomastika batzordearen idazkariak aurkezpena egin du. Gogorazi duenez, martxoko Osoko bilkuran, munduko herri eta etnien araua aurkeztu zen. Horren ondoren irekitako aldian, ez zen oharrik iritsi. Apirileko Osoko bilkuran eskatu zen forma bat baino gehiago proposatzen den kasuetan Exonomastika batzordeak berriro aztertzea eta ikustea ea aukera-aniztasuna murriztu daitekeen.

Horrenbestez, forma bat baino gehiago proposatu diren kasu guztiak banan-banan berraztertu dira, eta proposamen berria prestatu da Osoko bilkuran aurkezteko. Batzordearen irizpidea honakoa izan da: proposatutako formak izen baten antzeko aldaerak direnean, horietako bakarra hobetsi da, eta antzekoak ez direnean, mantendu dira. Horren arabera, ondokoa da Exonomastika batzordeak aurkeztu duen zerrenda berria:

HASIERAKO PROPOSAMENA	PROPOSAMEN BERRIA
basotho edo sotho	basotho
berbere / amazig	berbere / amazig
mandinga edo malinke	mandinga
san / boskimano	san / boskimano
abazin edo abaza	abaza
abkhaziar edo abkhaz	abkhaz (eta oin-ohar bat egitea jakinarazteko <i>abkhaziar</i> Abkhaziako herritarra dela)
changpa edo champa	changpa
erromani / ijito / buhame	erromani / ijito / buhame (eta ohar bat egitea adierazteko <i>erromani</i> testuinguru formaletarako hitza dela)
paxto edo paxtun	paxtun
sami / laponiar	sami / laponiar

tatariar edo tartariar edo tatar edo tartaro	tartaro (eta hizkuntza aldatzea proposatzea: <i>tatarera</i> formaren ordeez, <i>tartarera</i>)
ojibwa / chippewa	ojibwa / chippewa
lenape / delaware	lenape / delaware
alakalufe / kawesqar	alakalufe / kawesqar
jagan edo jamana	jagan
muiska / txibtxa	muiska / txibtxa

Beraz, 16ko zerrendatik 8tan, forma bakarraren alde egin da; gainerako 8etan, berriez, lehengo forma-aniztasunari eutsi zaio. Argibideak eman ondoren, aurkeztu-takoari oharrak egiteko epea ekainaren 18ra arte izatea erabaki da.

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-ren oharrak (IV). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

Aurreko bileran aurkeztu zen zerrendari (*errepresaliatu*, *esperpento* eta *errodaje* sar-rerak) ez dio inork oharrik egin. Beraz, behin betiko zerrenda onartu da Osoko bilkuran.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-ren oharrak (V). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu

Apirileko Osoko bilkuran aurkeztu ezin izan ziren A. Iñigoren oharrak oraingo bilerara ekarri dira eta horiekin batera egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Oharrak egiteko epea ekainaren 18ra arte zabaldu da.

5. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. 186. arauak jasotako lexiko arrunteko hainbat hitz berri

5.1. Euskaltzaindiak argitara eman berri duen 186. arauak lexiko arruntari dagoz-kion hainbat forma jaso dituela-eta, horiek aztertzeo baimena eskatu zion lantal-deak Osoko bilkurari. Forma horiei dagozkien bederatzi azalpen aurkeztu dituzte bileran (*berrezarle*, *faltsutzaile*, *fratrizida*, *inpotente*, *justiziati*, *lurgabe*, *muturroker* edo *mutur-oker*, *zeremoniatsu* eta *galtzari*, azken hau 187. arauan jaso), libretzat edo mu-gatuegizat har litezkeenak kanpo utziz (*bihotz-handi*, *boloniar*, *kapeladun* eta *lehoi-bi-hotz*).

Batzorde ahaldunduk ohar bakarra egin du, *justiziati* sarrerak “Zah.” marka behar duela adieraziz. Eztabaida izan da bileran, definizioak ere juridikoagoa izan beharko ote lukeen. Oharrak idatziz egiteko epea ireki da, ekainaren 18ra arte.

5.2. Bide beretik, 187. arauko “Munduko zenbait gizarte- eta erlijio-talderen jarraitzaileen izenak” sailean, jaso diren 99 formatatik 39 *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ageri dira, 4 dagoeneko arautze-bidean dira, eta beste 56 ez dira hiztegiaren aztergaietan ageri. Horietako batzuk aztertzeak direla aipatu dute hiztegiaren arduradunek: *xiita* lehendik arautuarekin batera *xii* jaso du Exonomastikak orain, *hegotar* badago, baina *ipartar* ez; *boltxebike* badago, *mentxebike* ez... eta badira erabilera-maiztasun handi samarra izan dezaketenak eta, beharbada, hiztegia jaso beharko liratekeenak (*alaui*, *dervixe* eta *kataro* modukoak).

Forma horiek aztertzeo eskaera egin dute bileran eta, 186. arauarekin egin den bezala, proposamena egingo dutela agindu. Eskaera hori ontzat eman du Osoko bilkurak.

6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (VI)

Zerrenda berria aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak, hiru ohargilek egingako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak. Oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 18ra arte.

7. Esku artekoak

7.1. Ortzadar LGTB Elkartearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Hitzarmena izenpetu da Bilbon, 2018ko maiatzaren 15ean. Hauek dira jasotzen dituen eremuak:

Euskaltzaindiak Ortzadar LGTB Elkarteari aholkularitza eskainiko dio. Alde batetik, gradu bukaeran eta Master ikasketetan elkarteak sustatzen dituen deialdietan euskararen erabilera normalizatua eta jaso ziurtatzeko. Beste aldetik, elkarteak bideratzen duen aldizkari zientifikoan euskarari toki egokia eta duina emateko.

Ortzadar LGTB Elkartearen ekimenen inguruabarrean sortzen den euskararen testu-masa eskuratuko dio Ortzadar LGTB Elkarteak Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak, besteak beste, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* elikatzen duen *Lexikoaren Behatokia*

egitasmoan baliatuko du euskarazko testu-masa hori. Era berean, Ortzadar LGBT Elkarateak Euskaltzaindiari aholkularitza eskainiko dio herritarren berdintasuna, bizikidetzatza, sexu-askatasuna eta giza eskubideak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* zein bestelako hizkuntza baliabideetan are hobeto islatuta ager daitezen.

**7.2. Euskaltzaindia Comité International Permanent des Linguistes elkar-
teko bazkide.** A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, Euskaltzaindia
elkar-te horretako kidea da 2018ko maiatzaren 19tik aurrera.

7.3. Espainiako 2018ko Sari Nazionalak. Epaimahaiko kideak. Ondokoak dira
epaimahaiko kide izateko Zuzendaritzak proposatu dituenak:

- Premio Nacional de las Letras Españolas: Andres Iñigo eta Ana Toledo.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía): K. Josu Bijueska eta Miren Lourdes Otaegi.
- Premio Nacional de Literatura (Poesía joven “Miguel Hernández”): Katixa Agirre eta Jose Manuel Lopez Gaseni.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Infantil y Juvenil): Mariasun Landa eta Jabier Kaltzakorta.
- Premio Nacional de Literatura (Narrativa): Miren Azkarate eta Sebastian Gartzia.
- Premio Nacional de Literatura (Ensayo): Adolfo Arejita eta Miren Billelabeitia.
- Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática): Jaime Valverde eta Aizpea Goenaga.
- Premio Nacional a la Mejor Traducción: Amaia Jauregizar eta Gotzon Lobera.
- Premio Nacional a la Obra de un Traductor: Amaia Jauregizar eta Gotzon Lobera.
- Premio Nacional de Periodismo Cultural: Iñaki Mendizabal eta Dorleta Alberdi.

Izendapenak berretsi dira Osoko bilkuran, eta gogorarazi da Espainiako Kultura Ministerioak proposatutakoetatik bakar-ra izendatzen duela modalitate bakoitzean.

7.4. Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren aurkezpenak. Euskaltzaindiaren Men-
deurrena aurkezteko bilkurak egin dira lurralde guztietan. Euskaltzain ohorezkoak
eta urgazleak deitu dira bilera horietara.

7.5. Euskaltzain urgazleak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herria). Proposamenak jasotzeko eta zerrenda bateratua adosten saiatzeko, Zuzendaritzak bilkurak egingo ditu Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan bizi diren euskaltzain osoekin. Horren ondoren, ekaineko Osoko bilkurara zerrenda bat ekartzen saiatuko da Zuzendaritza, ostean bozkatua izan dadin.

7.6. Hurrengo bilkurak

Ekainaren 1ean, “Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak” jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Jardunaldia Euskaltzaindiaren eta Ezkerraberri Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da. 75 bat lagunek eman dute izena, beraz, izena emateko aukera itxi da. Saioa streaming bidez emango da.

Ekaineko Osoko bilkura 29an egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

8. Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:00 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Donostian, 2018ko ekainaren 29an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres Urrutiari; Aurelia Arkotxak ahala Miriam Urkiari; Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani (11:45etik aurrera); Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Xarles Videgainek ahala Jean-Baptiste “Battittu” Coyosi; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko ekainaren 29an, ostiralean, egin da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2018-05-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetuta, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko maiatzaren 25eko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: Munduko herriak eta etniak. Jasotako oharrak aurkeztu eta erabaki

Gaia jorratzeko A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretora sartu da. Aditzera eman duenez, aurreko Osoko bilkuran Exonomastika batzordeak aurkeztutako proposamen berriari M. Urkiak hiru ohar egin dizkio, eta Exonomastika batzordeak, oharrak aztertu ondoren, erantzuna aurkeztu du.

M. Urkiak aditzera eman duenez, lehen proposamenean “*basotho* edo *sotho*” zeterren, eta bigarrenean *basotho* bakarrik proposatu da. Kontuan izan beharko litzateke *sothoera* hizkuntza 38. arauak jaso zuela, Lesothoko eta Hegoafrikako hizkuntza ofizialetako bat baita. Eta, hortik abiatuta, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere jasoa du *sothoera* hizkuntza. Forma bietako baten alde egin behar bada, eta bata zein bestea hautatzeko pisuzko arrazoi handirik ez badago (nahiz *basotho*-k nazioartekoagoa dirudien), hizkuntzarekin parekotasuna duenaren alde azaldu da, hau da, *sotho* hartuko luke, batez ere lehendik arautua dagoena aldatzen ez hasteko.

Exonomastika batzordeak gogorarazi duenez, “*basotho* edo *sotho*” proposatu zuen batzordeak hasieran, bi arrazoiengatik. Alde batetik, herri hori izendatzeko nazioartean gehien erabiltzen den forma (frantsesa, ingelesa, katalana, italiara, alemana) *basotho* da. Horretaz gainera, endoetnonimoa ere *basotho* da, hau da, izen hori erabiltzen dute etnia horretako pertsonak beren hizkuntzan beren burua izendatzeko. Horiek horrela, batzordeak uste du *basotho* hitzari ezin zaiola ez ikusiarena egin, forma hori baita jatorrizkoa eta, era berean, nazioartean hedatua. Beste aldetik, *sothoera* glotonimoa arautu zuen Euskaltzaindiak 1999an. *Sotho* hitza existitzen da, baina gehienbat bantu hizkuntzen adar baten izenaren parte gisa erabiltzen da: sotho-tswana taldea. Basotho herriaren hizkuntza, etnoglotonimoa, *sesotho* da, eta hizkuntza horri *hegoaldeko sotho* ere esaten zaio. *Sothoera* hizkuntza-izena, beraz, ez da oso zehatza, baina, arautua zegoenez, *sotho* forma ere ontzat ematea proposatu zuen batzordeak. Ondoren, Osoko bilkurak eskatu zuenean bitasunak murriztea, bakarra uztekotan *basotho* uztea hobetsi zuen batzordeak. M. Urkiaren oharra ikusita, bere hasierako proposamenari eusten dio batzordeak: *basotho* edo *sotho*.

Bigarren oharrari dagokionez, hasierako proposamenean “*abkhaziar* edo *abkhaz*” zeterren, eta bigarrenean *abkhaz* bakarrik proposatu da, oin-oharra gehitu bada ere, abkhaziarrek Abkhaziako herritarrak direla argituz. M. Urkiak galdetu du 38. arauak jaso zuen *abkhaziera* (ofiziala Abkhaziako Errepublika Autonomoan) eta,

ondorioz, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere jaso zuena, bietarako egokia den. A. Mujikak azaldu duenez, *abkhaziera* forma onartu zen Abkhaziako hizkuntza ofiziala izendatzeko. Hizkuntza-izenen oinarrian toponimoa (*Italia* -> *italiera*) edo etnonimoa (*uzbeko* -> *uzbekera*) egoten da. Toponimoa forma *-ia* amaierakoa denean, ohi-koa da hortik eratortzea glotonimoa (adibidez, *Turkia* toponimotik *turkiera* arautu da), baina, Asiako herrialdeen kasuan, *-stan* atzikia duten toponimoetan etnonimoa hobetsi ohi da glotonimoa eratortzeko (adibidez, *Uzbekistan* eta *Tajikistan* estatuetatik ez dira *uzbekistanera* eta *tajikistanera* glotonimoak hautatu, zilegia izanda ere, herriaren izenetik eratorritako *uzbekera* eta *tajikera* baizik). Kasu honetan, *abkhaziera* hizkuntza-izena arautua dago, eta bietarako egokia da; alegia, ez dira bi hizkuntza.

Hirugarren oharra dela eta, Afganistango hizkuntza ofizialeko bat *paxtuera* da, 38. arauaren arabera (eta hala jaso du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere). Ondorioz, M. Urkiaren iritziz, *paxtun* bakarrik proposatu bada, hizkuntzaren izena aldatu eta *paxtunera* egin beharko litzateke; alegia, araua aldatzea ekarriko luke honek.

A. Mujikak azaldu duenez, *paxtuera* forma 1999an arautu zuen Euskaltzaindiak, Exonomastika batzordea sortu aurretik, 53. arauan. Horregatik proposatu zuen batzordeak hasieran bi forma ematea. Berez, ez du oso erabide egokia *paxtuera* hitzak (*-era* atzikia zeri erantsi da arazoa, "paxtu/paxto", berez, hizkuntzaren izena baita, etnoglotonimoa). Arautua zegoenez, *paxtu* ere ematea proposatu zuen batzordeak, araututako *paxtuerari* oinarri bat eman nahian. Bestela, etniaren izena *-n* letraz amaitzen da. Horretan ez dago zalantzarik. Latindar alfabetoan eta baita arabiar alfabetoan ere gure <ene> letrari dagokion grafema dago amaieran. Horretan bat datoz inguruko erdarak, baita *paxtuera* bera eta *hindustanera* ere. Horregatik, bakarra uztekotan, *paxtun* laga beharko litzateke. Etnia-izen garrantzitsua da, eta maiz agertzen da komunikabideetan. Hizkuntza-izena, berriz, askoz maiztasun txikiagokoa da. Horregatik guztiagatik, hau proposatzen du batzordeak: etnia-izena *paxtun* arautzea, 1999an arautako *paxtuera* hizkuntza-izena kentzea eta *paxtunera* izenaz ordezte.

Eztabaidatu ondoren, hau erabaki du Osoko bilkurak. Alde batetik, *basotho* edo *sotho* uztea. *Abkhaz* lagatzea. Azkenik, *paxtun* dela eta, 1999an araututako *paxtuera* hizkuntza-izenaren ordeztzea, *paxtunera* jartzea, eta forma hori agertzen den arauetan (38. arauan eta 53. arauan) ordezte eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hurrengo bertsioan ere kontuan hartzea.

**3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (V). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu**

Aurreko Osoko bilkuran aurkeztu zen zerrendari inork ez dio oharririk egin. Beraz, maiatzean eskatu zen *gazta* sarrerako *Erronkariko gazta* adibidea ezabatuta, ontzat eman da zerrenda osoa.

**4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak. 186. eta 187. arauak jasotako lexiko arrunteko hainbat hitz berri**

Maiatzeko Osoko bilkuran proposatutako zerrendari inork ez dio oharririk egin. Beraz, *justiziati* sarrerako definizioa moldatu eta *Zah.* markarekin jasoko da, maiatzeko bileran eskatu zen moduan. Bestalde, 187. arauko zerrendari A. Iñigok hiru ohar egin dizkio (*frantsestu*, *sun*, *xii*), eta 186koari P. Zabaletak bakarra (*inpo-
tente*).

A. Iñigoren lehenengo iruzkina onartu du batzordeak. *Sun* eta *xii* sarreretako definizioetan, aldiz, ‘Mahomet’ erabili dela aipatu du, eta ea ez al den ‘Mahoma’ erabiltzen ahal, ustez, ezagunagoa eta erabiliagoa dena. 181. arauak biak onartu zituenenez, ‘Mahomet’ jasotzearen alde azaldu dira euskaltzainak, eta *xiismo* sarrerako ‘Mahoma’ ere moldatzea proposatu dute. Dena den, oharrak egiteko epea zabaldu da, uztailaren 15a arte.

**5. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (VI). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.** Maiatzeko bile-
ran proposatutako zerrendari inork ez dio oharririk egin. Beraz, maiatzean aipatu
zen *immunitate* sarreraren definizioa moldatuta, ontzat eman da zerrenda.

**6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (VII). Aurkeztu**

Zerrenda berria aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak, hiru ohargilek egingako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Bileran bertan hiru eskaera egin dituzte euskaltzainek: *izen* sarrerako 2. adieraren definizioa berrikusteko; *kolektibitate* sarreraren adiera berria aztertzeko (Frantziako ordenamendu juridikoan figura juridiko propioa dena); eta *kolosal* sa-

rrerako 2. adiera predikatu gisa bakarrik erabiltzen den begiratzeko.

Aurkezpena egin ondoren, uztailaren 15a arte oharrak egiteko epea zabaldu da.

7. Euskaltzain urgazleak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herria). Deialdia

Proposamena ez da aurkeztu. Izan ere, zerrenda adosteko asmoz, Zuzendaritzak Bizkaian, Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian bizi diren eta akademiaren bizitza instituzionalean parte hartzen duten euskaltzain osoekin egin nahi zituen bilkurak ez dira egin, agenda kontuak tarteko. Bilkura horiek datozen egunetan egingo dira. Denbora aurrera doanez, Zuzendaritzak jada bost urtetik gora batzordeetan eta lantaldeetan sarritasunez parte hartzen duten pertsonak euskaltzain urgazle izendatzea proposatu du, Mendeurrena igaro osterako utziz, bestelako urgazleen izendapena, kanpotarrak barne. Horrela, 11 bat pertsona izendatu daitezke, eta talde honi Ahoskera batzordeko beste kide baten izena gehituko litzaioke (guztira, 12 euskaltzain urgazle berri).

Memento, gaia bere horretan laga da. Datozen egunetan bilkurak eginen dira eta uztailaren 20an zerrenda adostu bat ekartzen saiatuko da Zuzendaritza.

8. Esku artekoak

8.1. Manex Pagola ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. M. Pagola idazle, kantari, politikari eta ohorezko euskaltzaina hil zen ekainaren 7an. Osoko bilkuraren izenean familiari doluminak aditzera ematea erabaki da.

8.2. Euskaltzaindiaren eta EAEko herri-aginteen arteko Programa-kontratuaren indarraldia urte batez luzatu da. 2019ko udaberrian Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak izango direnez gero, Euskaltzaindiak eta EAEko herri-aginteei 2018. urtera arte indarrean dagoen Programa-kontratuaren iraunaldia urte batez luzatzea erabaki dute, 2018ko ekainaren 7an eginiko Jarraipen batzordean.

8.3. Comité Internacional Permanent des Linguistes elkartean Euskaltzaindiaren ordezkariak. Zuzendaritzak A. Urrutia euskaltzainburua eta ordezkoa, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos, izendatu ditu, 2018ko ekainaren 7an eginiko bilkuran.

8.4. Hurrengo bilkurak

Uztailaren 12an, “Euskararen erabileraren gakoak” izenburutzat jardunaldia egingo da Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Jardunaldia Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da. Egitaraua banatu eta azaldu da.

Uztailaren 20an Bilbon, Osoko bilkura egingo da Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Jauregian.

Uztailaren 20an Bilbon, Euskaltzaindiaren Mendeurrenean aurreikusitako Oho-rezko Patronatua eratzeke ekitaldia egingo da Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzan.

9. Azken ordukoak

Azken ordukorik ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Iruñean, 2018ko uztailaren 20an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose “B. Atxaga”,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Patxi Salaberri eta Joan Mari Torrealдай.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko uztailaren 20an, ostiralean, egin da Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundian, 1918ko urtarrilaren 25ean Euskararen Akademia abiatzeko asmoz Bizkaiko Diputazioko diputatuek harturiko erabakiaren gomutaz.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, 11:15ean, Real Academia Española, Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans erakundee-tako ordezkariak Osoko bilkuran parte hartuko dute. Era berean, aurreikusita dago Osoko bilkura 12:00etan amaitzea, eta, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren Ohorezko Patronatua eratze-ko jendaurreko ekitaldia 12:30ean egitea.

1. Osoko bilkurako (2018-06-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetuta, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko ekainaren 29ko bilera-agiria onartu da.

**2. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak. 186. eta 187. arauak jasotako lexiko arrunteko hainbat hitz berri.
Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu**

Aurreko Osoko bilkuran aurkeztu zen zerrendari inork ez dio oharrik egin. Beraz, ekainean aurkezturiko zerrendan *xiismo* sarrerako ‘Mahoma’ hitzaren ordeztu ‘Mahomet’ jarrita, ontzat eman da zerrenda.

**3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (VII). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu**

Ekaineko bileran proposatutako zerrendari, eta bileran berean ahoz egindako oharrei, inork ez dio idatzizko oharrik egin. Baina bilera hartan kontu batzuk argitu gabe geratu zirenez, horiei buruzko proposamena egin dute hiztegiko ordezkariak eta onartu egin dira.

Hauek dira argitzeko zeuden kontuak: 1) *izen* sarrerako 2. adieraren definizioa berrikusteko eskatu zen, eta “izena”-ren ordeztu “hitza” jaso da. 2) *kolektibitate* sarreran adiera berria aztertzeke eskatu zen, Frantziako ordenamendu juridikoan figura juridiko propioa dena, eta hala proposatu da: **kolektibitate** 2 iz. Elkargoa (Frantziako estatuko administrazio barrutia). *Frantziako Gobernuak ez dio Lurralde Kolektibitateari bide eman nahi izan, ezezko biribila etorri zen Paristik*. Eta *elkargo* sarreran ere bigarren adiera jaso da: **elkargo** 2 iz. Frantziako estatuan, nortasun juridikoa duen administrazio barrutia (udala, departamendua, etab.). Ik. **kolektibitate** 2. *Frantziako estatuko lurralde elkargoen erreforma*. 3) *jabetu* sarrerako oharrean “izen sintagma bat hartzen du”-ren ordeztu “izen sintagma hartzen du” aski ote zen galdetua zuen euskaltzain batek. Biak ondo daudela ikusi da, baina lehengo definizioa

hiztegi osoan ordezkatzek ekarriko lituzkeen aldaketak kontuan izanda, inork kontrakorik azaldu ez duenez gero, bere horretan uztea proposatu dute hiztegiko ordezkariak, eta hala onartu da. 4) *kiliki* sarreraren definizioa berrikusteko eskatu zen, eta “Iruñeko jaietan ateratzen den pertsonaia, buruan hiru puntako kapela daramana” bakarrik utzi da, egun hedatzen ari den ‘buruhandia’ adiera berria isilduta. Hala onartu da, baina *zaldiko* sarrerako definizioan “Lantzeko” dioen lekuan “Lanzko” jasotzeko eskatu da. Halaxe dago 155. arauan ere. Beraz, aldaketa egitea onartu da. 5) Azkenik, euskaltzain batek *kolosal* sarreraren bigarren adieran adibideak jasotzekoak ote diren galdetu zuela-eta, ia adibide guztiak J. Sarrionandiaren *Kolosala izango da* liburukoak zirela ikusi da eta adibiderik ez gehitzea onartu da.

Kontu horiek argitu ondoren, zerrenda onartutzat eman da.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduen oharrak (VIII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak, A. Iñigo eta M. Azkarate ohargileek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak. Bileran berean *erreparatu* sarrerako 3. adierako adibideak berrikusteko eskatu du B. Atxaga euskaltzainak.

Aurkezpena egin ondoren, irailaren 17a arte oharrak egiteko epea zabaldu da.

5. Euskaltzain urgazleak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herria) izendatzea, hala erabakiko balitz

Euskaltzaindiko Zuzendaritzako kide diren Andres Urrutia, Xarles Videgain, Xabier Kintana, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita eta Jean-Baptiste *Battittu* Coyos euskaltzain osoek, Arautegiaren 3. eta 38. artikuluetan eta Barne-erregelen 6.ean jasorikoa kontuan hartuz, Euskaltzaindiko batzorde eta lantaldeetan gutxienez bost urtez lanean ari diren pertsonak proposatu dituzte euskaltzain urgazle izateko. Proposamena egin aurretik, Euskararen Akademiaren erakunde bizitzan parte hartzen duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko euskaltzain osoekin hitz egin dute.

Horrela, 12 pertsona jasotzen dituen zerrenda ekarri dute, Mendeurrena igaro osterako utziz bestelako urgazleen izendapena, kanpotarrak barne:

ABIZENA	IZENA	LURRALDEA	BATZORDEAK / LANTALDEAK
Aizpurua	Jon	Bizkaia	• Sustapen
Alberdi	Andres	Gipuzkoa	• Zientzia eta Teknika Hiztegia • Corpus • Euskara Batuaren Esku-liburua
Arrarats	Irene	Gipuzkoa	• Hiztegi Batua • Exonomastika • Euskara Batuaren Esku-liburua • Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak
Arregi	Ainhoa	Bizkaia	• Hiztegi Batua • Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak
Bidart	Asier	Bizkaia	• Onomastika
Elordui	Agurtzane	Bizkaia	• Ahoskera
Lobera	Gotzon	Bizkaia	• Sustapen
Mounole	Céline	Ipar Euskal Herria	• Gramatika • Onomastika
Perez	Xabier “Euzkitze”	Gipuzkoa	• Herri Literatura

Pikabea	Josu	Gipuzkoa	• Hiztegi Batua • Zientzia eta Teknika Hiztegia
Socarros	Allande	Ipar Euskal Herria	• Euskalkiak • Euskara Batuaren Eskuliburua
Zaldua	Luis Mari	Gipuzkoa	• Onomastika

Ondorioz, bozketa banan-banan egin nahi den galdetuta, inork ez du halakorik eskatu. Beraz, proposatu diren pertsona guztiak euskaltzain urgazle izendatu dira, aho batez.

6. Esku artekoak

6.1. Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, sinaturiko hitzarmenen berri Laboral Kutxarekin eta Kutxa Fundazioarekin hitzarmen bana egin da. Lehenengoaren bidez, Laboral Kutxak, Mendeurrenako zenbait jarduera sustatzeko eta laguntzeko, 90.000 euro jarriko ditu, 2018. eta 2019. urteetan. Kutxak beste 20.000 euro jarriko ditu, gehiena 2019. urtean.

Bestalde, J. B. *Battittu* Coyosek eginiko kudeaketari esker, Crédit Agricole finantza-erakundeak Baionan egingo den erakusketarako beste laguntza bat emanen du (2.500 eta 5.000 euro artekoa).

6.2. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2018. Zuzendaritzak A. Iñigo euskaltzaina aurkeztea erabaki du 2018ko uztailaren 17an eginiko bilkuran.

Osoko bilkuran proposamena berretsi da.

6.3. Hurrengo bilkurak

Irailaren 1ean, larunbatean, Mariano Mendigatzaren heriotzaren mendeurrena dela eta, ekitaldia egingo da Bidankozen. Ekitaldia Euskaltzaindiaren eta Bidankozeko Udalararen lankidetzat tarteko egingo da, eta, besteak beste, Mariano Mendigatza gogorarazi eta plaka bat bistaratuko da. A. Iñigo Nafarroako ordezkariak xehetasunak eman ditu.

Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren barruan, Baionan, herriko etxean, eginen da lehenengo jardunaldia “Euskara batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018” izenburupean. J. B. Battittu Coyosek, hots, kolokioaren arduradun akademikoak, xehetasunak eman ditu.

Irailaren 21ean, ostiralean, Altsasun, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eta Nafarroako zenbait euskaltzainek Nafarroa Oinez antolatzen ari den Iñigo Aritza Ikastola bisitatuko dute. Ondoren, Olatzagutiko udaletxean Euskaltzaindiaren Zuzendaritza batuko da.

Irailaren 28ko Osoko bilkura Gasteizen egin dadin proposatzen du Zuzendaritzak. Izan ere, urteko egutegian Bilbon egitea erabaki zen, baina urriaren bukaeran Bilbon ekitaldi bat egitea aurreikusi denez gero, Zuzendaritzak proposatzen du irailko Osoko bilkura Gasteizen eta urrikoa, berriz, Bilbon egin daitezen. Eginiko proposamena onartzea erabaki du Osoko bilkurak.

7. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Osoko bilkurako aztergaiak jorratu ondoren, batzar aretora sartu dira Unai Rementeria Bizkaiko ahalzun nagusia, Darío Villanueva eta José Antonio Pascual, hurrenez hurren, Real Academia Españolako zuzendaria eta *Nuevo Diccionario histórico del español* (NDHE) egitasmoaren zuzendari akademikoa, Víctor Fernández eta Henrike Monteagudo, hurrenez hurren, Real Academia Galegako presidentea eta idazkaria, eta Ros Joandomènec Institut d'Estudis Catalans erakundeko presidentea.

Unai Rementeria ahalzun nagusiak hitza hartu eta hurreraturiko guztiak agurtu ditu. Gogorarazi du bilkura egiten ari den tokian batzartu zirela behinola Bizkaiko diputatuak eta bertan Euskararen Akademia egitasmoa abian jartzeko erabakia hartu zutela, 1918ko urtarrilean. Halaber, aditzera eman du orduan Bizkaiko Diputazioa izena zuela, izen hori egokitu baitzitzaion Foruak ezabatu ondoren. Auto-gobernu erakundeak berreskuratu eta gero, ordea, Bizkaiko Foru Aldundia izena berreskuratu zuen. Akademien lana azpimarratu eta Bizkaiko Foru Aldundiak euskararekiko duen konpromisoa berretsi du.

Segidan, Akademietako buruek hitza hartu dute. Euskaltzaindiaren gonbita eskertu dute, eta, etorkizunean Akademia historikoen artean egitasmoak partekatzeko eta lankidetzaren areagotzeko borondatea agertu dute. Bukatzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak Akademietako ordezkarien etorrera eskertu eta Akademietan pilaturiko ezagutza transferitzeko, egitasmo erkideak hezurmamitzeko eta partekatzen dituzten kezka eta proiektuetan batera azaltzeko engaiamendua erakutsi du.

Horren ondoren, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren Ohorezko Patronatua eratzeke jendaurreko ekitaldia egiteko, 12:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Gasteizen, 2018ko irailaren 28an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga”, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Xarles

Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (iritsi bitartean); Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko irailaren 28an, ostiralean, egin da Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean.

Bilkura hasi aurretik, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak euskaltzainak agurtu ditu, Eusko Legebiltzarraren Batzar Aretoan. Era berean, bezperan, Osoko bilkurak onarturiko Adierazpenaren kopia bat eman dio Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentek Andres Urrutia euskaltzainburuari. Horren ondoren, hurreratutakoekin talde-argazkia egin da.

Horren segidan, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu, Tomas Moro aretoan. Quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2018-07-20) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

M. Urkia euskaltzainak 3. orrialdean, bigarren lerroan oharra egin du. Izan ere, “3. adierako adibideak berrikusteko eskatu du B. Atxaga euskaltzainak” behar du, M. Azkaratek ez baitzuen bilkuran egoterik izan. Oharra onartu da.

A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du; ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko uztailaren 20ko bilera-agiria onartu da

2. Euskaltzaindiaren Mendeurrena: “Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018). Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra”. Aurkezpena

A. Urrutia euskaltzainburuak urriaren 4, 5 eta 6an Arantzazun egingo den Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarraren egitaraua aurkeztu du. E. Osa idazkariordeak azpiegitura kontuak aitatu ditu (hotela, moderatzaileen zereginak eta abar).

Zuzendaritzak, 2018ko irailaren 21ean eginiko bilkuran, *Euskara Batua*ren *Adierazpena*. *Arantzazutik mundu zabalera* adierazpenaren testua prestatzeko orientabideak eta ardatzak onartu zituen, eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainari eman zion mandatu berezia, Arantzazuko Biltzarrean irakurri beharreko idatzia presta zezan. Hori da, hain zuzen ere, Osoko bilkuran irakurri dena. Osoko bilkurara hurreraturiko euskaltzainek testua berretsi dute, bai eta J. M. Torrealdaik eginiko ahalegina eskertu ere. Azken orduko zuzenketaren bat egon daitekeenez –hizkuntzaren edo kontzepturen baten ikuspegitik–, Osoko bilkurak J. M. Torrealdairi azken testua ontzeko eskumena ematea erabaki du. Azken testu hori izango da Arantzazuko Biltzarraren azken egunean J. M. Torrealdaik irakurriko duena, elkarte eta erakundeen esku utziz testuari atxikimendua adieraztea.

3. Euskaltzaindiaren webgune berriaren aurkezpena

Andoni Sagarnak hitza hartu eta Euskaltzaindiaren IKT batzordearen gidaritzapean garatu den webgune berria aurkeztu du. Arantzazun aurkeztu ondoren erabilgarri egongo da webgune hori.

Helburuak izan dira prestatzea webgune argiagoa, erabilgarriagoa eta edukietara heltzeko irisgarriagoa. Horrela, webgunearen itxura, kontsultak egiteko moduak ~bilatzaile bizkorragoa eta indartsuagoa baitu~ eta edukien arteko loturak azaldu ditu. Bukatzeko, baliatzeko gonbita egin die euskaltzainei.

Miren Lourdes Oñederrak intranetaz galdetu du. A. Sagarnak erantzun dio, has-teko, intraneta zertarako nahi den (hots, parametroak) definitzea eta helburuak euskaltzainen artean partekatzea komeni dela, horren arabera, aztertuz zer egin daitekeen. M. L. Oñederrak, besteak beste, bilera-deiak, bileretarako materialak, onarturiko bilera-agiriak eta abar hor ikusten dituela esan du.

4. Exonomastika: *Artelanen izenak. Antzinateko artelanak. Irizpideak eta zerrenda.* Aurkeztu

Gaia aurkezteko, Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bile-ra-aretora sartu da.

Azaldu duenez, munduko artelanak euskaraz adierazteko orduan, zalantzak izaten dira batzuetan: zer euskaratu behar den eta zer ez, nola euskaratu, letra larriak noiz erabili, letra etzanak erabili edo ez eta abar. Euskaltzaindiak ez du orain arte arlo hori berariaz landu, baina euskarazko testuetan, hedabideetan, eskola-liburu eta entziklopedietan eta literaturan badira hainbat irizpide komun, hots, badago nolabaiteko batasuna. Bide hori finkatzen eta irizpideak orokortzen laguntzeko eta zalantza batzuk argitzen saiatzeko hasi da lantzen artelanen eremua Exonomastika batzordea (arte ederrak bakarrik landuko dira; bazter utziko dira, oraingoz, literatura, antzerkia eta zinema). Historiaurreko eta Antzinateko artelanak aztertutik, eta araugaiak bi arlo ditu: irizpideak batetik, eta artelan nagusien zerrenda bestetik.

Eraikinak eta eskulturak zerrenda banatan aurkeztu dira. Badira zenbait hitz *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n ageri ez direnak baina Exonomastika batzordearen ustez beharrezkoak direnak, eta ontzat ematea eskatu diote Osoko bilkurari.

Aurkezpena egin ondoren, oharrak urriaren 19ra arte egiteko epea zabaldu da.

**5. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (VIII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki**

Uztaileko bileran proposatutako zerrendari, bai eta bileran bertan ahoz egindako oharrei ere, inork ez die idatzizko oharririk egin. Uztaileko bileran, ahoz, *erreparatu* sarrerako bi adibide berrikusteko eskatu zuen B. Atxaga euskaltzainak, baina ez du bere proposamena idatziz ez eskatu, ez zehaztu, eta hiztegiko kideek ez dute aldatzeko arrazoirik ikusi. Beraz, bere horretan uztea proposatu dute, eta hala onartu du Osoko bilkurak.

**6. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-
ren oharrak (IX). Aurkeztu**

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia batzorde ahaldundua-
ren idazkariak, Ho-
rretarako, Miren Azkarate euskaltzainak egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen txostena baliatu du. Bileran bertan *tipifikatu* sarrerari oharrak egin dizkiote, zuzentzeko eta sinpletzeko eskatuz. A. Urrutia eta P. Zabaleta euskaltzainek bidaliko dute proposamen zehatza.

Aurkezpena egin ondoren, oharrak urriaren 19ra arte egiteko epea zabaldu da.

7. Esku artekoak.

7.1. Junes Casenave ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Zuberoako euskaltzaina 94 urterekin zendu da, eta obra oparoa utzi du idatzita, batez ere pastoralgintzan. Euskaltzain urgazle izendatu zen 1979ko abenduaren 20an, eta ohorezko, 2000. urteko urriaren 27an. Euskaltzaindian, Hiztegigintza batzordean (1987-1989) aritu zen, batez ere.

7.2. Euskaltzaindiaren eta Euskal Elkargoaren arteko hitzarmena. Hitzarmena izenpetu da Baionan, irailaren 13an. Honela, Euskaltzaindiaren egitasmoe-
k interes publiko nabarmena dutela aitortu du Euskal Hirigune Elkargoak, eta, euskara-
ri dagokionez, erakunde aholku-emaila ofizial izendatu du Euskararen Akademia.
Elkargoa konpromiso zabaletara engaiatu da: besteak beste, Euskaltzaindiak ema-
niko arauak, gomendioak eta irizpenak jarraitzera, hizkuntzaren kalitatean sortzen
diren hutsuneak Euskaltzaindiari jakinaraztera eta elkar-aditze egitura baten sortzera.

Euskararen sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da bi erakundeen arteko elkarlana, bereziki, Akademia Ipar Euskal Herrian ezagutarazteko xedez eta Mendeurrenaren kariatara antolatuko diren ekimenetan. Era berean, Onomastika alorrean dauden zalantzak argitzera eta horren gaineko datu-base bat sortzera konprometitu dira. Ekintza horiek burutzeko 20.000 euroko dirulaguntza jasoko du Euskaltzaindiak. Akordio honek 2019ko abendura arte iraungo du.

7.3. Euskaltzaindiaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena

Hitzarmena izenpetu da Iruñean, 2018ko irailaren 24an. Besteak beste, kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu Akademiak Iruñean, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da elkarlanean. Ekintza horiek burutzeko 12.000 euroko dirulaguntza jasoko du Euskaltzaindiak.

7.4. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Hitzarmenak. Alde batetik, Euskaltzaindiaren eta *Gara* egunkariaren arteko lankidetza hitzarmena izenpetu da Donostian, 2018ko irailaren 17an. Beste aldetik, Euskaltzaindiaren eta *El Correo* egunkariaren arteko lankidetza hitzarmena izenpetu da Bilbon, 2018ko irailaren 26an.

Hitzarmenetan ondoko eremuak aurreikusi dira: Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren baitan Akademiak antolaturiko ekitaldi instituzionalen, nazioarteko jardunaldi akademikoen, ekintza artistiko-kulturalen eta bestelako ekintzen zabalkundea eta publizitatea egingo dute *Garak* eta *El Correok*. Bere aldetik, Akademiak bi egunkari horien ikurrak ipiniko ditu lurralde bakoitzean egiten diren nazioarteko jardunaldi akademikoak, ekintza artistiko-kulturalak eta bestelako ekintzak iragartzeko egingo diren euskarrietan, aldeek adosten duten eran.

7.5. Hurrengo bilkurak. Osoko bilkuran aditzera eman direnak

Urriaren 19an, Gabriel Arestiren gomutaz, jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan. Egitaraua Gabriel Aresti Kultur Elkartearekin batera ondu da eta Bilboko Udalaren laguntza izan du. Arantzazuko bilkuraren ondoren, egitaraua zabalduko da.

Urriko Osoko bilkura 26an, ostiralean, egingo da Bilbon, udaletxean.

8. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Bilbon, 2018ko urriaren 26an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
González de Viñaspre, Roberto,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Jose Irazu "B. Atxaga", Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sa-

grario Alemani; Andres Iñigok ahala Patxi Zabaletari; Jose Irazu "B. Atxaga"k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko urriaren 26an, ostiralean, egin da Bilbon, udaletxean.

Bilkura hasi aurretik, udalaren batzar-aretoan ekitaldia egin da eta hartan Bilboko Udaleko Osoko bilkurak Euskaltzaindiari Bilboko Urrezko Domina eman dio. Euskaltzainburuak jaso du domina hori. Domina emateko ekitaldian, Juan Mari Aburto Bilboko alkatearen mintzaldia eta euskaltzainburuaren esker oneko hitzak entzun dira. Horren ondoren, hurreratutako euskaltzainen eta udal ordezkarien arteko talde-argazkia egin da.

Segidan, euskaltzainak batzorde-gelan elkartu dira. A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2018-10-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du; ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko urriaren 26ko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: *Artelanen izenak. Antzinateko artelanak. Irizpideak eta zerrenda.* Jasotako oharrak aztertu eta erabaki

Gaia aurkezteko, Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretoa sartu da. Aditzera eman duenez, urrian aurkezturiko zerrendari oharrak Miriam Urkia, Patxi Zabaleta eta Xarles Videgain euskaltzainek aurkeztu dizkiote. Horrela, Exonomastika batzordeak aztertu eta erantzunak prestatu, Osoko bilkuran azaldu eta banatu dira.

M. Urkiak aurkeztutako oharren eta Exonomastika batzordeak emandako azalpenen ondorioz, erabaki hauek hartu dira:

«Venus Brassempouykoa edo Dama Kaputxaduna» zen batzordearen proposamena, baina, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren kaputxa* sarrerari eman zaion adiera berria kontuan harturik, «Dama Txanoduna» jartzea erabaki da.

«Guennol Lehoi Emea», hau da, *lehoi*me loturik eman gabe.

«Mikerinosen estatua kolosala» eta «Narmerren paleta» onartu dira; *kolosal* eta *paleta* (adiera horretan) *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* agertuko dira hurrengo eguneratzean.

«Narmerren paleta» onartu da. *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hurrengo eguneratzean *paleta* sarreran arkeologiako adiera sartzea proposatu da.

«Galaziar Hil Hurrena» onartu da. *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hurrengo eguneratzean *hil hurren* sarreran adiera berri bat sartzea proposatu da izen edo izenondo kategoriaz. Beraz, hala idatziko da, bereiz.

P. Zabaletak iradoki du Euskal Herrian labar-margoen garrantzia azpimarratu eta zerrenda berezi bat egiteko modukoa dela. Exonomastika batzordeak gogorarazi duenez, bere langaia Euskal Herritik kanpoko izen bereziak dira. Ondorioz, ez

dagokio berari Euskal Herriko labar-artearen lexikoa aztertzea. Gainera, Euskal Herritik kanpoko labar-pinturan ez dago berariazko izen berezirik duen artelan aipagarriarik. Horrela, azalpenak entzun ondoren, P. Zabaletak egin duen proposamena erretiratzea erabaki du.

X. Videgainek aurkeztutako oharren eta Exonomastika batzordeak emandako azalpenen ondorioz, erabaki hauek hartu dira:

«Selkhemenkheten hilobi-konplexua» formaren ordeaz, «Selkhemenkheten hilobi-gunea» edo «Selkhemenkheten hilobi gunea».

«Piramide Makurra».

Ez da erabaki «Rosetta harria» edo «Rosettako harria» behar duen. Datuak bildu eta aztertu ondoren, azaroaren 23ko Osoko bilkuran erabakitzeke laga da.

«Venus Brassempouykoa edo Dama Kaputxaduna» zen batzordearen proposamena, eta, Miriam Urkiaren proposamenaren ondorioz, «Dama Txanoduna» jartzea erabaki da. Horretaz gainera, ordena aldatuko da. Honela jarriko da: «Dama Txanoduna edo Venus Brassempouykoa».

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren oharra (IX). Jasotako oharra aztertu eta erabaki

Irailko bileran proposatutako zerrendari P. Zabaletak eta A. Urrutiak egin dizkiote oharra. *Tipifikatu* formari buruzko oharra bileran eztabaidatu dira berriro eta, azkenean, hala jasotzea onartu da: “**tipifikatu**, tipifika, tipifikatzen *du* ad. *Ba-tez ere Zuz*. Egitate edo gertaera bat aldeztu aurretik ezarritako tipo edo mota jakin baten arabera sailkatu. *Kode zibilak tipifikaturiko kontratuak*. *Zigor Kodeak tipifikaturiko delituak*”. Honekin, beraz, zerrenda onartua geratu da.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua- ren oharra (IX). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia batzorde ahaldunduko idazkariak, P. Zabaletak egindako oharra eta egitasmoa kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Bileran bertan *elementu* sarrerari oharra egin dizkiote, “*hau da elementua!*” adiera begiratzeko eta lehenengo adieran adibideren bat gehitzeko es-

katuz. Horrez gain, *zuzentarau* eta *erregelamendu* sarrerak berriz aztertzeke eta *araudi* sarreran adiera berria aztertzeke ere eskatu dute euskaltzainek bileran bertan.

Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 19a arte.

5. Euskaltzaindiaren 2019ko egutegia aurkeztu

E. Osa idazkariak Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak paraturiko Euskaltzaindiaren 2019ko egutegi proposamena aurkeztu du. Txostenean osoko eta ageriko bilkurak egiteko datak eta tokiak ageri dira. Era berean, Euskaltzaindiaren Mendeurrenarekin lotutako jardunaldi akademikoetako gaiak, datak eta tokiak ere jaso dira, bai eta batzorde eta lantaldeek jardunaldi zein bestelako ekimenetarako kontuan har ditzaketen efemerideak ere.

Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, azaroaren 19a arte.

6. Esku artekoak

6.1. Junes Casenave ohorezko euskaltzainaren heriotza. Senideei doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

6.2. Euskaltzaindiaren Mendeurrena. Hitzarmenak egin dira Elkar Fundazioarekin, *Herria* astekariarekin, *Berria* egunkariarekin, Ser Euskadi irratiarekin, *El Diario Vasco* egunkariarekin, Tokikom sarearekin, Bizkaia Irratiarekin, Euskalerrria Irratiarekin eta Euskal Irratiak elkartearekin.

Hitzarmenetan ondoko eremuak aurreikusi dira: Euskaltzaindiaren mendeurrenaren barnean, Akademiak antolaturiko ekitaldi instituzionalen, nazioarteko jardunaldi akademikoen, ekintza artistiko-kulturalen eta bestelako ekintzen zabalkundea eta publizitatea egingo dute. Euskaltzaindiak hedabide hauen ikurrak ipiniko ditu lurralde bakoitzean egiten diren nazioarteko jardunaldi akademikoak, ekintza artistiko-kulturalak eta bestelako ekintzak iragartzeko euskarrietan, aldeek adosten duten eran. Elkar Fundazioak, berriz, argitalpen batzuen ekoizpenean lagunduko du.

6.3. Hurrengo bilkurak

- Azaroaren 7an, 19:30ean, Bilboko BBK Salan, Euskal Kazetarien Elkarateak saria emango dio Euskaltzaindiari, euskararen alde egin duen ehun urteko lana eskertzeke.

- Azaroaren 16an, 18:00etan, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondare Saria 2018 emango dio Euskaltzaindiari. Idazkariordeak hurreratzeko gonbita igorriko die euskaltzainei.
- Azaroaren 23an, 10:00etan, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Osoko bilkura egingo da.
- Azaroaren 23an, 16:30ean, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Ageriko bilkura egingo da, 2015etik 2018 urtera bitartean izendatu diren euskaltzain urgazle eta ohorezkoei diplomak emateko.

7. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Osoko bilkura

Donostian, 2018ko azaroaren 23an.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Kaltzakorta, Jabier,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Patxi Salaberri eta Xarles Videgain.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Miren Azkaratek ahala Miriam Urkiari (11:30etik aurrera eta

iritsi bitartean); Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (iritsi bitartean); Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2018ko azaroaren 23an, osatiralean, egin da Donostian, Luis Villasanten Euskararen Ikergunean.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko E. Osa idazkariordeak osoko eta ageriko bilkurei buruzko argibideak eman ditu.

1. Osoko bilkurako (2018-10-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharren bat egin nahi den galdetu du; P. Zabaleta euskaltzainak, 2. orrialdean, “Ondorioz,

ez dagokio berari Euskal Herriko labar-artea aztertzea” dioten tokian, esandakoa argiago islatzeko, xehetasun bat gehitzeko (“...berari labar-artearen lexikoa aztertzea”) proposatu du.

Osoko bilkurak eginiko iruzkina onartu du. Bestelako oharren bat dagoen galde-tuta, ez du inork halakorik egin. Ondorioz, 2018ko urriaren 26ko bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika: *Rosetta harria* / *Rosettako harria*. Aurkeztu eta erabaki

Gaia aurkezteko, X. Kintana Exonomastika batzordearen buruak hartu du hitza. Gogorarazi duenez, aurreko Osoko bilkuran «Rosetta harria» edo «Rosettako harria» behar duen erabaki gabe laga zen. Era berean, datu gehiago biltzeko eta aztertzeko eskaria egin zitzaion Exonomastika batzordeari. Horrela, izenaren jatorriari, beste 45 hizkuntzatarako izendapenei eta euskarazko izendapenari buruzko askotariko datuak eman ditu. Datuak kontuan hartuta, izendapenik erabiliena eta zabalduena «Rosetta harria» da. Horrela, Osoko bilkurak «Rosetta harria» izendapena hobestea erabaki du.

3. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldundua-ren oharra (X). Jasotako oharra aztertu eta erabaki

Urriko bileran proposatu zen zerrendari egindako oharra direla eta, *bokata*² sarrera berria onartu da, ‘ogitartekoa’ adierakoa; *elementu* sarreran 1. adierako adibidea eta 5. eta 7. adierak onartu dira; *hosto* eta *zuzentarau* sarreretan urriko proposamenak onartzea berretsi da; *zarata* sarreran (*soinu* aztertzean proposatua) “ik. *soinu*” gehitu da; *erregelamendu* sarreran bigarren adiera jasotzea onartu da; eta *transposizio* sarrerako adiera berria moldatzea eskatu da bileran (“Europar Batasuneko estatu kideek beren legedian zuzentarau bat sartzea” zioen lekuan “Europar Batasuneko estatu kideek beren legedia Europako zuzentarau baten arabera ego-kitzea.”), eta hala onartu da.

Forma berrien zerrendan, *goi-indize* bere horretan onartu da, baina *azpiindize* forma arautua aldatzea (*azpi-indize* gisa jaso) eskatu eta onartu da. Bestalde, *galleta* / *gaileta*², ‘jakia’ adierakoaren grafia erabakitzeko desadostasuna ikusita, batetik *gaileta*¹ ‘lixiba’ adierakoa dagoelako, baina ‘jakia’ adierakoak EBERen arabera *-il* beharko lukeelako, botoetara eraman da. *Gaileta*² onartu da *-il* 9 botorekin, *-il* 7rekin eta 6 boto zurirekin.

Azken multzoan, lantaldeak erabaki gabe utzitako formak aztertu eta erabaki dira. *diru(-)laguntza* forma arautua aldatzeko eskaerak jaso dira herri-erakundeetatik eta, datuak aztertu ondoren, araua aldatzea erabaki da botoetara joz berriz ere: lotuta 10 boto, marratxoz 1 eta zortzi boto zuri. Beraz, *dirulaguntza* egitea erabaki da. *glasatu/glazatu* auzian *glasatu* onartu da, datuak aztertuta. *ponposo/ponpoxo* auzian bi sarrera egitea erabaki da, eta *ponpoxo* sarreran bi adiera bereiztea: 1 ‘arranditsua’, 2 adiera positiboa, ona adierazten duena. Urtarrileko bilerara eramango da proposamena. *senda-agiri/sendagiri* (eta, hedaduraz, *gaixo(-)agiri/gaixoagiri*) auzian osasun arloko datuak biltzeko eskatu du Osoko bilkurak. Urtarrileko bilerara eramango da kontua berriro. *Prokariota/prokarioto* eta *eukariota/eukarioto* kasuetan ere, araua aldatzea onartu da, erabiltzaileek *prokarioto* eta *eukarioto* bakarrik darabiltelako; aspaldi eskatua zioten Euskaltzaindiari araua aldatzeko. *Arean-arean* azpisarrerazabateza erabaki da, irakurketa oker baten ondorioz jaso baitzen hiztegia, dirudienez. *Mangle* eta *mangladi*, biak jasotzea onartu da (eskaera hau iritsi zen *mangladi* definitzeko *mangle* behar zelako, erabilera urrikoa izanda ere). Azkenik, *autogestionatu* eta, honekin batera, *gestionatu* ere hiztegia jasotzea onartu da, *gestio* ‘kudeaketa’ (1. adieran) eta *gestionatu* ‘kudeatu’ gisa definituz.

4. “Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak” batzorde ahaldunduaren oharra (XI). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du batzorde ahaldunduko idazkariak, lau ohargilek (M. Azkarate, A. Iñigo, X. Videgain eta P. Zabaleta euskaltzain osoek) egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Oharrak egiteko epea zabaldu da, urtarilaren 14a arte.

5. Euskaltzaindiaren 2019ko egutegia aurkeztu

Zuzendaritzak jasotako oharra kontuan hartuz paraturiko Euskaltzaindiaren 2019ko egutegi proposamena aurkeztu du E. Osa idazkariordeak. Aldaketa txiki bat egitea erabaki da. Horrela, apirilean ez da Osoko bilkurarik egingo eta maiatzaren 4an Osoko eta Ageriko bilkurak egingo dira (Agerikoan R. González de Viñaspre euskaltzainaren sarrera hitzaldia egingo da, Trebiñun). Ondorioz, Euskaltzaindiaren 2019. urteko behin betiko egutegia osaturik gelditu da.

6. Esku artekoak

6.1. Xalbador Garmendia hizkuntzalari eta euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. X. Garmendia euskaltzain urgazlea 2018ko azaroaren 14an hil da. Zaldibian (Gipuzkoa) jaio zen 1932ko irailaren 20an. Teologian lizentziaduna (Erromako Unibertsitatea), *Egin* egunkariko euskara arduradun izatetik erretiroa hartuta zegoen. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko testu zuzentzailea izan zen Garmendia, eta euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1965ean. 1968ko Arantzazuko biltzarrean euskara batuaren deklinabideari buruzko txostena aurkeztu zuen. Hilberri txostena nork irakurriko duen hurrengo Zuzendaritzan aztertuko da.

6.2. Euskaltzaindiaren eta Bizkaisida Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena. Euskaltzaindiak eta Bizkaisidak GIB/HIESaren eremuan erabiltzen den euskal terminologia gaurkotu eta gomendatzeko elkarlan akordioa sinatu dute, 2018ko azaroaren 9an. Euskaltzaindiak euskal errealitate sozialera hurbiltzeko duen konpromisoan kokatzen da akordioa, eta baita Bizkaisidak hizkuntzaren eremuan GIBak atxikia duen estigmaren kontrako lanean ere.

6.3. Nafarroako ordezkariari laguntzeko, ordezkariordea izendatzeko proposamena. A. Iñigo Nafarroako ordezkariari ordezkariatzaren zereginetan laguntzeko, Zuzendaritzak Paskual Rekalde izendatzea erabaki zuen, 2018ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran. Horretarako, lehenago Gipuzkoan eta Araban izan diren aurrekariak gogorarazi ditu A. Urrutia euskaltzainburuak. Horrela, Osoko bilkurak eginiko proposamena berrestea erabaki du.

6.4. Euskararen Nafar Kontseiluan Euskaltzaindiaren ordezkariatza. Orain arte S. Aleman euskaltzain osoa kide izan da, eta bere ordezkoa A. Iñigo Nafarroako ordezkaria. Nolanahi ere, A. Iñigok Onomastika lanak egiten jardun du Euskararen Nafar Kontseiluan. Horrela, Zuzendaritzak S. Alemanen ordezkoa P. Rekalde euskaltzain urgazle eta Onomastika batzordeko kidea izendatzea erabaki du, 2018ko azaroaren 21ean eginiko Zuzendaritzan. Osoko bilkurak eginiko proposamena berrestea erabaki du.

6.5. Lauaxeta saria. Bizkaiko Foru Aldundiak Euskaltzaindiari Ohorezko Lauaxeta Saria ematea erabaki du, sortuz geroztik egin duen lana eta ekarpena azpimarratzeko. Aitormena abenduaren 3an jasoko du Euskaltzaindiak Bizkaiko Foru Aldundian.

6.6. Idazkaritza-teknikaria. Begoña Amundarainek errelebo kontratua hartzearen ondorioz, idazkaritza zereginetan laguntzeko asmoz, lanpostua hornitzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuen Zuzendaritzak. Deialdira aurkeztutakoen curriculumak eta eginiko elkarrizketak burutu ondoren, Zuzendaritzak aipatu lanpostua hornitzeko Manu Gañan aukeratzea erabaki zuen. Manuk ibilbide luzea du euskalgintzako elkarte eta erakundeetan, itzulpengintzan, bai eta euskararekin lotura duten zerbitzuen kudeaketan.

6.7. Gaur banatuko den liburua. B. Atxagak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren 12. zenbakia banatuko da.

6.8. Hurrengo bilkurak

Abenduan Osoko bilkurarik ez dela egingen gogorarazi da.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena: 2019ko urtarrilaren 17an eta 18an “Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi. XXIII. Jagon jardunaldia” egingo da Iruñean, Baluartan. Egitaraua eskuratuko zaie euskaltzainei eta joan nahi duten euskaltzainei ostatua eskainiko zaie, 16tik 18ra arte. Idazkariordeak euskaltzainei xehetasunak igorriko dizkie.

Urtarrilaren 25ean, 10:00etatik aurrera, Osoko bilkura egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Urtarrilaren 25ean, 12:30ean, 2018an hil diren euskaltzainak gogorarazteko Ageriko bilkura egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

7. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:45 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

Ageriko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean,
2018ko azaroaren 23an.
Batzar-agiria.

Donostian, Euskaltzaindiko Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 16:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2015etik 2018ra bitartean izendaturiko euskaltzain urgazle eta ohorezkoei ikurra eta diploma emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste "Battittu" Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Roberto González de Viñaspre, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sargarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Antonio Campos, Joan Mari Iriondo, Koldo Artola, Luis Baraiazarra eta Gorka Aulestia.

Euskaltzain urgazleak: Sebastian Gartzia, Felix Mugurutza, Paskual Rekalde, Antton Aranburu, Mikel Gorrotxategi eta Pilartxo Etxebarria.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Ibon Usaralde Egitasmoen bateragilea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Maixa Goikoetxea.

Gaur ikurra eta diploma jasoko dituzten ohorezko euskaltzainen eta urgazleen hainbat senide eta lagun.

Gaurko ekitaldian zein ondoko egunetan ikurra eta diplomak jaso dituzten euskaltzainen zerrenda:

Diploma jaso duten euskaltzain urgazleak (2015-2018): Jon Aizpurua, Irene Arrarats, Rikardo Arregi, Ainhoa Arregi, Asier Bidart, Agurtzane Elordui, Roberto González de Viñaspre, Karmele Jaio, Maite Lakar, Gotzon Lobera, Céline Mounole, Xabier Peritz 'Euzkitze', Patxi Petrirena, Patxi Salaberri Muñoa, Allande Socarros, Luis Mari Zaldúa, Josu Pikabea, Andres Alberdi, Amaia Apalauza, Xabier Erize, Iñaki Martínez de Luna, Rosa Ramos, Castillo Suárez eta Blanca Urgell.

Diploma jaso duten ohorezko euskaltzainak: Jose Antonio Aduriz, Martzel Andrinua, Txaro Arteaga, Maria Jose Azurmendi, Miren Jone Azurza, Henri Duhau Lafourcade, Izaskun Gastesi, Abel Muniategi, Jose Mari Rementeria, Julen Urkiza, Arantxa Urretabizkaia, Pello Zabala, Auxtin Zamora, Txomin Solabarrieta, Sabin Salaberri eta Manex Pagola¹ (+).

Gaur, diploma eta Akademiaren ikurra jaso dituzte 2015 eta 2018 artean euskaltzain urgazle edo ohorezko izendatutakoek. Guztira 16 ohorezko eta 24 urgazle izan dira deituak bertara; gehienak hurbildu dira Luis Villasante Euskararen Ikergunera. Ekitaldia hasi da Ane Ibarra eta Nerea Aizpurua biolin eta txeloa jotzen duten musikarien euskal kanta ezagun batekin.

Ondoren, Erramun Osa idazkariordeak ekitaldiaren zertarakoa eta nondik norakoak azaldu ditu. Segidan, ekitaldira hurreratu diren eta ikurra eta diploma jasoko dituzten euskaltzain urgazleen izenak eta soslai laburrak irakurri ditu, bai eta eskuratuko zaien diplomaren testua ere -"Euskaltzaindiak euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizgarri, urgazletzat hartu du". Urgazle berrien curriculum laburrak irakurri ahala, ekitaldian diren euskaltzain oso eta emerituek, txandaka, ikurra eta diploma banatu dituzte.

Horren ondoren, ohorezko euskaltzainen txanda iritsi da. Bakoitzaren soslai laburrak irakurri eta urgazleekin egin den eran, diplomak dioena irakurri -"Euskaltzaindiak euskararen aldeko haren merezimendu bikainak aitortuz, euskaltzain ohorezko izendatu du- eta ikurra eta diploma eskuetaratu dizkiete euskaltzain osoek eta emerituek. Ezaugarriak jaso ahala, ohorezko euskaltzain berriek esker

¹Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain berriak izendatu zituen Bilbon, egoitzan, 2018ko apirilaren 27an eginiko Osoko bilkuran. Manex Pagola ohorezko euskaltzaina 2018ko ekainaren 7an hil zen. Ondorioz, azaroaren 23ko ekitaldian ez zen egon.

oneko hitzak izan dituzte eta euskararen eta euskal kulturaren alde lanean jarraitzeko engaiamendua aditzera eman dute.

Ekitaldiarekin amaitzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Ohorezkoentzat izan dira Andres Urrutia euskaltzainburuaren lehen hitzak: "Askotarikoak dira zuen eginak, hitzetan nahiz ekintzetan, euskalgintzaren esparruan. Horiek eskertu nahi ditu Euskaltzaindiak ekitaldi honekin eta, bide batez, zuen presentzia baliatu zor zaizuen ohorezko izate hori nabarmentzeko eta azpimarratzeko gizartearen aurrean".

Ondoren, urgazleei egin die berba A. Urrutiak, gogoratuz "ohorerako bainoago lanean jarraitzeko deia" dela jaso dutena. "Horretan ari gara azken urteotan, uste baitugu Euskaltzaindiak bere ateak ireki behar dizkiela euskararen arloan egunotan bizien dabilzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, literaturan, kazetaritzan, zientzian, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta bestelakoetan. Hortxe eta Akademian ere nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanez". "Akademiak badaki zer den lan hori eta berori barruratu nahi du -gehitu du euskaltzainburuak, aukera emanez belaunaldi berriei, parte har dezaten Euskaltzaindiaren zereginean. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak aintzat hartu, lanean jarri eta baliatu behar ditu".

Gauzak horrela, ekitaldia Ane Ibarra eta Nerea Aizpurua musikarien beste pieza batekin eman da bukatutzat 18:30ean.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2018an argitaratutako arauak

1- Otsailaren 16an, 185. araua argitaratu zen (*Errenazimentuko pertsona-izenak*), Euskaltzaindiak 2017ko abenduaren 22an onartua. Arauak bi atal ditu:

Lehenengo atalean, zenbait azalpen ematen dira ulertzeko zer gertatzen zen garai hartan pertsona ospetsuen izenekin: latina zen prestigiozko hizkuntza, jatorrizko izenak latinizatu egiten ziren askotan, eta hala zabaltzen ziren Europan. Latinetik, gero, tokian tokiko hizkuntzetara aldatu ohi ziren grafia egokituta. Adibidez, *Jehan Cauvin* frantses teologoaren izena *Ioannes Calvinus* gisa latinizatu zen, eta handik pasatu zen Europako hizkuntzetara: *Johannes Calvin* (alemana), *Giovanni Calvino* (italiera), *John Calvin* (ingeleza), *João Calvino* (portugesak), *Jan Kalwin* (poloniera)... Halakoetan, euskaraz ere egokitzen da grafia: *Joan Kalbino*. Halakorik gertatzen ez bada, hau da, egokitzena hizkuntzaren batean baino gertatzen ez bada, euskaraz ez da egokitzen. Hori da irizpide orokorra.

Bigarren atalean, garai horretako pertsona-izen ospetsuen zerrenda ematen da, eta, euskarazko formarekin batera, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko formak ere ematen dira. Izen oso ezagunak dira gehienak, hala nola *Kristobal Kolon*, *Leonardo da Vinci*, *Martin Lutero*, *Fernando Magallanes*, *Nikolas Koperniko*, *Michelangelo*, *Nikolas Makiavelo*... Guztira, 58 pertsona-izen ematen dira.

2- Martxoaren 28an, 186. araua argitaratu zen (*Atzerriko pertsona-izenak. Grafiarizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua. Euskaltzaindiaren gomendioa*), Euskaltzaindiak 2017ko urriaren 27an onartua.

Arau luze bat da, kanpoko pertsona-izenak euskaraz nola idatzi behar diren adierazteko, eta xehe aztertzen du errege-erreginen izenen gaia. Nazioartean guztiz

zabaldurik dagoen joera da errege-erregina historikoen ponte-izenak hizkuntzaz hizkuntza aldatzea. Adibidez, ingelesez *Henry VIII* idazten den Ingalaterrako erregearen izena *Henri VIII* da frantsesez, *Enrique VIII* gaztelaniaz, *Enrico VIII* italieraz, *Heinrich VIII* alemanez... eta *Henrike VIII.a* idaztekoa da euskaraz.

Nazioartean hain errotuta zegoen tradizio hori, baina, ahulduz joan da azken urteetan. Gaur egun, hizkuntza batzuetan erabat desagertu da izena egokitzeiko tradizio horren aplikazioa azken urteotako errege-erreginen izenei dagokienez; beste hizkuntza batzuetan aldatze bidean dago, eta beste batzuetan, berriz, sendo iraun du gaur egun arte. Arauan, zehazki deskribatzen da frantsesaren eta gaztelaniaren oraingo jokabidea, batetik, eta euskaraz gaur egun arlo horretan zer jokabide nabari diren, bestetik.

Azkenik, errealitate konplexu eta aldakor hori ikusirik, Euskaltzaindiak gomen-dio bat eman du, bi zatiz osatua: batetik, lehengo errege-erreginen izenak euskarara egokitzea; bestetik, Bigarren Mundu Gerraz geroztik errege edo erregina bilakatu direnen izenak ez egokitzea, hau da, jatorrizko izenak erabiltzea.

Azkenik, irizpide horren aplikazioa erakustearren, 237 errege- eta erregina-izenen zerrenda eman du, lurraldeka banatuta: Aragoi, Gaztela, Espainia, Portugal, Frantzia eta Europako beste estatu askotako errege-erreginen izenak ematen dira euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

3- Maiatzaren 4an, 187. araua argitaratu zen (***Munduko zenbait gizarte- eta erlijiotalderen jarraitzaileen izenak eta ordena militar eta ospitalario nagusien izenak***), Euskaltzaindiak 2017ko azaroaren 24an onartua.

Munduko erlijio-talde nagusien jarraitzaile nagusien izenak eta politikaren arloko zenbait gizatalderen izenak aztertu eta bildu ditu Akademiak arau honetan. Hala, kristautasunaren (*jansenista, presbiteriano, Jehovaharen lekuko...*), islamaren (*suní, xii/xiita, ismaili...*) eta judaismoaren eremuko gizatalde nagusiak (*askenazi, falaxa, haredi...*), historikoak zein gaur egungoak, eta politikaren eremuko zenbait gizatalde ezagun (*atorrabeltz, espartakista, mentxebike, gibelino, kosako, zipaio...*) ageri dira. Guztira, 98 izen.

Bestalde, ordena militar eta ospitalario nagusien izenak ere bildu dira arauaren bigarren partean: 15 ordenaren izenak (*Jerusalemgo San Joan Ospitaleko Zaldunen Ordena, Maltako Ordena, Tenpluko Zaldunen Ordena...*).

Irizpideei buruzko sarreraren ondoren, izen-zerrendak ematen dira, eta euskarazko izenei gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dagozkien izenak ere gehitu dira.

4- Ekainaren 15ean, 188. araua argitaratu zen (***Munduko mitologiako zenbait izen eta Ekialdeko erlijio-sineskeren arloko zenbait pertsona-izen***), Euskaltzaindiak 2017ko abenduaren 22an onartua.

Lehenagoko beste arau batzuetan ere arautuak ditu Akademiak munduko izaki mitologiko askoren euskarazko izenak: 82. arauan, 175. arauan, 176. arauan eta 181. arauan. Arau honetan, Ameriketako zenbait izen mitologiko (*Pachamama, Viracocha, Tlatoc, Manitu...*), mitologia germanikoko eta zeltikoko izen batzuk (*Odin, Thor, Tutatis...*), hinduismoaren jainko-jainkosa nagusi batzuk (*Brahma, Vixnu, Xiva...*) eta mitologia islamikoaren eremuko izen batzuk eman ditu (*Malik, Azrael, Iblis...*).

Izen mitologikoez gainera, Asian sortutako erlijio batzuetako pertsona-izen nagusi batzuk ere eman ditu (*Buda, Konfuzio, Zaratustra...*).

5- Uztailaren 16an 189. araua argitaratu zen (***Amerindiar buruzagien izenak***), Euskaltzaindiak 2018ko martxoaren 22an onartua

Bi sailetan banatuta ageri dira arauan amerindiar buruzagien izenak. Lehenengoan, Ipar Amerikako indiar tribuen buruzagi batzuen izenak ageri dira (18 izen). Halako izenak itzuli egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara hitz arruntez osatutako izen bereziak direnean, eta euskaraz ere hala egitea hobetsi du Akademiak. Izenen osagaiak lexiko arrunteko hitzak badira ere, pertsona-izenak dira; beraz, ez dute artikulurik hartzen. Zezen Eseri, Bele Txiki, Hodei Gorri eta abar ageri dira zerrendan. Beste batzuetan, pertsona-izen horiek ez daude hitz arruntez osatuak, eta, halakoe-tan, grafia ez da egokitzen, hala nola *Cochise* edo *Pocahontas*.

Bigarren sailean, inken buruzagien izen batzuk ageri dira (11 izen). Kasu horre-

tan, izenak ez dira egokitzen, eta gaztelaniazko izenak nagusitu dira nazioartean. Euskaraz ere, nazioarteko joerari jarraitzea eta, oro har, grafia ez egokitzea hobetsi du Euskaltzaindiak: *Huayna Capac*, *Pachacutec*, *Tupac Amaru*...

Nolanahi ere, jatorrizko izenak ere erabil daitezke. Adibidez, *ṪhatṪaŋka Íyotake* idatz daiteke *Zezen Eseriren* ordezt, edo kitxuazko *Ata-wallpa* erabil daiteke *Atahualparen* ordezt.

6 - Irailaren 3an 190. araua argitaratu zen (***Munduko herriak eta etniak***), Euskaltzaindiak 2018ko ekainaren 29an onartua.

Arauaren lehen atalean, munduko herriak eta etniak euskaraz izendatzeko irizpideak zehazten dira. Etniaren izena egoten da hizkuntza-izen askoren eta leku-izen askoren jatorrian. Adibidez, *amharera* hizkuntza *amhara* etniaren hizkuntza da, eta *balutz* etniaren izenetik eratorria da *Balutzistan* lekuizena.

Batzuetan, nahasian agertzen dira etniaren izena eta lurralde bateko herritarren izena, baina, gehienetan, biak bereizi beharra dago. Adibidez, *kirgiz* etniakoen lurraldea Kirgizistan da, baina Kirgizistango herritarrak *kirgizistandarrak* dira berez, eta *kirgizistandar* guztiak ez dira *kirgizak*. Hau da, *kirgizistandar* hitza Kirgizistango herritartasunari dagokio, eta *kirgiz* hitza, berriz, etniari.

Etnien izena mailegatzeko orduan, kontuan hartu da tradizioa eta entziklopedien, eskolaliburuaren eta komunikabideen erabilera. Eta nazioarteko joerak ere aztertu dira. Aldagai horiek guztiak kontuan izanik ondu dira irizpideak eta zerrendak. Azterketa horretatik ondorioztatu da noiz den egokia grafia egokitzea eta noiz komeni den nazioarteko grafiari eustea.

Arauaren bigarren atalean, etnia-zerrendak daude, euskaraz, eta, ohi bezala, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko ordainak ere ematen dira. Guztira, 177 etnia sartu dira zerrendan. Kontinenteka sailkatuta aurkezten dira lehenik; ondoren, etnia guztiak zerrenda bakarrean ematen dira alfabetoaren hurrenkeran ordenaturik. Azkenik, erdarak-euskara zerrendak ageri dira: gaztelania-euskara, frantsesa-euskara eta inglesa-euskara.

Irizpenak eta txostenak

Onomastika

Aretxabaletako *Arkaraso* eta *Isurieta* toponimoen forma arautuez

ZALDUA ETXABE, Luis Mari

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko kidea

Agurainen, 2018ko azaroaren 27an

2018ko azaroan Aretxabaletako Udalak *Arkarazo* eta *Isurieta* toponimoen forma arautua zein den argitu diezaion eskatu dio Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari. Txosten labur hau galdera horri emandako erantzuna da.

Idatzizko erabilera gaur

EUSTAT-en biztanle entitate zerrendan *Arkarazo* (2001300000023) eta *Izurieta* (2001300000082) formak irakur daitezke eta, berebat, *GeoEuskadin*, Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko datu espazialen azpiegituran, *Arkarazo* eta *Izurieta* biztanle entitateak (elizateak) azaltzen dira, baina Sareko gunen horretan bertan *Isurieta* gailurra nahiz *Isurietagaraikoa*, *Isurietazpikoa* eta *Isurietaurrekoa* baserriak aurki daitezke. Ildo beretik, Aretxabaletako Udalak *Arkarazo* eta *Izurieta* darabiltza bere webgunean. Azkenik, diogun Google bilatzaileak *Izurieta* galderari 1.420.000 erantzun ematen dizkiola, *Yzurieta*-ri 28.800, *Isurieta*-ri 5.340 eta *Ysurieta*-ri 816. *Arkarazo* itaunaren ihardespenak, bestalde, 94.200 dira, *Arkarazo*-renak 49.200, *Arkaraso*-renak 1.200 eta *Arkaraso*-renak 655.

Deiturei bagagozkie, Espainiako Gobernuaren Instituto Nacional de Estadística delakoan adierazten denez, Espainiako estatuan, guztira, *Izurieta* deitura duten 570 pertsona daude egun, *Arkarazo* daukaten 244 eta *Arkarazo* duten 127. Iturri horren arabera, *Arkaraso* / *Arkaraso* edo *Isurieta* deitura duen inor ez dago.

Adin handikoen lekukotza

Ahozko tradizioari erreparatuz gero, *Usitta* / *Usitte*- ([u.ʃi.ca], abs.; [u.ʃi.ce.kò], lek.g.) nahiz *Arka(r)aso* ([ar.ká.a.ʒò], abs.) ebakerak entzun daitezke Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzen dituen *Ahotsak* funtserako Aretxabaletako adin handikoei egindako elkarriketetan, bestela esanda, txistukari hobikari "apikalaz" ahoskatzen dute herriko aitona-amonek.

Idatzizko tradizioa

Arkaraso. Toponimia alorrean Erdi Aroan dokumentatzen da aurreneko aldiz. Zenbait erakuskari aipatuko ditugu, adibide antzera, gaia erabil dezagun: «...*vezindades e parrochias de [...] Arcaraso [...]*» (Aretxabaleta, 1497, Lema, Cruz eta Larrañaga 2002: 207, 208), *Arcaraso* (Arrasate, 1500, Herrero, Achón eta Mora 1998: 142), *Arcaraso (ante-iglesia o parroquia*; Isasti 1625-26: 29), *Azcaraso* (Isasti 1625-26: 208), *Arcaraso (anteiglesia*, DRAH, I, 1802: 431), *Arcaraso (anteiglesia*, Madoz 1845-1850: 22), *Arcarasu (anteiglésia*, Giplz., 1857: 111), *Arcarazo* (1954, Instituto Geográfico y Catastral).

Nolanahi ere, estreinako aipamenak antroponimia arlokoak dira: *Juan Ruys d'Arcaraso* (1390, Crespo, Cruz eta Gómez 1992: 72), *Iuan Rruyz d'Arcarazo* (1390, Martínez, González eta Martínez 1996: 290), «...*la señora de Quando Martin Lopes de Arcaraso*» (Arrasate, 1437, Herrero, Achón eta Mora 1998: 44), *Lope Garcia d' Arcaraso* (Arrasate, 1437, *ibidem*, 44), «*Pedro Lopes de Arcaraso el Moço*» (Aretxabaleta, 1497, Lema, Cruz eta Larrañaga 2002: 178), *Pedro Lopes d'Arcaraso* (Aretxabaleta, 1497, *ibidem*, 185), *Pedro García de Arcaraso* (1502/1528, Ayerbe 1997: 581). Bidenabar, derragun Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoaren sakramentu agirien aurkibidean, bataioen atalean zehazkiro, *Arcaraso* deitura duten 111 pertsona (1549-1894) eta *Arcarazo* duten 3 (1849-1898) azaltzen direla.

Isurieta. Hau ere aspaldidanik lekukotzen da toponimo moduan. Honatx zenbait adibide: «...*e Surieta e ...*» (Arrasate, 1500, Herrero, Achón eta Mora 1998: 142), *Ysurieta* (1551, Díaz Bodegas, 1998: 382), *Isurieta (ante-iglesia o parroquia*, Isasti 1625-26: 30), *Isurrieta*, *Aozaraza (ibidem*, 208), *Isurieta (anteiglesia*, DRAH, I, 1802: 388), *Isurieta (anteiglesia*, Madoz 1845-1850: 115), *Isuerguieta (anteiglésia*, Giplz.: 112), *Isurieta (casa de labor*, Giplz., 1857: 112), *Izurieta* (1954, Instituto Geográfico y Catastral).

Zernahi gisaz, aurreko kasuan bezala, honen aurreneko agerraldiak ere antroponimia sailekoak dira: *Pero Martines d'Isurieta* (Arrasate ingurukoa, 1390, Crespo, Cruz eta Gómez 1992: 78), *Pero Martinez d'Yzurieta* (1390, Martinez, González eta Martínez 1996: 294), *Juan de Ysurieta*, *Juan de Esurieta* (Aretxabaleta, 1497, Lema, Cruz eta Larrañaga 2002: 197, 220). Bestalde, Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoaren sakramentu agirien aurkibidean (bataioen atalean) *Ysurieta* formaren 184 lekukotasun daude (1547-1877), *Isurieta*-ren 6 (1552-1616) eta *Yzurieta*-ren 3 (1621-1660).

Goiko adibideak erakusgarri batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa ere ekar daitekeelako, baina aski eta sobera dira bere laburrean agertu nahi duguna agertzeko: salbuespenak-salbuespen, bi toponimoak idatziz emateko <s> duten grafiak, hau da, igurzkari hobikari apikala adierazten duten formak, gailentzen dira tradizio idatzian Erdi Arotik XIX. gizaldira arte.

Etimologia¹

Mitxelenaren arabera (AV, 81), *Arcaraso*-ren oinarria *arkakarats* 'astoarrosa' izenaren **arkarats* da. Ildo horretan, gogoratzekoa da badela *Arkarats* (*Arcaras*, *Arcaraz*) deitura. Bigarren osagaia, atzikia alegia, *-tsu*, *-zu*-ren aldaera dirudien *-so* dateke (ikus AV, 545).

Isurieta-ri dagokionez, Isastik (1625-26, 208-209) dio etorkia alderdi hartan egondako sarraski batekin lotua dagoela ; odolarekin ez, baina Mitxelenak (AV, 341) aipaturiko *isuri* aditz izenduarekin zerikusia izan dezake agian, horrelakoak gure toponimian ohikoak ez diren arren (cfr. Aiako *Isurola* baserria, GipIz., 1857: 3, nahiz *Isuri*, *Isuriaga*, *Isuribehere* deiturak).

Gomendioa

Adin handikoen ahozko lekukotza, idatzizko tradizioa eta etimoa gogoan hartuta, galdegai ditugun bi toponimoen aldaera akademikoak <s>-rekin idaztea da egokiena, eta ez <z>-rekin, bestela esan, forma araututzat *Arkaraso* eta *Isurieta* erabil daitezen gomendatzen dugu, eta ez *Arkarazo* eta *Izurieta*.

¹ Eskerrak eman nahi dizkiot Patxi Salaberri Zaratiegi irakasle eta euskaltzain uxuetarrari atal honetan emandako argibideengatik.

² «Cerca de la Iglesia do *Isurrieta*, [...], donde pelearon, y hubo mucha matanza, y derramamiento de sangre de ambas partes: por lo cual pusieron nombre á aquel sitio *Isuri*, que en bascuence quiere decir, derramar, y despues corrupto el vocablo *Isurieta*».

Erreferentziak

Liburuak eta aldizkariak

- Abella, M., González Arnau, V., Martínez Marina, F. eta Traggia, J., 1802, *Diccionario Geográfico-Histórico de España*, Madril: Imprenta de la Viuda de D. Joaquín Ibarra. Bi ale. DRAH laburdura erabili dugu.
- Ayerbe, M. R., 1997, *Ferrerías Guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*, Donostia: Instituto Dr. Camino de historia donostiarra.
- Crespo, M. A., Cruz J. R. eta Gómez, J. M., 1992, *Colección Documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo I (1260-1400)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 41.
- Díaz Bodegas, P., 1998, *Libro de Visita del Licenciado Martín Gil*, Logroño: Diócesis de Calahorra y la Calzada - Logroño.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, 1857, *Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. GipIz. laburdura baliatu dugu.
- Herrero, V. J., Achón, J. A. eta Mora, J. C., 1998, *Archivo Municipal de Mondragón. Tomo V. Libro 2. Copia de Privilegios Antiguos (1217-1520)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 86.
- Isasti, L. M., 1972 (1625-26), *Compendio Historial de la muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. Hau 1625-1626. urte aldera idatzia da.
- Lema, J. A., Cruz, J. R. eta Larrañaga, M., 2002, *Archivos Municipales (1260-1520): Antzuola (1489-1497), Aretxabaleta (1506), Eskoriatza (1260-1519) y Leintz-Gatzaga (Salinas de Léniz) (1372-1516)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, «Fuentes documentales medievales del País Vasco» 116.
- Lizundia, J. L. eta Knörr, H., 1976, "Herri eta herritarren izendegia", *Euskera* 21, 1, 287-315.

Madoz, P., 1991 (1845-1850), *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Guipúzcoa, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako facsimile erako berrargitalpena. Lehenbizikoz Madrilen ikusi zuen argia 1845. eta 1850. urteen artean.

Martínez Díez, G., González, E. eta Martínez Llorente, F. J., 1996, *Colección de documentos medievales villas guipuzcoanas: 1370-1397*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Mitxelena, K., 1953, *Apellidos Vascos*, Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. Txertoak 1989an Donostian egindako laugarren argitalpena eta 1997ko bosgarrena ere begiratu ditugu. AV laburdura erabili dugu.

Mapak

Ikermap, 2004, *Aretxabaletako mapa 1/10.000*, Donostia: Aretxabaletako udala. Instituto Geográfico y Catastral, 1954, *Mapas del Instituto Geográfico y Catastral, escala 1:50000 (088-Vergara)*, Madril.

Sareko baliabideak

Ahotsak, Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea [<https://ahotsak.eus>].

Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa. Sakramentu agirien aurkibidea. [<http://www.mendezmende.org/eu/hasiera.html>].

Euskaltzaindia: “Euskal Herriko leku-izenak” [<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/eoda/lekuak.pdf>].

GeoEuskadi, Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko datu espazialen azpiegitura [www.geo.euskadi.eus].

Instituto Nacional de Estadística. Nombres y Apellidos [<https://www.ine.es/widgets/nombApell/index.shtml>].

Adierazpenak eta hitzarmenak

Euskaltzaindiak 2018an hainbat adierazpen instituzional egin ditu

Euskaltzaindiak 2018. urtean hainbat eskaera egin dizkie herri erakunde eta elkarte batzuei. Eskaera horien helburua euskal hizkuntzak behar duen babesa izan dezan sustatzea izan da.

Urtarrilaren 11n, Frantziako Tourra antolatzen duen elkartearen zuzendaria Monsieur Christian Prudhomme-ri gutuna igorri zaio **2018ko Frantziako txirrindulari itzuliak Senperetik Ezpeletara antolatutako etapan euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskatuz.**

Urtarrilaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldu nagusi Unai Rementeria jaunari gutuna igorri zaio **2018ko Errugbi finalean, Espainiako Itzulian eta MTV Europe Music Awards-en euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera eginez.**

Urtarrilaren 18an, Bilboko alkate Juan Mari Aburto jaunari gutuna igorri zaio **2018an Bizkaiko hiriburuan izango den Europako errugbiko Challengean eta Txapeldunen Ligako finalean euskarari dagokion tokia eman diezaioten eskaera eginez.**

Urtarrilaren 18an, Getxoko alkate Imanol Landa jaunari gutuna igorri zaio **2018ko Espainiako Itzuliak Getxoko udalerrian izango duen jardunaldian euskarak dagokion tokia izan dezan eskatuz.**

Urtarrilaren 18an, Barakaldoko alkate Amaia del Campo andreari gutuna igorri zaio eta **2018ko MTV Europe Music Awards ekitaldian euskarak dagokion tokia izan dezan eskaera egin zaio.**

Urtarrilaren 22an, Espainiako Justizia ministro Rafael Catalá jaunari gutuna igorri eta, **euskarak genero gramatikalik ez duenez gero, erregistro zibiletan pertsonak izendatzean indarrean dagoen legeak sortzen dituen oztopoak gainditzeko neurriak bidera ditzan eskatu zaio.**

Bestalde, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan, 2018ko irailaren 12an, **Euskaltzaindiaren agerraldia izan da Nafarroako Parlamentuak euskarari buruzko Foru Lege berri bat egiteko sortu duen batzorde berezian**. Euskaltzaindiaren iritzia zein den, Sagrario Aleman zuzendaritza kideak eta Andres Iñigo Akademiak Nafarroan duen ordezkariak azaldu dute.

Azkenik, urriaren 6an, Euskaltzaindiak euskara batuaren sorreraren 50. urteurrenaren kariatara Arantzazun egin duen Biltzarraren bukaeran **Euskara Batuaren adierazpena: Arantzazutik mundu zabalera** aurkeztu du. Egun berean euskalgintzan egunero lanean diharduten eragile garrantzitsuenek bat egin dute adierazpen horrekin. Halaber, hurrengo asteetan, bestelako agente soziopolitiko batzuk ere atxikimendua azaldu dute.

Eskaera eta adierazpen hauek guztiak Euskaltzaindiaren webgunean ikusgai eta kontsultagai daude.

EUSKARA BATUAREN *ADIERAZPENA*

Arantzazutik mundu zabalera

Euskaltzaindiaren sorreratik ehun urte eta Arantzazuko Biltzarretik berrogeita hamar igaro direnean, Euskaltzaindiak honako adierazpen hau aurkeztu nahi dio euskal gizarteari, euskara batuaren inguruan eragile publiko zein pribatuek berres-teko eta azpimarratzeko euskara batuaren garrantzia eta, horrekin batera, orain arteko ibilbidea eta etorkizuneko erronkak.

Hartara,

1. Euskaltzaindiak berresten ditu bere sorrera bultzatu zuten printzipioak eta, aldi berean, euskara batuaren jatorrian daudenak. Euskaltzaindi sortu berri hura lehen ordutik hasi zen batasunaz arduratzen. Aurretik, idazleek ere euskaldunen arteko euskara bateratuaren beharra sumatua zuten eta nor bere neurrian eta moldean erantzuna ematen saiatua zen.

Euskaltzaindiaren sortarauetan ageri da jada euskararen batasuna “euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa”. Ondoko ibilbidean zehar, auziaren inguruan egin diren saiakera, inkesta, proposamen, txosten edo ikerketak, eta antolatu diren biltzarrak, ez dira alferrikakoak izan, nahiz eta 1968ra arte ez zuten gailurra jo, alegia, Arantzazun euskara batasunaren bidean jarri eta handik hamar urtera Bergaran berretsi arte.

2. Euskaltzaindia partaide izan da mendearen 50eko eta 60ko hamarkadetan euskararitzan eta euskalgintzan nagusitzen ari ziren hizkuntza planteamendu berrietan. Belaunaldi berriek euskararen biziberritzea eta batasuna ezinbestekotzat joak zeuzkaten batasunaren bidez euskara gizarte berrira egokitzeo, irakaskuntzan, hedabideetan, kulturgintzan, eta, geroago, administrazioan. Arantzazun, Bilbon, Eibarren, Baionan, Ermuan eta beste leku askotan elkarrekin lanean aritzeko eskaintzak eta proposamenak egin ziren, eta haiek baliatzen jakin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun, eta, ondoren, euskalgintzarekin eskuz esku egin zuen bidea eta halaxe eraman gidaritzara, etenik eta pitzadurarik gabe.

3. Euskaltzaindiak aho betean aitortzen du prozesu honetan parte hartu duten hainbaten lana, norbanako, talde edo erakunde izan, horiek ahalbidetu baitute, beren ekarpenekin, euskara batua moldatzea, aniztasunaren eta adostasunaren ikuspegitik.

Aitortu ez ezik, omenaldia ere egin nahi die bidegile horiei Euskaltzaindiak, eta baieztatzen du euskara batuak, euskaldun bakoitzaren errealitate linguistiko eta kultural berezietatik abiatuta, zin-zinezko elkargune emankorra ekarri duela, euskaraz, jatorriz zein ikasbidez, ari diren guztientzat.

Harro dago Euskaltzaindia horretaz, begien bistakoa baita Euskal Herriak eta herritarrek izan dutela ibilbide ausart eta oparo horretan protagonismorik erabatekoena.

4. Euskaltzaindiak omendu nahi ditu euskara batuaren guneko hori hainbeste ilusio, lan eta nekeri esker osatu eta osotu duten guztiak. Hortxe dira, besteak beste, beraien buru euskalduna euskara batuaren bidez alfabetatu dutenak edota euskararen mundura ikasiaren bidez etorri diren hiztun berriak, abiaburu euskara batua duten euskaldunak, euskararen demografia berrian gero eta ugariago direnak, bestalde. Batzuek eta besteek euskara batua lanabes aproposa dute beren eguneroko zereginetan. Izan ere, euskara batua, lurraldean lurraldeko izateaz gainera, gizarte-

rena ere bada, leku eta funtzio askotarikoa, hiztunen aho-mihietan eta idatzietan bizirik dagoena.

5. Euskaltzaindiak dei egiten die belaunaldi berriei euskara batua, arrotza bari-rik, bere-berea izan dezaten eta beraien adierazpideetan erabil dezaten, belaunaldi bakoitzak duen eite eta tankera propioarekin. Guztion artean bultzatu behar dugu euskara batua, gure arteko zubia izan dadin, nor berea duen euskaratik abiatuta, baina euskaldun guztion arteko estekadurak erabat bermaturik.

6. Euskaltzaindia kezkaturik dago azkenaldian hizkuntza estandarrari buruz nabarmendu den zenbait iritzi eta jokamolderekin.

Euskaltzaindiak uste du euskaldun oso izateko modua ekarri digula euskara batua: euskaldunon barne-lotura, hiztun guztiok errazago elkar ulertu ahal izateko zubi-tresna, euskaldun berrien eta zaharren arteko elkargune zabala, eta, azkenik baina ez azken, euskararen beraren izena eta omena. Begirunea zor zaio horri.

7. Euskaltzaindiak engaiamendua adierazten dio gizarteari, ez goitik beherako ezarpenaren aldetik, ezpada pedagogiaren eta konpromisoaren aldetik, ideologia politikoetatik at. Koordinazio lanaren bidez gauzatuko du euskara batuaren sustapena eta bultzada.

Koordinazio horretan ari dira Euskaltzaindia, euskalgintza, gizarte eragileak, bostere publikoak eta gainerako erakundeak, eta eginkizun horretan aintzat hartu behar dira euskara batuaren inguruko orain arteko erabakiak, euskara estandar baten nondik norakoak. Izatez, aurrerantzean ere eman beharko dira pausoak euskara batuaren alorrean euskalgintzarekin batera, hizkuntza zerbait bizia baita, etengabe aldatzen ari dena, gizarteak izan ditzakeen premiei egokitzeko asmotan. Hitz batez esateko, Euskaltzaindiak zerbitzua eman behar dio gizarteari, eta euskaldunegandik jasotzen duena euskaldunei itzuli, beraien onura eta erabilerarako.

8. Euskara batuaren erabilera sozialari laguntza eman behar zaio, eta begien bistakoa da erabilera horri bidea erraztu behar zaiola, gaur egun gero eta zabalagoa baita euskara batuaren presentzia Euskal Herriko herrialde guztietan. Horretan ere, artez uztartu behar dira Euskaltzaindiaren betiko zereginak, alegia, euskara batuari buruzko formulazio linguistikoa eta sustatze lana, Akademiaren sortzail- leek jarri zituzten Iker eta Jagon sailetan, hurrenez hurren. Historian zehar horren adibideak ugari dira Euskaltzaindiaren eginetan, eta garai hauetan ere hizkuntza politikaren eragile publiko zein pribatuekin ondu beharrekoak, eta horiekin ba-

tera jokatu behar du Euskaltzaindiak euskara batuaren aldeko hizkuntza politika sendoa egiten.

9. Zeregin horietan Euskaltzaindia bere jarduna eraberritzen ari da, gizarte moderno baten beharrei aurre egin ahal izateko, gizarte horrek euskararen berean bilatzen baitu, hizkuntza propioa duen aldetik, nortasun eta komunikazio tresna eragingarria eta egungo bizimoduari egokitua, hartarako baliagarria dena. Zeregin horietan badira berebiziko arloak euskara batuaren hedapenerako, hala nola irakaskuntza eta herri-administrazioa, euskara ofiziala izatearekin batera. Horiek guztiek ekarri diote euskarari egoera berria eta horien bitartez egin du bidea euskarak digitalizazio mundura, ezinbestekoa da-eta ingurune digitala Euskaltzaindiaren zereginetan, euskararen estandarizazioa eta erabilera soziala xede eta helmuga baititu euskararen Akademiak.

10. Ehun urte joanak dira Euskaltzaindi sortu berriak, euskararen bateratze-saioari ekin zionetik. Berrogeita hamar urte, berriz, Arantzazuko Biltzarra egin zenetik.

Euskara batuak, euskaldunen eginahalak tartean direla, eremu berriak irabazi ditu euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Hala ere, oraindik badira irabazi beharrekoak.

Zeregin horretarako tresna paregabea dela erakutsi du euskara batuak, eta bere aitzinamenduan jarraitu behar dugu guztiok. Hurrengo berrogeita hamar urteetan ere bada motiborik, euskara batua indartzen saiatzeko: lanabes baliagarria da berau, aldian-aldian behar izan ditzakeen egokitzapenez hiztunen arteko hainbat jarduera errazteko eta bermatzeko: batez ere idatzizko jardunean eta mintzaera jasoformalean erreferente argi eta noranahikoa eskuratzeko.

Hurrengo belaunaldien eskuetan jarri behar dugu ondare hori: etxetik eta lagunartetik euskaldun direnei beren hizkuntza-gaitasuna osatzeko eta aberasteko bidea emango diegu horrela, eta etxetik ez dakitenei euskaldun askoren esparrura erakartzeko aukera eskainiko. Belaunaldi berri horiei dagokie, eskuratu dieguna osatu, hobetu eta hurrengoei transmititzea. Horixe da bidea euskarari desio dion etorkizuna bermatzeko. Zalantzarik gabe, bermatze horretan guztiok behar dugu partaide izan eta lehen-lehenik Euskaltzaindiak.

- ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA AEK
- IKA EUSKALTEGIAK
- .EUS FUNDAZIOA
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
- EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
- EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE ETA INTERPRETEEN ELKARTEA
- EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA
- EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
- ELKAR FUNDAZIOA
- GEREDIAGA ELKARTEA
- EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA
- EMUN
- ELHUYAR
- UZEI
- EUSKO IKASKUNTZA
- LABAYRU FUNDAZIOA
- EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA
- UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA
- EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEA – EHIGE
- KRISTAU ESKOLA
- BERRIA TALDEA
- TOKI KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEA – TOKIKOM
- MONDRAGON UNIBERTSITATEA
- DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
- EUSKAL IRRATI TELEBISTA
- JAKIN FUNDAZIOA
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
- ARABAKO FORU ALDUNDIA
- NAFARROAKO PARLAMENTUA
- NAFARROAKO GOBERNUA
- EUSKO JAURLARITZA
- EUSKO LEGEBILTZARRA
- EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiak 2018. urtean zehar hainbat lankidetza-hitzarmen sinatu ditu

Euskaltzaindiak hainbat herri-erakunde, instituzio, hedabide eta elkarterekin lankidetza-hitzarmenak dauzka. Zerrenda osoa www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundea/hitzarmenak web orrialdean dago ikusgai.

Akademiak urtero sinatzen ditu erakunde eta elkarte horietako askorekin dituen hitzarmenak garatzeko akordioak. Horrekin batera, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren kariatara, ehun urte horiek ospatzeko egingo diren jardunaldi eta ekitaldien jarraipena egitera bideratutako hitzarmenak sinatu dira 2018. eta 2019. urteetan hainbat hedabiderekin. Horien guztien berri *Plazaberri* blogean eman da, eta, beraz, atal honetan herri-erakunde eta elkarteekin sinatu diren hitzarmen berrien edo berezien kronika besterik ez da egingo. Hauek izan dira 2018an lehenbiziko aldiz sinatu diren edo esangura berezia duten hitzarmenak:

Nafarroako Parlamentuak eta Euskaltzaindiak lankidetza hitzarmena berritu dute

Antzinako testu juridikoen erakusketa, izaera lexikografikoko euskarazko *Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* hobekuntza eta Mendeurrenaren ekitaldietan parte hartzea aurreikusten dira, eta hiru urteko indarraldia izanen du. Gero, iraupen bereko ondoz ondoko aldietarako luzatu ahalko da. Proposatzen diren egitasmoetarako berariaz antolatzen diren lantaldeen koordinazio lana Euskaltzaindiak egingo du, eta Nafarroako Parlamentuaren esku jarriko ditu lan horien emaitzak eta baita erabiltzeko baimenak ere.

Hitzarmen honen xedeak atal desberdinak ditu. Alde batetik, antzinako euskarazko testu juridikoen erakusketa bat egiteko helburua du, baita izaera lexikografikoko euskarazko *Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* hobetzeko ere. Bestalde, Eus-

kaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, 2018ko eta 2019ko udazkenean antolatuko diren ekitaldi eta jardunaldiak elkarren artean banatzea aurreikusten da. Proiektu hauetan guztietan euskararen lurraldeetako elkarte, unibertsitate eta erakundeek parte hartu ahal izango dute.

Helburu horrekin, Nafarroako Parlamentuak bere testu juridikoen dokumentu funtseko testuak Euskaltzaindiaren esku jartzeko konpromisoa hartu du, testu hauek Parlamentuko terminologian eta lexikoan duten balioa aintzat hartuta. Honela, Euskaltzaindiak eguneratze lanak egingo ditu, eta lan honetan beste parlamentu eta erakunde batzuek ere parte hartuko dute. Lan hau Lexikoaren Behatokia izeneko proiektu zabal baten baitan dago, egun esparru eta formatu desberdinetan erabiltzen diren euskarazko 68 milioi hitz-testutako datu-basea osatzen duena.

Hiru urterako egin den lankidetzat hitzarmena sinatu dute Ortzadar LGBT elkarateak eta Euskaltzaindiak

Ortzadar LGBT elkarateak eta Euskaltzaindiak lehenengoz sinatu dute lankidetzat hitzarmena. Hitzarmena hiru urterako egin da. Euskarari dagozkionetan, eta Euskaltzaindia erakunde aholku-emaila ofiziala den aldetik, Ortzadar LGBT elkarateari aholkularitza eskainiko dio, bereziki:

- Gradu bukaeran eta Master ikasketetan elkarateak sustatzen dituen deialdietan euskararen erabilera normalizatua eta jasoa ziurtatzeko.
- Elkarateak bideratzen duen aldizkari zientifikoan euskarari toki egokia eta duina emateko.

Aurreko bi xedapenen ondorioz sortzen den euskararen testu-masa eskuratuko dio Ortzadar LGBT elkarateak Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak, besteak beste, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* elikatzen duen Lexikoaren Behatokia elikatze baliatuko du euskarazko testu-masa hori.

Era berean, Ortzadar LGBT elkarateak Euskaltzaindiari aholkularitza eskainiko dio herritarren berdintasuna, bizikidetzat, sexu-askatasuna eta giza eskubideak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* zein bestelako hizkuntza baliabideetan are hobeto islatuta ager daitezen.

Euskaltzaindiak eta Hezkuntza Sailak beraien arteko elkarlana indartuko dute datozen urteetan

Besteak beste, akordio honen bitartez Euskaltzaindiak euskararen batasunerako bidean eman dituen arauen, gomendioen eta irizpenen zabalkundean lagunduko du Hezkuntza Sailak, eta EIMAk *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE) egitasmorako baliagarriak izan daitezkeen materialak Euskaltzaindiaren esku jarriko ditu. Akordioarekin Euskaltzaindiaren eta Hezkuntza Sailaren koordinazioa eta lankidetzaz indartu nahi da, Hezkuntza Sailak azken hamarkadetan martxan duen EIMA programaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak, unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialgintza babesteko, indartzeko, garatzeko eta diruz laguntzeko eratu zuen EIMA programa, Euskararen Normalizaziorako Legean oinarrituz.

Euskaltzaindiak eta Bizkaisidak GIB/HIESarekin lotutako estigmatik gabeko hizkuntza bultzatuko dute

Euskaltzaindiak eta Bizkaisidak GIB/HIESaren eremuan erabiltzen den euskal terminologia gaurkotu eta gomendatzeko elkarlanerako akordioa sinatu dute.

Euskaltzaindiak euskal errealitate sozialera hurbiltzeko duen konpromisoan kokatzen da akordioa, eta baita Bizkaisidak hizkuntzaren eremuan GIBak atxikia duen estigmaren kontrako borrokan ere.

Tratamenduetan aurrerapena lortu arren, beldurrak eta estigmak errotuta diraute gizartean, baita 90eko hamarkadan GIBa infekzio kroniko maneagarri bilakatu zuten jarduera handiko tratamenduak iritsi ostean jaio ziren pertsona horietan ere.

Horregatik, gaur egun, GIBaren kontrako borrokan jarraitzea egoera bi-degabe honen kontra egitea da. Hizkuntzak pentsamendua sortzeko orduan duen garrantzia ikusita, GIBaren errealitatera hurbiltzeko erabiltzen dugun hizkuntza egokitzea beldur horren aurka irabazitako borroka da. GIBarekiko estigma orokorra infekzioaren inguruko beldurrean oinarritzen da.

Kutsatze, kutsatuta edo *Hiesa kutsatzea* bezalako hitzen erabilerak, zehatza ez izateaz gain, estigma hori sustatzen du. GIBaren gaia promiskuitatearekin, moralarekin edo mota bateko jokaera sexualen inguruko kontzeptuekin lotzeak GIBa bera arrazoirik gabe urruntzen du gizartetik. Hala, zentzuzkoa da GIB

infekzioaren inguruan aritzeko *kutsatu* bezalako hitzen definizioan eta gaurkotzean lan egitea, honen konnotazio negatiboek GIBaren inguruko estigma indartu eta euskal hiztunak nahi gabeko konplize bihurtzen dituelako.

Bestalde, 2017an sortu zen Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskaltzaindiak, 2018ko uztailaren 17an, Baionan, bi erakundeen arteko lehen hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horretan, Euskal Hirigune Elkargoak, euskara alorrean, Euskaltzaindia erakunde aholku emaile ofizial gisa aitortzen du. Ipar Euskal Herriko herri erakundeetatik Akademiari lehenbiziko aldiz egiten zaio errekonozimendu hori eta, hargatik, bere osotasunean argitaratzen da *Euskera* agerkarian:



EUSKALTZAIN

**CONVENTION DE PARTENARIAT ENTRE LA COMMUNAUTE D'AGGLOMERATION
PAYS BASQUE ET EUSKALTZAINDIA**

**EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Aldetik,
Euskal Hirigune Elkargoa, Jean-René
ETCHEGARAY, Lehendakariak ordezkaturik,
Batzorde iraunkorrak 2018ko uztailaren 17an
hartu deliberaren poderioz,

Bestetik,
Euskaltzaindia, Andre URRUTIA Euskaltzain
buruak ordezkaturik,

Entre, d'une part,
La Communauté d'Agglomération Pays
Basque, représentée par Monsieur Jean-
René ETCHEGARAY, Président en charge
des politiques linguistiques, dûment habilité
par délibération du Conseil permanent du 17
juillet 2018,

Et, d'autre part,
L'association Euskaltzaindia, représentée
par Monsieur Andres Urrutia, Président,

AURREKARIAK

Euskaltzaindia euskararen alorrean
erakunde aholku emaila ofiziala da. 1918an
sortu zen euskarari buruzko ikerlanak
egiteko eta euskal hizkuntza babesteko
xedeaz. Euskaltzaindiaren zereginen artean
dago hizkuntzaren normalizazioak eskatzen
duen ezinbesteko estandarizazioa eta
garapena. Beronek ematen ditu euskararen
erabilerari buruzko aholkuak eta baita arauak
ere. 1968az geroztik, euskararen batasuna
eta eguneratzea gidatu ditu.

Euskaltzaindia hizkuntzaren corpusaz
arduratzan da, baina baita bere estatus
sozialaz ere. Zeregin nagusi horiek Iker
Sailaren, Jagon Sailaren eta egiturazko
beste hainbat batzorderen bitartez
gauzatzen ditu. Iker Sailean lantzen dira
hiztegitintza, gramatika, dialektologia,
onomastika eta literatura. Jagon Sailean,
berriaz, corpusa, euskalkiak, sustapena eta
euskararen historia soziala. Sail nagusi
hauek bideratzen dituen lanez gain,
Euskera barne-agerkaria eta *Ereia* kultura
aldizkaria argitaratzen ditu eta Azkue

PRÉAMBULE

Euskaltzaindia ou l'Académie de la Langue
Basque fondée en 1918 est l'institution
académique consultative officielle qui fixe
les normes linguistiques de la langue
basque. Elle réalise des travaux de
recherche, elle établit les règles, elle
conseille et elle s'attache également au
développement et à la standardisation
nécessaire à la normalisation de la langue
basque. Depuis 1968, elle a favorisé
l'unification et la modernisation de la langue
basque.

Euskaltzaindia s'occupe du corpus de la
langue basque, mais elle veille également à
son statut social. C'est pourquoi depuis sa
création l'Académie comprend deux grandes
sections, Iker et Jagon (Recherche et
Promotion). La section Iker se charge de la
lexicographie, de la grammaire, de la
dialectologie, de l'onomastique et de la
littérature. La section Jagon travaille au
corpus, aux dialectes, à la promotion de la
langue et à son histoire sociale. De plus,
l'Académie publie la revue interne *Euskera*
et la revue culturelle *Ereia*. Elle gère aussi la

Biblioteka eta Artxiboa kudeatzeaz ere arduratzen da, besteak beste.

Euskaltzaindiak euskararen arautuntzan eta normalizazioan egiten duen lana oinarritzat eta funtsezkoa da hizkuntzaren garapenerako.

Euskaltzaindia lege izaera berezia duen erakundea da. Erakunde aholku-emalle ofiziala da, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herrirako Autonomia Estatuarena, 6.4. artikulua), bai Nafarroako Foru Komunitatean (18/1986 Euskarari buruzko Foru Legea, 3.3. artikulua) eta bere finantzaketa Euskadi eta Nafarroa autonomia erkidegoetako eta estatuko funts publikoetatik eskuratzen du. Euskal elkargoaren lurraldeari doakionez, Baionan 1987. urtean elkarte gisa sortu zen Euskaltzaindia. Frantziako Estatuak onura publikoko erakunde izendatu zuen Euskararen Akademia 1995. urtean.

2017ko urtarilaren 1ean sortua, **Euskal Hirigune Elkargoak** euskararen aldeko hizkuntza politikaren eskumena hartu zuen 2017ko otsailaren 4an. Ipar Euskal Herrian euskararen biziberritzeko xedez, bi mailatan jarduteko engaiamendua hartu zuen: batetik, haren hizkuntza politika propioa definituz eta garatuz eta, bestetik, EEPren baitan hizkuntza politika partekatua sustatuz. Frantziako Estatuak, Akitania Berriko Eskualdea, eta Pirinio Atlantikokoetako Departamenduarekin batean.

2018ko ekainaren 23an, Elkartoko kontseiluak bozkatu euskararen aldeko hizkuntza politikaren baitan, euskal elkargoa engailatzen da, euskal hiztun osoen sortzeko beharrezkoak diren baldintzen antolatzea, herri blokearen eskumenak jorratuz. Horretarako, herri blokeak kudeatzen dituen zerbitzu publikoetan eskaintza elebidun baten antolatzen ariko da, Iparraldeko biztanleek, etxetik hurbil eta egunerokoan euskara transmititzeko eta erabiltzeko aukerak ukan ditzaten. Eta aldi berean gizartearen etengabe informatu eta sentibilizatzeko du, zer euskarazko eskaintza duen eskura jakin dezan jendeak, zerbitzu hauek erabil ditzan, oro har Iparraldeko bizitza eremu guztietan euskararen inguruko dinamiken sustatzeko xedez. Helburu horren

Bibliothèque et Archives Azkue.

Euskaltzaindia travaille à l'établissement de règles et à la normalisation de la langue basque, essentiels et indispensables pour le développement de la langue.

Euskaltzaindia est une institution à statut légal particulier. Dans la Communauté Autonome d'Euskadi (article 6.4 de la Loi Organique 3/1979 concernant le Statut d'autonomie du Pays Basque) et dans la Communauté Forale de Navarre (article 3.3. de la loi forale sur la langue basque 18/1986), elle a officiellement une mission de conseil linguistique en ce qui concerne la langue basque. Elle est financée par les fonds publics des communautés autonomes d'Euskadi et de Navarre et de l'État espagnol. Sur le périmètre de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, Euskaltzaindia a été créée à Bayonne sous forme associative en 1987. En 1995, elle a été déclarée d'utilité publique par l'État français.

Créée le 1^{er} janvier 2017, la **Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB)**, a pris la compétence de la politique linguistique en faveur de la langue basque par délibération du 4 février 2017. Dans l'objectif de revitaliser la langue basque, elle s'est engagée à deux niveaux : d'une part, dans la définition et le développement de sa propre politique linguistique et, d'autre part, dans le développement d'une politique linguistique partagée au sein de l'OPLB en collaboration avec l'État, la Région et le Département.

Le 23 juin 2018, le Conseil communautaire a adopté la politique linguistique en faveur de la langue basque. La CAPB s'y engage à mobiliser les compétences du bloc communal et réunir les conditions obligatoires à l'émergence de locuteurs complets. Elle va structurer une offre bilingue dans les services à la population proposés par le bloc communal, afin que les habitants qui le souhaitent puissent utiliser et transmettre la langue basque au quotidien dans un contexte de proximité. La CAPB mènera en parallèle une action d'information et de sensibilisation permanente en direction des habitants du territoire, pour les amener à connaître et utiliser ces services, encourager l'adhésion de la population et le

lortzeko, hogeita bat jarduera eremu begiztatu ditu Euskal Elkargoak, herri blokearen eskumenetan sartzen direnak, eta euskararen transmisio eta erabileran eragin dezaketanak.

Aldi berean, Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Elkargoa beren arteko lanen partekatzearen argitzean ari izan dira, osagarritasunean lan egiteko xedez, eta batez ere doblezka aritzeko arriskuak baztertzeko. EEPk eta Euskaltzaindiak lankidetzatza hitzarmen bat badute 2008tik izenpetua, 2014an eta 2017an berritua, 2022ra arte. Horrela, Euskaltzaindiari diru-laguntza urte guztiez eman dio Euskararen Erakunde Publikoak, batetik, euskararen Akademia bere jarduerak burutzen laguntzeko eta, bestetik, urteko eranskinean zehaztutako lan bereziak obratzeko: Euskaltzaindiaren lanaren argitaratzea, EEPren proiektu deialdian lagundu argitalpen proiektuen euskara kalitatea segurtatzea, toponimoen grafia egokiari buruz aholku ematea, Ikas pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena egitea, etab.

Euskal Hirigune Elkargoaren iritziz Euskaltzaindiaren proiektuek interes publiko nabarmena dutenez eta Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntzaren alorrean dituen asmoekin bat egiten dutenez, bi aldeek, bakoitzak ezarritik dituen prozedurakbetez,

développement des dynamiques bascophones à l'échelle des bassins de vie. 21 domaines d'intervention relevant des compétences du bloc communal ont été repérés comme stratégiques pour la mise en œuvre de la politique linguistique de la CAPB.

En parallèle, l'OPLB et la CAPB veilleront à articuler leurs actions et initiatives de manière complémentaire, dans un souci permanent d'efficacité, de cohérence, de lisibilité et de respect des prérogatives de chacun. L'OPLB et Euskaltzaindia ont signé une convention de partenariat en 2008, renouvelée en 2014 et 2017, jusqu'en 2022. Ainsi, chaque année, l'OPLB aide financièrement Euskaltzaindia pour, d'une part, accompagner l'Académie dans ses activités, et, d'autre part, mettre en œuvre les travaux spécifiques précisés dans l'avenant annuel : la publication des travaux réalisés par Euskaltzaindia, la qualité de la langue des projets éditoriaux soutenus dans le cadre de l'appel à projet de l'OPLB, la fixation de la graphie des toponymes, la validation de la qualité de la langue pour les publications du centre pédagogique Ikas, etc.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque reconnaît que les projets d'Euskaltzaindia sont d'utilité publique et qu'ils participent aux objectifs fixés dans le cadre de la politique linguistique de la CAPB. Ainsi, dans le respect des procédures fixées par chaque partie,

HITZARTZEN DUTE

IL EST CONVENU CE QUI SUIT :

LEHENENGOA. Euskal Hirigune Elkargoak Euskaltzaindiari aitortza.

Euskal Hirigune Elkargoak aitortzen du euskaraz denaz bezainbatean, ipar Euskal Herrian Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

BIGARRENA. Euskaltzaindia eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko elkar-aditzea.

Euskal Hirigune Elkargoak bere hizkuntza politikaren obratzearan inguruan elkar-aditze

ARTICLE 1^{er}. La reconnaissance d'Euskaltzaindia par la CAPB.

La CAPB reconnaît Euskaltzaindia comme l'institution consultative officielle qui établit les normes linguistiques de la langue basque.

ARTICLE 2. La concertation entre Euskaltzaindia et la CAPB.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque mettra en place un dispositif de

egitura bat sortuko du. Euskaltzaindiak egitura horretan parte hartuko du, eta hizkuntza politikaren inguruko gogoetak elikatuko ditu, proposamenak eta ekarpenak eginez, euskararen aurrerapena aintzat hartuta.

HIRUGARRENA.- Elkarlanaren nondik-norakoa.

Bi erakundeen arteko elkarlana euskararen, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Bereziki:

- Euskal elkargoa eta Euskaltzaindia partaidetzan ariko dira lanean, Euskaltzaindia eta bere lana Ipar Euskal Herrian ezagutarazteko, mendeurrenaren kariatara,
- Onomastika alorrean Euskal Hirigune Elkargoak dituen eta jasotzen dituen zalantzak EEPri helaraziko dizkio eta honek, Euskaltzaindiari bideratuko dizkio EEP eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenak toponimoen grafiari buruz finkatua duenari jarraituz, Akademiak hizkuntza aholkularitza eman diezaiola. Guztia datu-base batean arxivatuko da Euskaltzaindian, gerora berriro kontsultatu ahal izateko eta datu-basea aberasten joateko.

LAUGARRENA.- Euskaltzaindiak emaniko arauak, gomendioak eta irizpenak jarraitzeko engaiamendua.

Euskal Hirigune Elkargoak eguneroko jardunean sortzen dituen materialetan, bai eta antolatzen dituen ikastaro, jardunaldi, mintegi, aholkularitza-zerbitzu, aurkezpen eta euskararen sorkuntzarekin, zabalkundearekin, prestakuntzarekin zein erabilerekin loturiko egitasmoetan ere, Euskaltzaindiaren gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabilari buruzko irizpideak aintzat hartu eta hauek zabaltzeko moduak landuko ditu.

BOSGARRENA.- Sortzen diren hutsuneen eta beharren bideratzea.

Hizkuntzaren kalitatearen alloan sortzen

concertation avec les opérateurs linguistiques. Euskaltzaindia participera à ce dispositif de concertation. Elle prendra part aux réflexions sur le sujet, elle fera des contributions et des propositions, en prenant toujours en considération l'objectif de développement de la langue.

ARTICLE 3.- La nature du partenariat.

La convention de partenariat entre les deux institutions se concrétisera autour des projets soutenant, la promotion, le développement et la diffusion de la langue basque, à savoir :

- Dans le cadre du centenaire d'Euskaltzaindia, la CAPB et Euskaltzaindia oeuvreront ensemble à faire connaître cette institution ainsi que son action,
- La CAPB communiquera ses demandes de validation en matière d'onomastique à l'OPLB. Ce dernier les transmettra ensuite à Euskaltzaindia. L'Académie fera part de ses conseils, selon la procédure fixée par la convention de partenariat entre l'OPLB et Euskaltzaindia concernant la graphie des toponymes. Euskaltzaindia archivera ces conseils dans une base de données, qui pourra plus tard être consultée et améliorée.

ARTICLE 4.- L'engagement à respecter les normes, conseils et opinions exprimés par Euskaltzaindia.

La CAPB s'engage à tenir compte des normes, conseils et opinions exprimés par Euskaltzaindia en matière d'usage grammatical, lexical, orthographique, onomastique et dialectique de la langue dans les outils qu'elle crée et qu'elle organise au quotidien (stages, entretiens, séminaires, services de conseils, présentations) et qui ont un lien avec la création, la promotion, le développement et la diffusion de la langue basque. Elle mettra en place les moyens de diffusion de ces normes, conseils et opinions.

ARTICLE 5.- La communication des carences et besoins

diren hutsune eta beharrak jaso eta EEPri jakinarazteko engaiamendua hartzen du Euskal Hirigune Elkargoak, honek Euskaltzaindiari helaraz diezazkion.

SEIGARRENA.- Argitalpenak trukatzeko engaiamendua.

Sinatzaileek publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko engaiamendua hartzen dute.

ZAZPIGARRENA.- Informazioaren partekatzea partekatzea.

Sinatzaileek euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko engaiamendua hartzen dute.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena.

Aipatutakoak betetzeko, Euskaltzaindiak eta Euskal Hirigune Elkargoak Jarraipen Batzordea osatuko dute; batzorde horrek erakunde bakoitzetik gutxienez bina kide izango ditu. Jarraipen Batzordea urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez; hasieran, urteko plangintza planifikatzeko; eta amaieran, urteko balantzea egiteko. Behar izanez gero, Jarraipen Batzordeak bestelako bilerak ere egin ditzake; horretarako nahikoa izango da aldeetako batek eskatzea

BEDERATZIGARRENA Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2019ko abenduaren 31 arteko iraupena du.

Urte guzietan, aitzineko artikuluetan finkatu lankidetzaren ardatzak oinarritzat harturik eta bi erakundeek elkarren artean adostu lehentasunetatik abiatu, lankidetzaren nondik norakoak, eta mobilizatu baliabideak zehaztuko dira eranskin batean.

2018. urtean lankidetzan garatuko dituzten egitasmoak, bai eta baliabideak ere dokumentu honen I. eranskinean jaso dira.

La CAPB s'engage à recueillir les carences et besoins relevés en matière de qualité de la langue et à les communiquer à l'OPLB. L'OPLB les transmettra ensuite à Euskaltzaindia.

ARTICLE 6.- L'engagement relatif à l'échange des publications.

Les signataires de la présente convention s'engagent à se transmettre leurs publications respectives.

ARTICLE 7.- Le partage d'information.

Les signataires s'engagent à partager l'information relative à leurs projets de recherche, de promotion, de divulgation, de sensibilisation, de connaissance et d'usage de la langue basque.

ARTICLE 8.- Le suivi de la convention.

Afin de respecter leurs engagements, Euskaltzaindia et la CAPB vont constituer un comité de suivi. Ce comité sera composé au minimum de deux membres de chaque institution. Le comité de suivi se réunira au moins deux fois par an; en début d'année, pour planifier l'année, puis, en fin d'année, pour dresser le bilan de l'année écoulée. En cas de besoin, le comité de suivi pourra organiser d'autres réunions. Il suffira pour cela qu'une des deux parties en fasse la demande.

ARTICLE 9.- La durée de la convention.

La présente convention est conclue pour une période allant jusqu'au 31 décembre 2019.

Chaque année, sur la base des axes de partenariat fixés dans les articles précédents et des priorités convenues entre les deux parties, les modalités pratiques du partenariat et les moyens à mobiliser seront précisés dans le cadre d'une annexe annuelle.

Pour l'année 2018, les projets à mettre en œuvre et les moyens à mobiliser sont

présentés en annexe I du présent document.

HAMARGARRENA. - Hitzarmenaren irautgitzeta.

ARTICLE 10. - L'annulation de la convention.

Alderdi batetik batek bere gain hartutako engatamenduak ez betetzeak beste alderdiari ahalmena ematen dio zorrotz bete ditzala galdegileko edo hitzarmen hau indarrik gabe gera dadila eskatzeko.

Dans le cas où l'une des parties ne remplit pas ses engagements, l'autre partie pourra lui en faire la demande expresse ou pourra demander l'annulation de la présente convention.

HAMAIKAGARRENA. - Eztabaiden ebazpena.

ARTICLE 11. - Contentieux.

Hitzarmen honen interpretazioan, aplikazioan eta eraginetan sor litezkeen aldeak edo eztabaidak ebazteko gaitasuna administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ordenari dagokio.

Les parties conviennent que tout litige pouvant naître de l'interprétation, l'exécution et des conséquences de la présente convention sera déféré auprès du Tribunal Administratif.


Baionan egina 2018ko irailaren 13an,
jatorrizko bi aletan.

Fait à Bayonne le 13 septembre
2018, en deux exemplaires
originaux.

**EUSKALTZAINDIAREN BURUA
LE PRÉSIDENT D'EUSKALTZAINDIA**


Andres URRUTIA

**LE PRÉSIDENT DE LA COMMUNAUTE
D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE
EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO
LEHENDAKARIA**


Jean-René ETCHEGARAY



I. ERANSKINA :

Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, 2018. urtean zehar egingo diren lanak:

1. 2018ko irailean, Ipar Euskal Herritik Euskararen Batasunari eginiko ekarpena aztertuko duen jardunaldia.
2. 2018ko urrian, Euskararen Batasunari buruz Arantzazun egingo den nazioarteko Jardunaldia.
3. 2018ko azaro-abenduan, Ipar Euskal Herritik Euskararen Batasunari eginiko ekarpena gizarteratzeko erakusketa.

Ekintza horiek burutzeko, Euskal Hirigune Elkargoak 20 000 €ko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari.

Honek, ekarpen hori justifikatu behar izango du, Euskal Hirigune Elkargoari igoriz gorago zerrendatu proiektuentzat bilduma idatzia eta kontu emaitza.

ANNEXE I :

Les projets qui seront développés en 2018, dans le cadre du centenaire d'Euskaltzaindia.

1. En septembre 2018, organisation d'un séminaire qui traitera des travaux réalisés au Pays Basque Nord, et ayant contribué au processus d'unification de la langue basque.
2. En octobre 2018, organisation d'un séminaire international à Arantzazu, portant sur le basque unifié.
3. En novembre-décembre 2018, organisation d'une exposition au Musée Basque retraçant l'importance des travaux réalisés en Pays Basque Nord dans le processus d'unification de la langue basque.

La CAPB financera Euskaltzaindia à hauteur de 20 000 €.

Cette dernière devra justifier de cette contribution à la Communauté d'Agglomération Pays, en produisant un bilan et un compte de résultat des actions présentées ci-avant.

Euskaltzaindiak 2018. urtean hainbat lankidetzaz hitzarmen sinatu ditu

Accusé de réception

Nom de l'entité publique	Communauté d'agglomération Pays basque
Numéro de l'acte	CP2018_278A
Nature de l'acte	CC - Contrats, conventions et avenants
Classification de l'acte	7.5.2 - Subventions attribuées aux associations
Objet de l'acte	OJ N° 30. Convention de partenariat avec l'association Euskaltzaindia, Académie de la Langue Basque et attribution de subvention. Convention signée.
Statut de la transmission	8 - Reçu par Contrôle de légalité
Identifiant unique de télétransmission	064-200067106-20180717-CP2018_278A-CC
Date de transmission de l'acte	24/09/2018
Date de réception de l'accusé de réception	24/09/2018

Berriak

2018ko albisteen kronika

Euskaltzaindiak berri ugari sortzen du urtean zehar. Horien guztien kronikak *Plazaberri* aldizkari digitalean argitaratzen dira. Halaber, ekitaldi esanguratsuenak Akademiaren webgunean argitaratzen den *Oroitidazkian* jasotzen dira. Beraz, *Euskera* agerkariko atal honetan, aldizkariaren arduradunei azpimarragarrienak iruditutako albisteak hautatu dira.

Euskaltzaindiak Hiztegiaren 446 sarrera berrikusi ditu eta, lan horretan, generoberdintasuna oso kontuan izan du

Asko eta asko izan dira hilabeteotan *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an landutako gaiak, baina arreta berezia jarri zaio generoberdintasunaren kontuari. Guztira, 446 forma begiratu eta zuzendu dira, eta 31 forma berri -sarrerak eta azpisarrerak- gehitu zaizkio. Izan ere, lehenengo itzulitik zetozen sarrerak dira gehienak, eta, gizartea aldatuz doan bezala, forma horien definizioak ere aldatu egin dira.

Horiek horrela, familia-harremanetako gaurko errealitatera moldatu dira hainbat definizio. Adibidez: *aitaginarreba*, lehen “senarraren aita emaztearentzat, edo emaztearena senarrarentzat” definitzen zena, oraingo proposamenean “ezkontideetako baten aita beste ezkontidearentzat” gisa jaso da; edo *errain*, lehen “semearen emaztea” zen, baina orain “semearen edo alabaren emaztea” gisa jasotzea proposatu da, gizarte-ereduaren aldaketa hiztegiara ekarrita.

Halako hainbat egokitzapen egin dira familia-loturen aldetik, baina, horiekin batera, dinastia-kontuetan ere egin dira aldaketa-proposamenak. Esaterako, *infanta* “erregearen alaba, erreginagaia ez dena” gisa zegoena, “monarka baten alaba, erreginagaia ez dena” definitzea proposatzen da orain.

Miriam Urkia eta Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso berriak

Euskaltzaindiak euskaltzain berriak izendatu zituen otsailean, Iruñean egin zen Osoko bilkuran. Euskaltzain osoek bozketa egin zuten Patxi Uribarren eta Joan Mari Torrealdai emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsuneak betetzeko, eta Miriam Urkiak eta Roberto González de Viñasprek lortu zuten Euskaltzaindiaren Arautegiak eskatzen duen gehiengo osoa.

Roberto González de Viñaspre Gonzalo (Bilbo, 1961). Bilbotarra jaiotzez, Araban -Trebiñun- bizi izan da gaztetatik. Euskal Filologiako lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea) eta Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa, Hizkuntza Normalkuntzaren alorrean. Euskaltzain urgazle izendatua 2015ean, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria da eta Onomastika batzordearen buru 2018ko urtariletik aurrera. Arabako toponimia historikoa da gehien landu duen ikerketa esparrua, eta arreta bereziarekin aztertu du Trebiñukoa.

Joan Mari Torrealdai euskaltzain emerituaren lekua beteko duen euskaltzain osoaren profil laburra:

Miriam Urkia Gonzalez (Donostia, 1965) Euskal Filologiako doktorea (EHU, 1997). Aurretik Euskal Filologiako lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea, 1988). Lexikografia, corpusgintza, morfologia konputazionala eta hizkuntza-teknologiak dira bere lan-esparruak. UZEIko langilea 1983tik, Lexikografia saileko zuzendaria da 1992tik eta, teknologiei lotutako lan lexikografikoekin batera, bereziki Euskaltzaindiari lotutako lanetan dihardu. Hiztegi Batuko lantaldeko kide 1999tik eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradun 2013tik. Euskaltzain urgazlea da 2003tik eta Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria 2017tik. Euskararen Aholku Batzordeko kide ere bada 2007tik.

Euskaltzaindiaren Mendeurrena

Euskaltzaindiak Mendeurrenako egitarauaren atal bat aurkeztu zuen Bilboko egoitza nagusian, martxoaren 23an egindako ekitaldian. Halaber, Mendeurrenako izango duen logo berria ere erakutsi zen. Aukeran dantza taldeko kideak izan zituen bidelagun agerpenean, eta Mendeurrenako ospakizunen asmo eta helburuak ere aletu ziren.

Guztira, bederatzi izango dira Akademiak antolatuko dituen nazioarteko kongresuak, 2018ko irailean hasi eta 2019ko iraila bitartean egingo direnak. Euskararen

lurralde guztietan egingo dira, Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde eta egitasmo guztien parte hartzearekin. Halaber, Akademiaren jardun eremu eta aztergai guztiak jorratuko dira kongresuotan.

Agerpenean parte hartu zuten Andres Urrutia euskaltzainburuak, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Ibon Usarralde Mendeurreneko batzordeko bateratzaileak.

Jardunaldi akademiko guztien zerrenda (2018koak zehaztasun handiagoz aurkeztu dira):

1. gaia: Euskararen batasunari Ipar Euskal Herritik egindako ekarpena. Jardunaldia eta erakusketa.

Non: Baionan.

Noiz: 2018ko irailean.

Helburuak:

- 60ko hamarkadaren hasieran hainbat bilkura egin ziren euskara batuaren oinarriak lantzeko, horietako batzuk Baionan. Bilkura horien ekarpen nagusiak azpimarratzea.

- Aurrera begira, Ipar Euskal Herritik begiratuta, euskara batuan dituen erronkak identifikatzea.

2. gaia: Euskararen batasuna.

Non: Arantzazun.

Noiz: 2018ko urrian.

Helburuak:

- Egindako bidea azaltzea.

- Gizartea batasunaren garrantziaz ohartaraztea.

- Egungoaz gogoeta egitea.

- Eginkizun dagoena definitzea.

3. gaia: Hizkuntza eskubideak.

Non: Iruñean.

Noiz: 2019ko urtarrilean.

4. gaia: Ahoskera.

Non: Gasteizen.

Noiz: 2019ko otsailean.

5. gaia: Dialektologia. Jardunaldia eta erakusketa.

Non: Bilbon.

Noiz: 2019ko martxoan.

6. gaia: Literatura.

Non: Bilbon.

Noiz: 2019ko maiatzean.

7. gaia: Onomastika.

Non: Gasteizen.

Noiz: 2019ko ekainean.

8. gaia: Gramatika.

Non: Donostian.

Noiz: 2019ko uztailan.

9. gaia: Teknologia berriak eta euskara.

Non: Donostian.

Noiz: 2019ko irailean.

Uztaileko Osoko bilkura profitatu dute Akademiak Ohorezko Patronatuaren eraketa egiteko, eta Galiziako Errege Akademia, Ikerketa Katalanen Institutua (Institut d'Estudis Catalans) eta Espainiako Errege Akademiako ordezkariak gonbidatu ditu Jauregiko Batzarraldi Aretora. Osoko bilkura amaitu ostean egin da ekitaldi nagusia, non hitz egin duten Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, Beñat Arrabit Euskararen Elkargoko lehendakariordeak, Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak, Ramiro Gonzalez Arabako ahaldun nagusiak, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Ohorezko Patronatua osatzen duten erakundeen zerrenda:

Eusko Legebiltzarra
Eusko Jaurlaritza
Nafarroako Parlamentua
Nafarroako Gobernua
Euskal Hirigune Elkargoa
Espainiako Gobernua
Arabako Foru Aldundia
Bizkaiko Foru Aldundia
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel)
Nafarroako Udal Kontzejuen Federazioa (NUKF)
Baionako Herriko Etxea
Bilboko Udala
Donibane Garaziko Herriko Etxea
Donostiako Udala
Gasteizko Udala
Iruñeko Udala
Mauleko Herriko Etxea
Galiziako Errege Akademia
Ikerketa Katalanen Institutua (Institut d'Estudis Catalans)
Espainiako Errege Akademia

Horrekin batera, mendeurrenako ekarpen artistiko kultural gisa, Euskaltzaindiak bost egitasmo antolatu, sustatu edo babestu ditu, guztiak euskal kulturarekin lotuak. Hainbat talde edo konpainiarekin elkarlanean egin dira proiektuak, mendeurrenak irauten duen bitartean plazaratu direnak.

Egitasmoak: *Ghero* antzezlan (Tartean Teatroa antzerki taldearekin); *Biz Hitza* ikuskizuna (Aukeran dantza konpainiarekin); *Mende berria kantuz* ikuskizuna (Bilboko Koral Elkartearekin -Euskeria abesbatza-); *Astelehen–Astearte Buruzuriak* kontzer-

tu zikloak eta *Euskal literatura zaharrari buruzko hitzaldia Martuteneko kartzelan ikuskizuna* (Bernardo Atxaga – Jose Cruz Gurrutxaga).

Euskaltzaindiak hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu ditu

Apirilean Bilbon egin zen azken Osoko bilkuran, hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen Euskaltzaindiak. Jakina denez eta bere arautegiaren arabera, Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, euskarari egindako mesede bikainengatik nabarmendu direnen artean hautatuak, hain zuzen ere. Ohorezko euskaltzainen azken izendapena 2014ko maiatzaren 30ean egin zen (Donostiako Osoko bilkura batean), eta gaur egun 49 dira (33 + 16 berriak) ohore hori jaso duten gizon eta emakumeak.

Hamaseikoan jatorri eta lanbide desberdinetako pertsonak daude, hezkuntzari, filosofiari, soziolinguistikari, bertsolaritzari, literaturgintzari, hizteigintzari, kan-tagintzari, kazetaritzari, literatur ikerketari edota itzulpengintzari lotuak. Guztira, bost emakumezko eta hamaika gizonezko izendatu dira oraingoan: bost bizkaitar, sei gipuzkoar, bi lapurtar eta baxenabartar, arabar eta nafar bana.

Hau da ohorezko euskaltzain berrien zerrenda: Jose Antonio Adu-riz, Martxel Andrinua, Txaro Arteaga, Maria Jose Azurmendi, Mi-ren Jone Azurza, Henri Duhau, Izaskun Gastesi, Abel Muniategi, Manex Pagola, Jose Maria Rementeria, Sabin Salaberri, Txomin Solabarrieta, Julen Urkiza, Arantxa Urretabizkaia, Pello Zabala eta Auxtin Zamora.

Euskaltzaindiak hamabi euskaltzain urgazle berri izendatu ditu

Euskaltzaindiko batzorde eta lantaldeetan aspalditik lanean ari diren pertsona hauek izendatu ziren euskaltzain urgazle, uztailaren 20an Bilbon egin zen Osoko bilkuran: Andres Alberdi Gorostiaga, Irene Arrarats Lizeaga, Xabier Peritz Mendi-zabal “Euzkitze”, Josu Pikabea Torrano eta Luis Mari Zaldia Etxabe gipuzkoarrak; Jon Aizpurua Espin, Ainhoa Arregi Saratxo, Asier Bidart Meabe, Agurtzane Elor-dui Urkiza eta Gotzon Lobera Revilla bizkaitarrak; eta Ipar Euskal Herriko Céline Mounole Hiriart eta Allande Socarros Estekondo.

Euskal Hirigune Elkargoak Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial izendatu du, euskarari dagozkionetan

Irailean, Euskaltzaindiak eta Euskal Hirigune Elkargoak hitzarmen garrantzitsua izenpetu dute, Baionan. Euskaltzaindiaren egitasmoei interes publiko nabarmena dutela aitortu du Euskal Hirigune Elkargoak, eta, euskarari dagozkionetan, aholku-emaile ofizial izendatu du Akademia. Elkargoa konpromiso zabaletara engaiatu da: besteak beste, Euskaltzaindiak emaniko arauak, gomendioak eta irizpe-nak jarraitzera, hizkuntzaren kalitatean sortzen diren hutsuneak Euskaltzaindiari jakinaraztera eta elkar-aditze egitura baten sortzera.

Euskararen sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da bi erakundeen arteko elkarlana, bereziki, Akademia Ipar Euskal Herrian ezagutarazteko xedez eta Mendeurrenaren kariatara antolatuko diren ekimenetan. Era berean, Onomastika alorrean dauden zalantzak argitzera eta horren gaineko datu-base bat sortzera konprometitu dira. Ekintza horiek burutzeko 20.000 euroko dirulaguntza jasoko du Euskaltzaindiak. Akordio honek 2019ko abendura arte iraungo du.

Honela, Euskal Herri osoko aitortza instituzionala duen erakunde bakarra da Euskaltzaindia, hiru administrazioetan lortutako hitzarmenei esker (EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian). Euskal Hirigune Elkargoarekin lortu berri duenaz gainera, erakunde aholku-emaile ofiziala da, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, baita Nafarroako Foru Komunitatean ere, eta finantzaketa bi autonomia erkidegoetako nahiz Espainiako estatuko funts publikoetatik eskuratzen du.

Nafarroa Oinez dela eta, Euskaltzaindiak Altsasuko Iñigo Aritza ikastolari bisita egin dio

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Euskaltzaindiak aurten Nafarroa Oinez antolatu duen ikastola bisitatu zuen irailean. Hain zuzen, Akademia Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan izan zen, eta, ikastolako eta Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariekin batera, Altsasuko ikastola osatzen duten lau herrietako ordezkariak izan zituzten zain bertan. Horrela, Altsasu, Urdiain, Ziordia eta Olatzagutiko alkateek eta Sakanako Mankomunitateko lehendakariak harrera egin zieten euskaltzainei.

Ikastola bisitatu eta gero, Olatzagutiko udaletxean izan da Zuzendaritzaren iraileko lan-saioa; bertan, Altsasu, Urdiain, Ziordia eta Olatzagutiko alkateekin elkartu dira euskaltzainak eta arratsalde partean, Urdintarra errotara joan dira.

Europako Ondare jardunaldiak

Urrian eta “Ondarea: Emakumeen emaria” izenburupean, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako 2018ko Ondarearen Europako Jardunaldiak egin dira Bizkaiko hainbat herritan. Lurraldeak ekimen honekin bat egin du eta aurtengoarekin 18 urte bete ditu ataza horretan. Ekimenak ibilbide luzea du European, eta arrakasta aparta lortu du; gaur egun 50 estatuk hartzen dute parte egitasmoan.

Beste behin, Euskaltzaindiak parte hartu du egitasmoan, bi jardunaldi antolatu direla Bilboko egoitzan (16an eta 23an, hain zuzen). Hizkuntzarekin loturiko genero-ikerlanak azertu dira mintegi horietan. Lehenengoan (onomastikaz, hain zuzen), emakumeek toponimian utzitako arrastoaz eta Trentoko kontziliara arte (1545-1563) emakumezkoen izenen erabileraz gogoeta egin da; bigarrenean, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* (EHHA) emakumezkoek izan duten presentzia jorratu da.

Xalbador Eguna

Euskaltzaindia presente izan da urriaren 20an eta 21ean izan diren Xalbador eguneko ekitaldietan. Xalbadorrez gain, Arrosagaray, Alkat eta Mihura bertsolari zengduak gogoratu dira, eta gure artetik joanak diren beste bertsolari eta lagun asko. Bat-bateko bertsolariak ziren hirurak ere, baina gazterik hilak, Xalbador bezalaxe: Arrosagaray, 49 urterekin hil zen; Alkat, 57rekin; eta 67 urte zituela Mihura. Hala ere, herriz herri egindako saioez gainera, idatzita ere bertso-altxor ederra utzita joan ziren: *Bihotz barneko solasak* (Arrosagaray, *Auspoa* 303), *Ene ezkilen dangak*, (Alkat, *Auspoa* 307), eta *Bertsuaren eremua* (Mihura, *Auspoa* 335) dira lekuko, inork jakin nahi balu ere. Azkenengo hau liburuan ere bai oraindik, baina beste biak Euskaltzaindiko eta Koldo Mitxelenako webguneetan ikus eta irakur daitezke, liburuak agortuta daude eta.

Omenaldiak

2018an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Radio Bilbaoren Bikaintasun Saria Euskaltzaindiari

Apirilaren 17an, Bilboko Alondegian (Azkuna Zentroa), Radio Bilbaoren (SER Irrati katea) Euskara ataleko Bikaintasunaren saria jaso du Euskaltzaindiak. Hone-la, ehun urtez Akademiak "euskararen zaintzan eta erabileran egindako lan esker-ga" saritu nahi izan dute Radio Bilbao irratiko arduradunek.

Andres Urrutia euskaltzainburuak jaso du golardoa, baina hitzaldian argi utzi nahi izan du "kolektibo zabal baten izenean" jasotzen duela beste sari hau.

Arabako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman die Eusko Ikaskuntzari eta Euskaltzaindiari

Arabako Foru Aldundiak, 2018ko Arabako Domina eman die Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari, bi erakunde horiek sortu zireneko 100. urteurrenean. Apirilaren 28an, Artium museoan ospatu den ekitaldian, bi erakundeek Araba-ren eta Euskal Herriaren hizkuntza, gizarte eta kultur ondarearen sustatzaile eta eragile moduan egindako "lan itzel eta goresgarria" goraipatu du Ramiro González Arabako diputatu nagusiak. "Eskerrik asko Eusko Ikaskuntza eta eskerrrik asko Euskaltzaindia. Gure hizkuntza eta gure ondare kulturala, soziala, eta historikoa ulertzen eta gordetzen lagundu diguzue. Gure gizartea hazten jarraitzeko bi erakun-de ezinbesteko zarete", azpimarratu du Gonzálezek.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako ordezkari ugari bildu da Artium museoan, euskaltzain oso, urgazle eta Akademiako beste langileekin batera. Andres Urrutia euskaltzainburuak "lanean jarraitzeko beste arrazoi bat" ikusi du aitortza honetan. "Orain dela ehun urte bezala, euskal gizarteari zerbitzatzeko gaude -gogoratu zuen bere hitzaldian Urrutiak-, eta egungo teknologia berriak baliatuko ditugu gure lana gizarteari eskaintzeko, iraganari so egiteak ez baitu etorkizuna konpontzen".

Bilboko Liburu Azokak “Urrezko Domina” Joan Mari Torrealdairi

Joan Mari Torrealdaik jaso du Bilboko Liburu Azokaren 48. edizioko Urrezko Idazluma saria. Andoni Iturbe Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendariaren eta Asier Muniategi Azokako arduradunaren eskutik jaso du golardoa.

Ekitaldi berean, Joxe Mari Sors Elkar-eko kudeatzaileak Torrealdairi ibilbidea aletu du. Ilusio handia egin dio Torrealdairi sari berriak, lumak sinbolizatzen delako urteetako bere lana eta bere jardun intelektuala. "Luma honetan irudikatzen dut euskarari egin zaizkion irain, zigor eta injustizien kontra erabili dudan espiritu kritiko salatzailea. Euskal Herriari jartzen zaizkion traba, zentsura eta politika beltzak aztertu eta agerian jarri nahi izan ditut", esan du agerpenean. Bere azken lanak ('Asedio al euskera' - Txertoa) ere ildo berbera jarraitzen du: "Nire lumarekin gaineratu zuen- saiatu naiz erakusten Euskal Herria, bere txikian, errealitate oso bat dela, unibertso bat, eta euskal kultura aberatsa dela, anitza eta askotarikoa".

Adierazpen askatasunaren defendatzaile sutsua izanik, errealitateari eman dio hitza Torrealdaik, hots, informazio objektiboari eta datuari, sarritan iritzi kontrajarriei ere leku eginez.

Joan Mari Torrealdai (Forua, 1942), Teologian eta Informazio Zientzietan lizentziaduna. Zientzia Politiko eta Soziologian doktorea. Jakin Fundazioaren burua. Euskaltzain urgazle izendatua 1975eko ekainaren 27an eta oso 2007ko azaroaren 30ean. "Bibliografiatik bibliotekara, esperantzari leihoa" izeneko sarrera hitzaldia irakurri zuen Foruan 2009ko urriaren 31n.

Gau Zuriak Euskaltzaindia omendu du

Bilbao 700 Fundazioak kontuan izan du Akademiaren ehun urteko jardun oparora, eta gorazarre berezi bat egin nahi izan dio, zortzi eguzki-lore "landatuz" Euskaltzaindiaren egoitza nagusian (Plaza Barria, 15). Euskaltzaindiarekin batera, Indautxuko eskola ere omendu dute, bere mendeurrenean.

Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Manuel Lekuona saria Maria Jose Azurmendi soziolinguistarentzat

Azurmendi aitzindaria izan da soziolinguistika gaitan, bai eta psikosoziolinguistika deitua izan den jakintza arloa garatzen ere. Nazioarte mailan hizkuntzaren ikerketan egindako zabalkunde lana ere ezaguna dela azpimarratu da. Beasaingo Alkartasuna lizeoko lehen zuzendari emakumea izan zen, baita Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) katedradun izatera iritsi zen lehen emakumeetarikoa ere. 2000. urtean, Soziolinguistika Klusterreko bultzatzaile eta sortzailetako bat izan zen. Euskaltzaindiak 2018ko apirilaren 27an izendatu zuen ohorezko euskaltzain.

Azurmendi Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Ikasketa Unibertsitario eta Teknikoetan aritu zen 13 urtez hainbat ikasgai irakasten, tartean soziolinguistikako gaiak, horretan aitzindaria izan zelarik.

Jarraian, EHUKo Psikologia Fakultatean aritu zen eta zortzi urtez izan zen Psikologia Fakultateko Dekanotzako kidea, Euskara dekanorde gisa. 2011n erretiroa hartu zuen, baina 2014ra arte luzatu zuen bizitza akademikoa, irakasle emeritu gisa arituz.

Quebeceko Laval Unibertsitateko "Centre sur le Bilinguisme"-n irakasle gonbidatua izan zen eta 1980az geroztik zentro horren kidea izan da. Nevada-Renoko Unibertsitatean ere jardun du, irakasle gonbidatu gisa.

Euskaltzaindia eta Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzaina, Euskal Kazetaritza saridunen artean

Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak antolatutako 2018 Euskal Kazetaritza sariak irabazle hauek izan dituzte: Cesar Coca, Carmen Sarmiento, Joxe Mari Iriondo, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta "Doce Miradas" bloga.

EAEko hainbat komunikabideetako ordezkariak osatutako epaimahai batek aukeratu zituen saridunak. Sari-emate ekitaldia azaroaren 7an izan zen, Bilboko BBK Aretoan.

Euskal Kazetarien Elkartek ematen duen Pertsonaia edo Giza Institutzioa saria Euskaltzaindiarentzat eta Eusko Ikaskuntzarentzat izan da, "euskararen kontserbazio eta defentsaren alde egindako aparteko lanagatik eta beren 100. urteurrenagatik". Halaber, Kazetaritza Digitala saria "Doce Miradas" blogarentzat izan da.

Cesar Cocak eskuratu duen Euskal Kazetariak ataleko saria, eta Adierazpen Asкатasunaren José María Portell saria Carmen Sarmiento kazetariarentzat izan da. Azkenik, Ibilbide Profesionalari dagokion saria Joxe Mari Iriondo kazetari eta oho-rezko euskaltzainarentzat izan da, bere ibilbide profesional "bikainagatik".

Euskaltzaindiak Bilboko Hiriko Urrezko Domina jaso du

Bilboko Udalak hiriko Urrezko Domina eman dio Euskaltzaindiari, urriaren 26an egindako ekitaldian, Akademia sortu zeneko ehungarren urteurrena betetzean, udalbatzako alderdi politiko guztiek aho batez hala erabakita.

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak urrezko domina eta diploma entregatu dizkio Euskaltzaindiari, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak jaso ditu haren izenean.

Aitortza handi hau egiteko ekitaldian Bilboko Udaleko zinegotzi guztiak izan dira, bai eta euskaltzain oso eta urgazle ugari ere. Ospakizun osoan zehar, txistularien udal bandak zenbait pieza jo ditu. Gainera, mazolariak eta galazko zaindaria ere izan dira, ekitaldia arrandiaz jantziz.

Demokrazia iritsiz gero, Bilboko Udalak 20 urrezko domina eman ditu. Hona hemen urrezko domina jaso dutenetako batzuk: Deustuko Unibertsitatea, Erruki Etxea, Basurtoko Erietxea, Arte Ederren Museoa, Bilboko Ingeniaritzako Goi-mai-lako Eskola Teknikoa, Bilboko Cocherito Kluba, Athletic Club, Merkataritza Eskola, Bilboko Merkataritza Ganbera edo Bizkaiko Mediki Elkargoa...

Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren III. Ondare saria jaso du

Epaimahaikide izan dira Felipe Juaristi idazlea, Juan Bautista Mendizabal Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko lehendakaria, Rocio Peña arkitektoa, Susana Soto San Telmo Museoko zuzendaria, Maria José Telleria Kultura zuzendaria, eta Gabriela Vives Foru Aldundiko Ondare Historiko-artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzuko burua.

Beraz, epaimahaiak aho batez erabaki du "Euskaltzaindiak betetzen dituela aurtengo edizioko sariaren irabazle izateko ezaugarriak eta berezitasunak, argi eta garbi biltzen baititu proposamenak baloratzerakoan epaimahaiak nabarmendu dituen alderdi horiek guztiak".

Epaimahaiak nabarmendu du erakundearen bizi-luzetasuna eta ibilbidea, eta baliotsi du Euskaltzaindiari saria emateko aukera bere sorreraren mendeurrena eta euskara batuaren 50. urteurrena betetzen denean. Hain zuzen ere, euskara batua gizartearen arlo guztietan aitortzen eta partekatzen den ondarea da, erakundeak euskara zaindu, ikertu eta bultzatzeko egindako lanari esker; lehen mailako ondare immateriala eta gure kultura identitatearen funtsezko adierazpena. Enfasia egin dute, baita ere, "erakundeak ondasun hau biziberritzeko izan duen gaitasunean, eta euskararen zabalkundeak eta erabilerak gure gizartean izan duen eraginean eta sortu duen eraldaketa kulturallean".

Ondare saria 2009an sortu zen eta bitan bakarrik eman da Euskaltzaindiak hirugarrena jaso duen arte: 2009an, Fermin Leizaolari, bere ibilbideagatik eta abian jartzen ari zen Gordailua proiektuarekin zuen loturagatik, eta 2011n, Juan Garmendia etnografo eta historialariari, ohiko kulturaren alderdiak eta moduak biltzeko, sailkatzeko eta zabaltzeko ikuspegiagatik, egindako landa-lan eta artxibo lanagatik, eta bere lana sozializatzeko eskuzabaltasunagatik.

Sari-emate ekitaldia azaroaren 16an izan da.

Euskaltzaindiak Ortzadar Saria jaso du

Abenduaren 17an, Noticias Taldearen 2018 Ortzadar saria jaso du Euskaltzaindiak. Kike Hermosilla Iparragirre argitaletxeko merkataritza zuzendariak eman dio saria Andres Urrutia euskaltzainburuari, Akademiaren Bilboko egoitzan.

Hilberri-txostenak

Junes Casenave-Harigileren hilberri txostena (1924-2017)

DAVANT, Jean-Louis
Euskaltzain emeritua

Aita Junes Casenave Harigile joan berri zaigu: azken irailean zendu da laurogeita hamalau urteak ongi beterik. Euskaltzain urgazlea zen hogeigarren mendeko laurogeita bigarrenetik, ohorezko euskaltzaina bi milagarrenetik. Euskal literaturan obra erraldoia eraiki du, eta letretarik at ere nabarmendu da, bereziki sendagile lanetan. Beraz, aipamen hau merezi du handizki, eta gehiago ere naski.

Zuberoa Basaburuko Urdatx / Santa Grazi udalerrian jaio zen mila bederatziehun eta hogeita lauko apirilaren lauan, Bearnoko Betharramen munduko bizia utzi du, beraz, bi mila eta hemezortziko irailaren hogeita hiruan.

Aita Bearnotik Urdatx / Santa Grazira oihanzain etorria, ama bertakoa: Junesek bi hizkuntzak ikasi zituen goizik. Hamar urteetan Betharrameko kolegioan ikasle sartu zen, San Mixel Garikoitzek eraikiriko apez anaidiaren babesean, eta gero horren ordenan apeztea erabaki zuen. Denborarekin Bethleemen apez eginen dute anaidiak Palestinako hiri horretan zeukan etxean, mila bederatzi ehun eta berrogeita zortzian zuzen, Israelgo Estatua sortu zen urtean.

Europara itzulirik, hogeita hamaika urtez letretan irakasle lanetan jardungo du, lehenik Betharramen, gero Frantzia behe horretako Limoges hirian, azkenik hamazazpi urtez Donapaleun, Etchecopar kolegio katolikoan. Ber denboran horko zuzendaria izango da, eta beste lan guztien artetik, eskolako eraikina osoki berrituko du.

Irakasle ohi batzuen oroitzapenak jaso ditut horien ahotik edo lumatik: oroitzapen bereziak, guztiz onak, irakasle zinez atipikoa zela goraipatuz: espiritu irekia, gai guziei zabalik, denez kurios Iparraldean diogun bezala. Ikasleei maite zituzten istorio eta ipuin zoragarriak kontatzen zizkien, haatik ez fantasiakzkoak, ongi doku-

mentatuak baino. Gainera erlaxatzeko teknikak aplikatzen eta irakasten zizkien, yogatik hartuak, yogazalea baitzen bere buruarekiko ere. Ikasleentzat ohiz kanpoko apeza eta irakaslea zen hartu dizkiedan hitzetan, oso gozoa, alaia, kantatzea maite zuena, zoriona arnasten eta hedatzen zuena.

Mendeko laurogeita batean Baionako apezpikuak Basaburura izendatu zuen parroketako apez lanerako. Lehenik Larrainen egon zen hamabi urtez, eta gero Altzain hamazazpi urtez, Basaburuko parrokia zabaletan denen zerbitzari.

Arimez bezala espirituez arta hartzen zuen kultura bidez, baita gorputzez bere botikei esker: sendagilea zen bere gisan, edo botikaria, edo belagilea zentzurik onenean, ezen landarez gantzu bereziak egiten zituen larruazaleko gaitz eta minen aurka, artatu dituenek diotenez egiazki erremedio eraginkorrak asmatuz. Eta bere heinean errezeta bereziak Heren Mundura hedatu zituen apez lagun misiolari batzuen arartez eta bitartez.

Bi mila eta hamarrean Donapaleura itzuli zen, betharramdar apezan etxera, hor anaidi txiki bat osatzen baitzuten Amikuzeko parrokien zerbitzuko. Aita Junesek lan horretan parte hartzen zuen bere ahalen arabera, adina bizkarrean Iparraldean diogun bezala.

Ongi zahartu da, bai gorputzez, bai espirituz, kasik bururaino erne iraunez, karrikan ibiliz eta olerkiak idatziz azken-azken hilabeteetaraino. Eroriko bat eginik, ebakuntza bat egin zioten, hor ahuldu zen. Betharramera erretiraturik anaidiko zaharren arta etxera, han ez du luzaz iraun. Irailaren 26an hileta hunkigarriak eduki ditu, euskaldunok ohorezki parte hartuz, eta meztatik landa euskaltzain bezala hitzaldi labur baten egitera deitua ninduen alde z aurretik Aita Baxo anaidiko buruak, bera Donaixti-Ibarrekoa San Mixel Garikoitz bezala. Duda gabe hori zen Aita Junesek berak nahi zuena: bizia Betharramen uztea eta bertako lurrean pausatzea, gain batean, anaidiko apezan hilerrian.

Askori bitxi idurituko zaie euskaltzale handi batek Euskal Herritik bazter hola bukatzea bere hautuz, Bearnoko lurraldean, Bigorrako mugan. Haatik aitaren aberrian dago, eta bortu maitearen oinez ala bizkarrez hurbil daude amaren Urdatz / Santa Grazi eta Zuberoa. Gainera Junesek ongi daki euskaldun eta gaskoiak haurride hurbilak garela, akitaniar zaharren eta baskoien ondoko bizkiak, berantean hizkuntzez bereziak, gaskoiek euskaldunok baino latin gehiago irentsi zutelako, baskoien mintzotik aldenduz: beraz Betharramen ez dago erbestean Junes gurea, arbasoen lurrean baino, eta bakean pausa dadila.

Junes idazle polifazetiko

Harrigarriko langilea izan da euskararen alde, baita euskal literaturako sail gehientsuenetan. «Trajeria» delako pastoralari egin dion ekarpena bereziki azpimarratu behar dut, maila gora bat eman baitio bere zorrotasun eta zehaztasunez: historiaren errespetua lehentze; euskara aratz, aberats eta jakintsu bat; neurtitzetan silaben kopuru finkoa (8/8) eta maiz ohiko asonantziaren ordezkio egiazko errima, ahal oroz aberatsa; literaturako balio kultuak... Toribio Altzaga saria, antzerkiko gorena, bi aldiz lortu du: 1982an (*Pette Basabürü*) eta 1992an (*Agota*). Beste literatura saririk irabazi du olerkian eta ipuinean ere. Gainera luzaz irakasten ari izan da Zuberoako gau eskoletan, AEK elkartearen baitan.

Junesen «trajeria»/pastoralak:

- 1 – *Santa Grazi*, 1976, Urdatx / Santa Graziko herritarrek, lehenik bi aldiz herrian, ohi bezala, gero Donapaleun etab.
- 2 – *Ibañeta*, 1978, arbailarrek Garindainen, Auritzen.
- 3 – *Pette Basabürü*, 1982, Pagolak.
- 4 – *Zumalakarregi*, 1989, Altzai-Lakarrik.
- 5 – *Santa Kruz*, 1992, Urdatx / Santa Grazik.
- 6 – *San Mixel Garikoitz*, 1994, Donaixtik (Nafarroa Beherean).
- 7 – *Agota*, 1999, Altzai-Lakarrik.
- 8 – *Jesüs*, 2006, Maule-Lextarren, Saint François (d'Assise) ikastetxeko ikasleek.
- 9 – *Santa Engrazi*, 2006, Urdatx / Santa Grazik.
- 10 – *Eñaut Elizagarai*, 2000, Gamere-Zihigak.

Gainera frantsesez *Juan Martin Pueyredon, Pastorale de Lanne en Barétous*, 1997, Landa / Lanne (Bearn). Itzulpena libretoan bearnes / okzitanieraz eta gaztelaniaz. Kantuak bearnesez.

Olerkiak: Oihanealat (1984) eta beste... Olerki berriak bururaino eman ditu Baionako *Maiatz* aldizkarian eta Senperen urtero agertzen den *Hatsaren poesia* liburuan.

Ipuinak: bereziki *Maiatz* aldizkarian, 1989 – *Altzaiko Herensügea* – *Sineste zahar eta ez hain zahar...*

Saioak: *Amikuze* – *Zuberoako antzertia edo pastoralara*, Euskaltzaindiarekin agertua 2011n.

Historiazko idazlanak: *Orhiako Naba*, 1978 (778ko gudukaren historia garaiko idazkien arabera).

Zumalakarregi, gudaiburua (biografia).

Simun Zetegiet (hagiografia).

Itzulpenak: *Egün oroetako irakurgeiak* (Bibliatik) – *Jesüsen Berrihona* (Testamentu Berria).

Artikuluak, gai ezberdinez, aldizkari eta kazeta andana batean.

Hiztegiak: *Dictionnaire français-basque*, *Dictionnaire basque-français* (gehi aditzaren egitura), *Latina-Züberotarra*: azken hau argitaragabea, baina Euskaltzaindiko webgunean erabilgarria.

Gramatika lanak: bereziki *Xiberoan eüskaraz* liburua, Sü Azia, 2001.

Junes Casenave idazleak lan eskerga egin du, autore polifazetiko izan da, obra oparoa utzi digu kalitatezko euskara batean, nagusiki zubereraz, batzuetan behe-nafarreraz, zenbait aldiz baturantz ere joanez: beraz ohorezko tokia baino gehiago merezi zukeen. Kontua da euskararen alde luzaz isilik aritu zela, bereziki Amikuzen. Publikoan franko berant agertu zaigu, hirurogeita hamaseian, Urdatz / Santa Grazin, bere lehendabiziko pastoralarekin.

Zuberoako euskalkiak Euskaltzaindian osoko aulki bakarra du, eta hori aurreko urtean berritua zen, niri tokatuz berrogei urtean, goizik aldarrikatzen hasia baintzen Zuberoako desertuan. Baina Xalbadorrek behin Donostia honetan abestu zuen bezala, errua ez dut nik. Haatik orainokoan inork ez dit txisturik bota. Eta zu, Aita Junes, ikus arte betiereko bortuan, mendi goraz beste paradisuak ezin baitut asmatu euskaldun batentzat, bereziki zu bezalako menditar handi batentzat.

Agur jaunak et(a) andreak, agur (e)t(a) erdi!

Xalbador Garmendiaren hilberri txostena (1932-2018)

OTAEGI, Lourdes
Euskaltzain urgazlea

Sarrera hitzak eta desenkusa

Euskararen inguruko lanetan ibilitakoen artean hain pertsona ezaguna eta estimatua izan zen Xalbador Garmendiaz askok hitz egin dezakete nik baino lehenago eta hobeto. Halere, Euskaltzaindiaren gonbita jasorik, beste edonork adinako zorra nuela pentsatuz, onartu egin nuen hemen eta gaur hitz egitea, Xalbadorri aitormena egiteko hain egokiera aproposik nekez suertatuko zitzaidala iritzita. Barka iezadazue zuen aurrean hitza hartzeko ausardia.

1. Bizitza baten kronika

Xalbador Garmendiaren bizitzaren ibilbide labur batek esango luke Zaldibian sortu zela, 1932ko irailaren 20an eta Anoetan hil 2018ko azaroaren 14an, 86 urte zituela. Ohar biografiko horrek gogoratuko luke, Tolosako sakramentinoetan ikasketak egin ostean, apaiz egin zela eta Erromako Unibertsitatera joan zela Teologiako lizentzia ikastera. Handik itzultzean, Tolosara etorri beharrean, aldi batez Zuberoako Maulen bizi izan zela ere oroituko luke eta, etxeratzeko eragozpenak amaitzean bere lurraldera etorri zela.

Ogibidez, berriz, lanbide askotako profesionala izan zen Xalbador, betiere euskara lan-tresna zuelarik: *Zeruko Argia* aldizkarian zuzentzaile, Eusko Kontseilu Goreneko Itzultzaile eta, geroztik zenbait euskal egunkaritako euskara arduradun izan zen.

Euskaltzain urgazlea ere izan zen. Bere euskara ulerterraz eta dotorea zen ahoz nahiz idatziz. Edonori begitantzen zitzaion egoki eta jator idazten zekien lumaren jabe zela: aho batez aitortu zitzaion hori, eta berez bezala bilakatu zen euskararen eredu modernoaren moldatzaileetariko bat. Hala, 1968ko Arantzazuko euskara

batuaren bileretan aurkeztu ziren bost txostenetako baten egilea izan zen Xalbador Garmendia, zehazki, deklinabideari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Ordurako euskarazko itzulpengintzari lotua zegoen. Donostiako Jarrai antzerki taldeak eskaturik, Albert Camus-en *Les Justes* (1947) euskaratu zuen (Gizon zuzenak, 1967), bai eta Manuel de Pedrolo-ren 1957ko *Homes i no* (Gizonak eta ez, 1969) ere. Hurrengo hamarkadan, ordea, beste ildo bati ekin zion: euskal liburugintzak behar zituen informazio eta eskola liburuen prestatzaile jardun zuen. Besteak beste, T. Zajarovaren *Lurraren kondaira* (1970) itzuli zuen, eta *Izadiaren gauza harrigarriak* (1972). Geroztik Ikastolen Elkartearekin lan egiteari ekin zion testuliburu-etako euskararen arduradun gisa. Halere, literaturaren esparruko itzulpenak egiten ere jarraitu zuen. Hala, St. Exupéry-ren *Printze txikia* (1970) eta Gabriel García Márquez-en *Crónica de una muerte anunciada* (Heriotza iragarritako baten kronika, 1982) euskaratu zituen, eta bien berrargitalpenek eta erabilera zabalek aditzera ematen digute euskal testuen moldatze literarioan esku fin eta estilo zainduaren jabe zela Garmendia.

Euskararen premien neurriko lana eskaini zion Xalbador Garmendiak euskal kulturari, eta agian bere zaletasun eta dohain literarioak garatzeari uko egin zion, zeren, orduan, aurreko lanak zeuden. Arestik esan zuen moduan, orduan,

euskara putzu sakon
eta ilun bat zen.

2. Garmendiaren lekua euskal literaturan

Bere lanen inguruko datu objektiboen irakurketa interpretatiboa egiteko, Garmendia bere garaiko gizon gisa non kokatzen den argitu behar genuke. Joan Mari Torrealdairen *Euskal idazleak*, *gaur-era* joz geroz, “Idazleak historian” atalean kokatzen du Garmendia, eta “gerraondoko hutsunean sortua den hazaldiko belaunaldi-kide gisa” definitzen du (1978, 75). Belaunaldi horretakoak dira, Torrealdairen sailkapenen arabera, adinez gertuko eta euskararen arloko zereginen ugartasunean hurbil izan zituen P. Altuna eta J. L. Alvarez *Txillardeg*i, J. M. Lekuona eta B. Gandiaga, J. M. Aranalde eta D. Amundarain, J. Arenaza eta X. Azurmendi, I. Beobide eta F. Bilbao, G. Aresti eta G. Garate, M. Atxaga eta J. Gaztañaga, M. E. Erdozainzi eta Tx. Peillen, J.M. Satrustegi eta A. Zabala, I. Laspiur eta A. Orbegozo. Belaunaldi gisako bat osatzen dute.

Joxe Azurmendiren hitzak dakartza harira Torrealdaik, esanez, belaunaldi hartakoak ez zirela literatur mugimendu heldu batean jaioak, aitzitik, beraiek izan behar izan zutela bide irekitzaile. Belaunaldi horretako gizonen artean kokatuta, Garmendiak beste guztiek bezala, euskararen langile prestu eta saiatuan artean lehen lerroko tokia du, noski, eta batuaren sorreran bide urratzaile izateko ohorea dagokio.

Literaturaren aldetik, ordea, Txillardegirekin eta Arestirekin ditu Xalbadorrek kidesun gehien. Gabriel Arestirekin batera, euskal antzerkia berritzearen alde egin zuen lan. Eta berritze lan horren erakusgarri nabariena da *Historia triste bat* (1964) antzerki-lana, Jarrai antzerki taldearekin izandako lankidetzaren emaitzarik entzutetsuena. Idoia Gereñu antzerkigintzan doktoreak adierazi bezala, euskal gizarteak aldaketa nabarmena jasan zuen 60ko hamarkadan esparru guztietan:

Antzerkia aldaketa guzti horien isla izan zen. Garaiak eta antzerkirako oraindik bizi zen zaletasunak, bizitza ulertzeko modu berriak eskaini nahi izan zizkion belaunaldi berria osatu zuten gazteei eta Jarrai antzerki taldea aurrekaria izan zen bai antzerkigintzan, bai eta beste arteen eraikuntza berrietan ere. Jarraik eztabaida bultzatu zuen. Euskal teatroak nolakoa behar zuen adosterakoan, euskararen eta euskal gizartearen norabidea markatu zen. Hala, euskal teatro berria definitzeaz gain, itzulpenak garatu eta munduan zeharreko eszenatoki aurreratuenetan eskaintzen ari ziren taula-gaineko obra abangoardistenak euskarara ekarri zituen. Kostunbrismo zaharkitua eta gerra aurreko malenkoniak baztertu eta ikuslego iraultzaile gazteari bide berriak zabaltu zizkion.¹

Gereñuk adierazitakoaren ildo beretik doaz Ibon Sarasolaren usteak ere: “Teatroan, Salbador Garmendiaren *Historia triste bat* obrak aurreko teatroaren krisia ekarri zuela” dioela, eta A. M. Labaien eta Karraskedoren antzerkia atzera utzi zituztela berak eta Arestik, “pentsamolde zaharrari eusten jarraitzen diren idazleak”² gaudituz.

Garmendiaren *Historia triste bat* antzezlanaren oihartzuna Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*-rekin alderatzekoa da, bai eta Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delakorekin* edo Anjel Lertxundiren *Hunik arratsa artean*-ekin.

1 GEREÑU, Idoia, 2016 *Jarrai (1959-1968), hito del teatro vasco de vanguardia./ Jarrai (1959-1968), abangoardiako euskal teatroaren ikur.* [Azken ikustaldia, 2019/02/27]. On-line <https://e-archivo.uc3m.es/handle/10016/23081>

2 SARASOLA, Ibon, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Barcelona, 1971. 91 or..

Lau egileon lehen idazlan horiek guztiak hamarkada berean eman ziren ezagutzero eta une garrantzitsu batean: euskal fikzioaren berrikuntzaren unean, batetik, eta euskara modernoaren moldatze gunean, bestetik.

Ondarroan ospatutako Lore Jokoetan lehen saria irabazi zuen Garmendiaren antzezlan horrek. Antza denez³, ustekabea jaso zuten bertaratutakoek, sariduna idazle zaildu baten, edota Iparraldeko idazle ezagun baten lana izango zela espero baitzuten, eta ez idazle gazte eta ezezagun batena. Garmendiaren hizkuntza eta estilo landuak txunditu zituen epaimahaikideak. Gogora bedi Arestiren *Harri eta herri* argitaratu zen urtea zela, 1964a, euskara batua adostu aurreko epea, Baionako idazle bileraren urte berekoa.

Horregatik, hizkuntzari gagozkiola, azpimarratzekoa da Arestik euskal teatroari egozten zizkion gaitzetako bat, hots, gehiegizko euskalki-aniztasuna ekiditen zuela Garmendiak egindako saioak. Gipuzkeratik abiatuagatik, lapurterara hurbiltzen zen asmo bateratzaileko euskara erabili zuen idazle zaldibiarra. Ezagun da, halaber, egileak euskal klasikoak sakon ezagutzen zituela, izan ere, hizkuntza ulergarria izanagatik, jaso da Garmendiaren idazkera, euskal tradizioko ereduak gogoan dituenena.

Hurrengo urtean, taularatu egin zuen Donostiako Jarrai taldeak bere antzezlan. Ramon Saizarbitoria eta Arantxa Gurmendi protagonisten paperetan zirela, eta Iñaki Beobideren zuzendaritzapean. Ez, ordea, zentsuraren trabarik ezagutu gabe: Donostiako zentsura eklesiastikoak “oso arriskutsu”tzat katalogatu zuen funtzioa eliz atarietan⁴, obraren zenbait alderdi moral katolikotik guztiz urrun zeudela argudiatuz. Aldeko eta kontrako iritziz sutsuak eragin zituen *Historia triste bat* lanak, euskal antzerkigintzara gai eta planteamendu erabat berriak ekarri baitzituen.

Ibon Egañak dioen moduan⁵, Garmendiaren *Historia triste bat*, hein handi batean Arestik euskal antzerki berriari eskatzen zizkion ezaugarriak zekartzen lana zen: batetik, hizkuntzaren batasuna bilatzen zuen, bestetik, antzerki kostunbrista atzera utzi zuen, eta, azkenik, garaiko atzerriko egileen ekarriak bereganatuak zituen.

Gogora dezagun atzerrian azken hamarkadetan egindako teatroa (Ibsen, Camus,

3 BEOBIDE, Iñaki. “Xalbador Garmendiari elkarrizketa”. *Zeruko Argia*. 1965-01-10.

4 LOPEZ ADAN, Emilio. “Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea”. *Uztaro*. 23, 1997. 45-63 or.

5 EGAÑA, Ibon. “*Historia triste bat* (1969). Xalbador Garmendia”. Enciclopedia Auñamendi [en línea], 2019. [2019/02/27]. Disponible en: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/historia-triste-bat-1969-xalbador-garmendia/ar-154463/>

Brecht, Shaw...) euskaratu beharra aldarrikatu zuela Arestik, eta euskal antzerki zintzoarekin apurtzea. Izan ere, Bertolt Brecht-en zale zen Aresti, eta antzerkiaren bidez euskal jendartearen heztearen xede, horretarako batere didaktiko, moralista edo aspergarria ez zen antzerki-eredua proposatu zuelarik, hala nola *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (1961) edo *Justizia txistulari* (1965) komedietan. Antzerki modu horretan euskal herri-antzerkiaren zenbait egitura eredu integratzeko lehen saio interesgarriak burutu zituen, aski modu interesgarrian.

Garmendiaren *Historia triste bat* antzezlan horren ingurukoak gogoratuz, esango dugu 1965eko uztailaren batean jokatu zela estreinakoz, eta ondotik hainbat aldiz antzeztu bazen ere, ez zela argitaratu 1969ra arte, Gabriel Arestik berak Lur argitaletxearen babesean *Euskal elerti 69* bilduman atera zuen arte, alegia.

Bilduma hartan Arestik literatura gazteenaren panorama osoa eskaintzea izan zuen xede: han ziren Juan San Martinen saiakera-testua, Xabier Kintanaren nobela labur bat, Patri Urkizu eta Mikel Azurmendiren ipuin bana, edota Ramon Saizarbitoria eta Mikel Azurmendiren poema-sortak.

Euskal elerti 69 bildumaren hitz-atzean Arestik dioenez, garaiko euskal antzerki berriaren bi erdiguneen arteko “katalizatzailea” izan zen Garmendiaren lana. Batetik, Iñaki Beobide eta Mikel Forkadaren inguruan bildutako Jarrai taldeak atzerriko obren itzulpenak taularatu ohi zituen (Ibsen, Williams, Miller...), eta, bestetik, Arestik berak euskaraz sortutako obrak zeuden; horiez gain, ordea, Ibon Egañak gogorarazten duen moduan, Piarres Lartabalen inguruan Lapurdin garatutako antzerkia ere bazegoen. Denen arteko zubi bilakatu zen Garmendiaren lana. Jarrai bezalako talde dinamikoarekin egiten zuen lan, antzerki idazle modernoak eta euskara eredu jasoa eta literarioa elkartzen jakin zuen Arestiren eta Iparraldeko antzerkiaren ekarpenak elkartuz. Sinergia deitzen diogu horri gaur egun.

Ibon Egañaren iritziz, Garmendiaren idazlanaren ekarpen nagusia ez da gatazka dramatikoaren konplexutasuna, gertaeren harira bilbatzen diren gogoetak eta bizitzaren inguruko hausnarketak baizik. Sakontasun handiko gaiei heldu zien idazlan honetan, gehienak existentzialismotik hurbilekoak: bizitzaren zentzurik eza, Jainkoaren existentziaren ukazioaren ondorio existentzialak, askatasunaren ideal absolutua, idealaren eta materialaren arteko kontrajarpena, suizidioa...

Ez da harritzekoa, beraz, 1960ko hamarkadan iritzi hain kontrajarriak eragitea; halaber, ez da harritzekoa literatur historietan euskal antzerki modernoaren abiapuntutzat hartu izana *Historia triste bat*. Gaien aldetik, Garmendiaren antzezlanak

Txillardegiren eleberrien giro berekoa da eta, bere belaunaldiko beste idazleengan bezala, existentzialismoak beragan izandako eragin sakonaren lekukotza zabalaren ematen digu, pertsonaia nagusiaren barne ezinegonaren adierazpen larriaren bidez.

Laburrean esanik, Xalbador Garmendiaren antzezlanak euskal antzerkiaren modernizatzeko ibilbidearen mugarria da. Gogora bedi *Jarrai* Taldeak hurrena eszenaratu zuen obraren itzultzailea ere bera izan zela, *Gizon zuzenak* eman zion izenburua Albert Camusen *Les Justes*⁶ lanaren euskal itzulpenari, eta idazlan horretan beste gai garrantzitsu bat eztabaidatu zuten protagonistek: tiranoaren aurkako ekintza bihurtuaren zilegitasuna, iraultzarako indarraren erabilera ekar dezakeen deshumanizazioa, indarkeriaren erabilera politikoaren inguruko eztabaida moralak. Hamarkada hartan antzerki arloan izandako albiste eta berrikuntza tematiko nagusien ardatzean kokatu zen Garmendia bi idazlan horien bidez, Gabriel Arestiren lanekin batean.

3. Xalbador pertsona eta lankide

Xalbador Garmendiak eta nik elkar ezagutu genuenerako, antzezlan horiek harrotutako hautsak pausatutako zeuden. Ikastolen Elkarteko proiektu batean egin genuen lan biok buruz buru. Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako euskal literatura irakasteko material informatikoa sortzen ari ginen Gipuzkoako Elkarteko talde bateko kideok, eta Xalbador gure euskal testuen azken orraztua egitera etorri zitzaigun. XX. mende amaiera zen.

Bere antzezlanaren izenburuaz, *Historia triste bat*, behin eta berriro esan dut, eta nahigabe iradoki izango ditudan susmo ilun guztiak gezurtatzen dituen baieztapena egingo dizuet lehenbailehen: Xalbador energia handiko gizona begitandu zitzaidan beti. Ez zen batere tristea! Umore prestu eta adiskidetsukoa azaldu zitzaigun beti elkarrekin lan egin genuen saioetan zehar. Ausartuko banintz, esango nuke Zaldibiako armarrarian ageri diren zaldien kemena eta zaina heredatu zituela Xalbadorrekin, biena batera, alegia!

Bestetik, ez zen Camusen antzerki lanetako *Gizon zuzenak* edo frantseseko *Les Justes* izenburuek iradokitzen duten bezalako *juxtua*, hitzak euskaraz hartzen duen

6 Patri Urkizu apaileturik *Egan* aldizkarian argitaratua (Nº. 3-4, 2017, 225-295 or.).

zorrotz eta estuaren zentzuan. Gure idazlana zuzentzera zetorren, bai, baina akatsak akats, ongi ulertu zituen gure lan hartan hartutako lizentziak, batetik, bazekien eta batuaren aurretiko hainbat testu emateko modua ez dagoela batura ekartzerik gehiegizko estukeriaz, eta bestetik, literaturak, literatura denez, adierazkortasuna lehenesten duela zuzentasunaren aurretik. Lankide oso malgua, literaturazaletasun handikoa zela frogatu zigun.

Lehenagotik ere ezaguna nuen nik Xalbador, 1980-81 ikasturtean zehazki. Ikasle nintzen EUTGn, Euskal Filologia ikasketak amaitzear, eta Euskaltzaindiaren B ikastaroetako irakaslekide suertatu ginen zaldibiarra eta biok. Adin eta maila ezberdintasunak ez dira ahanztekoak, ordea, gero esango dudana ulertzeko, bera euskara gaietan oso jantzia zen, eta gu Filologia ikasle gogotsuak. Hogei urte pasata, gure lanetan zorteak berriro elkartu gintuenean ikastoletarako lan hartan, aitortu behar dut harritu egin ninduela bere aldarre biziak. Gaztetako pasioa eta txera bera jartzen zuen bere eginkizunean!

Gogoan iltzatua dudana elkarriketa baten eszenaz amaitu nahi nuke haren irudikapena. EUTGko B Ikastaroetako larunbat goiz haietako atsedentarte batean, Patxi Altuna eta Xalbador eztabaidan ari ziren, nor baino nor, euskararen bi jakintsu handik bezala. “Aurka” posposizioa zuten auzigai. Xalbadorrek zioenez, XIX. mendeko idazle baten testuetan -Lardizabal aipatu zuela uste dut- *aurkez aurke* aldaera irakurri zuela. Altunak, sinesgogor, “ba ote?” egiten zion, imintzio handiz. Orduan, Xalbadorrek erantzun: “Ni hemen nagoen bezalaxe sinetsi dezakek, hala irakurri nian eta!”.

Kontuak ez du graziarik izango Patxi Altuna edo Xalbador Garmendiaren hitzeko eta gorputz osoko keinuzko espresibotasuna ezagutu ez duenarentzat, jakina. Besteoi ordea, irribarre nostalgikoa ekarriko digu ezpainetara.

Izan ere, gaur egun horrelako eztabaidek ezinezko dirudite. Telefonoko Googlen bilatu, eta berehalaxe dator, Euskaltzaindiko Orotarikoa kontua argitzera: “AURKEZ AURKE (V, G ap. A; Lar). **a**) Frente a frente, cara a cara; de frente. “Frente a frente” y “cara a cara” Lar. “Afrontarse, ponerse frente a frente, *aurkez aurke, aurkaz aurka, betaz beta jarri, ifiñi, paratu; aurkeztu, betatu*” Ib. “Frente por frente” A. v. Eta ondoren datozen adibideen artean Larramendi, Mogel, Iztueta, eta... Lardizabalen testu zatiak agertzen dira: “Saulok orduan Elimas-i *aurkez-aurke* jarrita, *esan zion*:

“O gizon gezurtia eta dollorra!”. (Lard 506). Eta ondoren, *Euzko Gogoako* literatura itzultzaile saiatuak datoz ilaran, Ibiñagabeitia, Orixe eta Zaitegiren testuak, baina baita E. Erkiaga eta K. Mitxelenarenak ere.

Orduko gure *Google* izan zitekeen Xalbador Garmendiaren oroimen harrigarri hura: *pixkorra* baitzen! Azkarra eta jakintsua neurri berean!

Xalbador Garmendiaren izena gogoan hartu eta estimatzen genuela adierazteaz batera, haren belaunaldikoak ere gogoan eduki nahi ditugu: P. Altuna eta J. L. Alvarez *Txillardegi*, J. M. Lekuona eta B. Gandiaga, J. M. Aranalde eta D. Amundarain, J. Arenaza eta X. Azurmendi, I. Beobide eta F. Bilbao, G. Aresti eta G. Garate, M. Atxaga eta J. Gaztañaga, M. E. Erdozainzi eta Tx. Peillen, J.M. Satrustegi eta A. Zabala, I. Laspiur eta A. Orbegozo. Haien eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu euskal kulturaren berriztatzean egin zuten ahaleginagatik, zeren orduan, Arestik esan zuen moduan,

*Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen.
Eta zuek denok ur gazi bat
atera zenuten
handik nekez.*

Manex Pagolaren hilberri txostena (1941-2018)

ALFARO, Gexan

Ohorezko euskaltzaina

Bertze anitzen gisara, nik ere aspaldiko laguna nuen Manex Pagola: 1941-06-28an Nafarroa Beherean, Landibarren sortua zen, eta 2018-06-06an Lapurdin Urketa herrian zendua. Urte berean sortuak ginen. 10 urtetan, 1951n, elkarrekin gertatu ginen Hazparneko San Josepe kolegioan, apaizgai gisa harat eraman gintuztelako. Geroztik eskolatzeko osoa elkarrekin egin genuen: Uztaritzeko seminario ttipian, Aucheko, Akizeko eta Baionako seminario handietan. Baina, ez hark ez nik, ez genuen bururatu gure apaizgaigoa. Zergatik ote? Euskal Herriko apaiz izateko, euskarazko moldakuntza bat ere galdatzen genuelako biek, Beñat Sarasola eta Joanes Borda lagunekin batera. Baina, erantzuna, behin eta berriz, ezezkoa izan zen...

Frantses armadako zerbitzua (1965-1967) egin zuen Algerian, irakaskuntzako kooperatzaile gisa. 1986an, Baionako Euskal Museoan erredaktore zelarik, aurkeztu zuen Etnologia Maisutasunerako Memoria eta 1995ean, sozial eta kultural doktoretza eskuratu zuen. Bere lanagatik eskuratu zituen ere bi sari: Baiona Hiriko ohorezko Eusko Ikaskuntza saria eta 2014an Euskal Herriko Idazleen Biltzarreko saria, Sarako liburu feria kari eman zitzaiona.

Kantu solas, Manex biziki gazterik hasi zen kantu berriaren beharrari ohartzen. 1958an idatzi zuen bere lehen kantua, eta, 1968a bitartean, hogeita hamar kantu berriz goiti asmatu zituen... Oroitzen naiz oraino, urte haietan Uztaritzeko seminario ttipian ginelarik, nola Lafitte kalonje euskaltzainak bultzatzen gintuen euskal kantu xaharren ikastera... Ondorioz, anitz kantu ikasi genuen, eta urte batez, Uztaritze herriko plaza nagusian, kantu xaharren lehiaketa batean ere biek elkarrekin parte hartu genuen...

Hau dena errateko Manexek berak asmatu kantuekin utzi digun uza ederra, orotara 120 bat kantukoa, kantu herrikoietan oinarritua dela. Laster ohartuko ginen haren kantu berriak, edozein kantu xaharren gisara, multzoan errazki kantatzen zirela, eta gogoz ikasten ere halaber... Bere lehen 80 kantuak 1988an argitaratu zituen berak, *Biziaren altzotik* deitu liburuxkan. Eta 2014an, Elkar argitaletxeak, 100 kantu biltzen dituen liburua argitaratu zion, Jo Maris musikariak moldatu solfeoko notekin.

Egun batez, Peio Ospital eta Pantxoa Carrère hasi baziren hasi haren kantuak publikoan abesten, (Anje Duhaldek, Erramun Martikorenak eta Maite Idirinek ere beren aldetik noiz edo noiz kantatzen zituzten), erran dezakegu Euskal Herri osoan gaindi, kantuzaleak laster bereganatu zituela Manexen kantu gustukoenak, eta, geroztik, gaur egun arte Baionatik Bilboraino errepikatuak izan direla, eta anitz urrunago ere bai...

Bertzalde oraino, kantaldi ikusgarrien ideia emaile eta antolatzaile ere izan zen Manex Pagola. Hor gelditu dira lekuko: «Zazpiribai» (1972), «Ortziken» (1975) eta «Kantabi» (1978) deitu kantaldi ikusgarriak, beste kantari batzuekin batera antolatuak eta maiz emanak izan zirenak, arrakasta handiarekin gainera.

Manex beti ideia berritzaile izan zen, eta beti prest agertu bide berrietatik abiatzeko. Baionako ikastolako lehen gurasoetarik izan zen, Martxelin bere andrearekin batera. 1972an, Elkar argitaletxea ere bere ideiatik sortu zen Baionan, Iparraldeko 20 bat kantari eta idazleren inguruan. 1981ean, adiskide euskaltzale batzuekin Gure Irratia-ren sortzaileetan ere barne zen. Nola ez oroitaraz oraino, *Herria* aste-kariko idazle jarraiki bat izan zela, luzaz.

Politika aldetik, Enbatako lehen militanteetarik izan zen. Seminarioa utzi bezain laster, departamenduko kontseilugai bezala aurkeztu zen, mugimendu abertzale horren izenean, Bastidako kantonamenduan. 1978a arte, EHAS alderdiko militante izan zen, estatu gabeko nazio zapalduen arteko elkartasun baten beharraren sustatzaile eta beste. Bere politikari bidea, EA Eusko Alkartasunaren Iparraldeko arduradun nagusi gisa bururatu zuen.

Azken hitz gisa, erranen dut Manexek bide ederra egin duela bere inguruko lagunekin, euskararen eta Euskal Herriaren alde. Gogo eta bihotz handiko gizona zen. Denek bezala kexatzen ere zekiena, ideiez aldatzen ere bai; baina oroz gainetik umoretsua, alaigarria eta helburu bat finkatuz geroz, bururaino zeramana. Gainera, ez berak erranik, jakin genuen azken urte hauetan, osasun aldetik arazo larriak

bazituela. Hala eta guziz, barne indar handiz buru egiten zion bizi zuen egoera dorpeari, gogoia beti erne atxikiz. Bere azken denboretan erraten zigun bere burua ideia eta doinu berriz gaindika beterik zebilela...

Milesker, Manex, utzi diguken uzta baliosagatik eta ere hire adiskidetasun iraunkorragatik. Berriz arte.